

ejercicios

arlo

prácticos

eta

para

zehar-lerro

diferentes

ezberdinetarako

áreas y

ariketa

líneas


praktiko

transversales

batzuk

MATERIALES PARA LA EDUCACIÓN EN DERECHOS HUMANOS GIZA ESKUBIDEEN HEZKUNTZARI BURUZKO BALIABIDEAK

EDUCACIÓN SECUNDARIA: ESO Y BACHILLERATO
BIGARREN HEZKUNTZA: DBH ETA BATXILERGOA





Giza eskubideen hezkuntzarako baliabideak

**Arlo eta zehar-lerro ezberdinetarako
ariketa praktiko batzuk**

**Bigarren Hezkuntza: DBH eta Batxilergoa
Euskarazko bertsioa**

Gorka Azkarate, Lourdes Errasti, Maite Mena

OHARRA

Lan hau, ikastetxeetan zabaltzeko eta ahalik eta onurarik handiena ateratzeko argitaratua, Ararteko erakundeak emandako beka baten emaitza da. Hala ere, egindako lana nahiz ariketa-karpeta honen edukia, euskaraz eta gaztelaniaz, beren egileei zor zaie.

Material hauek argitaratuz, beroriek gehiago zabaldu eta erabil daitezen nahi dugu. Beraz, edozein bidez baliatuz ariketak kopiatzeko baimena ematen eta sustatzen dugu, merkataritza helburuetarako izan ezik.

© ARARTEKO

© Egileak: Gorka Azkarate, Lourdes Errasti, Maite Mena

Fotokonposaketa: EPS, S.L., Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz

L.G.: Vi-28/2000

Tradizioa ez dena plagioa da (Anonimoa)

AURKIBIDE OROKORRA

(6 eta 7. eranskinetan, karpetaaren amaieran, ariketa praktikoak arloen eta zehar-lerroen arabera sailkatuak aurki daitezke)

- Eskerrak emanez9
- Sarrera 11

ARIKETAK

Zenbakia	Izenburua	Orrialdea
1. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	19
2. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	21
3. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	23
4. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	25
5. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	27
6. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	29
7. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	31
8. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	33
9. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	35
10. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	37
11. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	39
12. ariketa	Aldarrikapena eta iritzi askatasuna	41
13. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	43
14. ariketa	Aldarrikapena eta botoa emateko eskubidea	45
15. ariketa	Aldarrikapena eta lana edukitzeko eskubidea	47
16. ariketa	Aldarrikapena eta aisialdirako eskubidea	49
17. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	51
18. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	53
19. ariketa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala	55
20. ariketa	Lore distilazioa	57
21. ariketa	Lore lurrina	59
22. ariketa	Garapenerako loreak	61
23. ariketa	Herrixka eta dorrea	63

24. ariketa	Gas ganbara	65
25. ariketa	Inken teknologia	67
26. ariketa	Jostailu berrerabiliak	69
27. ariketa	Giza eskubideak gure herrialdean	71
28. ariketa	Güipilak	75
29. ariketa	Pertsonen aurkako lehergailuak	77
30. ariketa	Oinarrizko eskubideak	79
31. ariketa	Gogoetak	81
32. ariketa	Hizkera eta arrazismoa	83
33. ariketa	Kultura desberdinak	85
34. ariketa	Sor ezazu zure GKE	87
35. ariketa	Bidegabekeriak	89
36. ariketa	Historia eta umeen eskubideak	91
37. ariketa	Hondoratzea	93
38. ariketa	Elkarbizitza	95
39. ariketa	GKEak	97
40. ariketa	Aurpegi unibertsala	99
41. ariketa	Non dago Ekialdeko Timor?	101
42. ariketa	Zer dago gaur bazkaltzeko?	103
43. ariketa	Jokatzeko bi modu	105
44. ariketa	Giza eskubideak ordenatzen	107
45. ariketa	Nagusikeria	109
46. ariketa	Garapena. Hiztegia	111
47. ariketa	Psikologia	113
48. ariketa	Demokraziarekin jolasean	115
49. ariketa	Mundua ikasgela balitz	117
50. ariketa	Heriotza-zigorra	119
51. ariketa	Hizkuntza primitiboak, hizkuntza berriak	121
52. ariketa	What's the difference?	123
53. ariketa	Eztabaida isila	125
54. ariketa	Egin ezazu zeure eslogana	127

55. ariketa	The colours	129
56. ariketa	Koloreak	131
57. ariketa	Zorioneko itzulia	133
58. ariketa	Gauss-en kanpaia	135
59. ariketa	Estereotipoak	137
60. ariketa	Aurreiritziak	139
61. ariketa	Nor hasi zen?	141
62. ariketa	Stories told by young people	143
63. ariketa	Agurraren lezioa	145
64. ariketa	Mirentxoren balentriak mundu miresgarrian	147
65. ariketa	Idazten (aurrekoari lotua)	151
66. ariketa	Idatzi gutun bat	153
67. ariketa	Erokeria?	155
68. ariketa	Petrolioia	157
69. ariketa	Emakumezkoak oraindik lan gehiago egiten dute etxean	159
70. ariketa	Gure turista	161
71. ariketa	Giza Eskubideen Hezkuntza: Zertarako?	163
72. ariketa	Hiru bertso: "Atzerritar batek Euskal Herria bisitatu du"	167
73. ariketa	Ezetz!	169
74. ariketa	Autoebaluazioa	171
75. ariketa	Armak	173
76. ariketa	Giza Eskubideak eta indarra	175

ERANSKINAK

1. eranskina	Giza Eskubideen Alkarrikapen Unibertsala	E-11
2. eranskina	Ariketetan erabilitako iturriak	E-17
3. eranskina	Materialen ebaluaketarako irizpideak	E-21
4. eranskina	Gobernuz kanpoko erakundeak. Zerrenda labur bat	A-23
5. eranskina	Bibliografia	A-25
6. eranskina	Zehar-lerroen arabeko aurkibidea	E-39
7. eranskina	Arloen arabeko aurkibidea	E-45

ESKERRAK EMANEZ

Ararteko erakundeari eskerrak eman nahi dizkiogu material didaktiko hauek egiteko eta argitaratzeko eskaini digun laguntzagatik. Bereziki, Fermín Barceló jaunari eskertu nahi diogu bere laguntza. Honen esperientzia eta komunikatzeko gaitasuna ezinbestekoak izan dira lan hau burutzeko.

Ezin ahantzi hemen Rubén Díaz de Corcuera eta Eduardo Benito jaunak, ezta ere Maider Ortiz de Martioda eta Jon Eizmendi. Horien laguntza eta adiskidetasun barik, lan hau, agian, oraindik ere argitaratu gabe legoke.

Hitzaurrean esan bezala, material didaktiko hauek sortu genituenean ia 270 ariketa geneuzkan, eta ariketa bakoitza hizkuntza bakar batean zegoen idatzita. Ariketa asko beharbada, baina eskoletan sekula esperimintatu gabeak gehienak. Ararteko erakundearen laguntzarekin zenbait irakasleri bidali genizkien gure ariketak, bakoitzari bere jakintza arlokoak.

Eskerrik asko ariketa horiek aztertu zituzten guztiei eta, batez ere, gurekin harremanetan jarri zirenei. Haien iradokizunak eta ebaluazioak kontuan hartzen saiatu gara.

Eskerrak, beraz, lagungu diguten irakasle guztiei:

Estrella Alonso, La Inmaculada-Hijas de Jesús-Bilbo

José Manuel Antolín, IES Zalla

M^a Mercedes Cerezo, IES Rekaldeberri-Bilbo

Iñaki de la Cotesa, IES Muskiz

M^a José Delgado, IEFPS Ategorri Tartanga-Erandio

José Manuel de la Fuente, Centro Profesional Otxarkoaga

Alicia Llano, IES Artaza-Romo

Emilio Martínez, IES Artaza-Romo

Clara Julia Moreno, IES Fadura-Getxo

M^a Dolores Moreno, IES Julio Caro Baroja-Getxo I

Amaia Parra, IES Dolores Ibarruri

Elena Puignau, IES Artaza-Romo

Pedro A. Santamaría, IES Fadura-Getxo

Carmen Urdiales, IES Artaza-Romo

Itziar Uriagereka, IES Fadura-Getxo

Eta barkatu norbaiten gutuna galdu badugu edo behar bezala kontuan hartu edo ulertu ez badugu.

Orobat, eskerrak eman nahi dizkiegu Curriculumum Eratzeko Institutuko (CEI) zenbait profesionali, ariketak argitaratu baino lehen aztertzegatik, eta baita beren testuak kopiatzeko baimena eman diguten argialetxe edo erakundeei ere.

Gorka Azkarate, Lourdes Errasti eta Maite Mena

Vitoria-Gasteiz, 1999

Sarrera

SARRERA

Ikuspegi orokorra

Material didaktiko hauek sortzean, gure helburua lanean ari diren irakasleengana ahalik eta modu zuzenenean iristea izan da.

Ararteko erakundeak giza eskubideen hezkuntzarako dirulaguntza eskaini zuenean, guk eskoletan irakasleentzat zuzenean erabilgarri izateko materialak sortzea erabaki genuen. Giza eskubideen hezkuntzak eztabaida teoriko asko sortzen baditu ere, guk hasieratik erabilpen praktikorako zerbait sortu nahi genuen. Testu teorikoak eginez gero, lanean diharduten irakasleekin bat egitea zailagoa dela uste baitugu.

DBHko eta Batxilergoko ikasleentzat material didaktikoak prestatu ditugu. Material didaktikoek ez dute lan egiteko modua erabat baldintzatzen, eta guk eskainiriko materialok, beraz, proposamen hutsak dira; irakasleek beraiek erabakiko dute material hauek nola erabili, eta gure proposamenei noraino jarraiki.

Giza eskubideak eskoletan lantzeko adibide izan daitezkeen ariketa praktikoak sortu ditugu. Eta ariketok egiteko beharrezko bitartekoak beti izango dira eskuraerazak.

Oharra: material hauek Ararteko erakundeari esker argitaratu dira, baina bertan agertzen diren iritziak egileen ardura dira.

Helburuak

Gure oinarritzko helburua zenbait balio etiko hedatzea izan da, gobernu kanpoko erakunde askok egiten duten bezala, Amnesty Internationalek esaterako. 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala oinarritzko dokumentutzat hartu dugu, eta Amnesty Internationalek egiten duen moduan, bertan agertzen diren baloreak hedatu nahi izan ditugu. Gure ustez, denok dugu giza eskubideak zeintzuk diren jakiteko eskubidea, eta giza eskubide horiei guztiei erabateko begirunea erakutsi beharko litzaieke edonon.

Honelako aurreiritziekin abiatu gara: ez genuen gizabanako eskubideei buruz bakarrik idatzi behar, baita gizataldeen eskubideei buruz ere. Gutxiengoei, begirune osoa zor zaie, baina askotan, gehiengoak izan behar du erabakitze eskubidea, guztien onerako bada behintzat. Dena den, giza eskubideek, gehiengoak erabakitzen duenaren gainetik egon behar dute beti. Giza eskubideak ezin dira inolaz ere «demokratikoki» zapaldu.

Gure material didaktikoen xedeetarikoa bat ikasleen partehartze aktiboa bultzatzea da. Ikasleek ez lukete entzule huts izan beharko. Ikasleen partehartzea bultzatu egin behar dela uste dugu, eta ebaluatzerakoan, ikasleen jarrerak eta ikasleen emaitzak, guztiak ebaluatu. Ikaskideen arteko harremanak, ikastaldearen artekoa...neurtu behar dira.

Giza eskubideen hezkuntzan (agian hezkuntzako alor guztietan bezala), eduki batzuk barneratzea bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa iruditzen zaigu zenbait sentimendu lantzea: elkartasuna, elkarrenganako begirunea, ingurugiroa errespetatzeko gogoia... Horrelako sentimenduak sortu beharko lituzke irakasleak, baina horiek sortu eta lantzea ez da lan makala. Guk, behintzat, ez daukagu errezeta magikorik.

Irakasle eta ikasleen esku geratuko da, gure ariketak abiapuntu hartuta, lan osoagoa egitea.

Nola erabili ariketak

Hasieran, batez ere jolasak eta talde dinamikak erabili nahi genituen, talde-lanari esker pertsonen arteko elkarlaguntzak nolako garrantzia duen erakusteko asmoz. Baina gero, talde-lanak berekin dakartzen zailtasunak ikusirik, beste proposamen didaktiko batzuk egitea erabaki genuen.

Irakasleei zera eskatzen diegu: azter ditzatela guk proposaturiko ariketak eta erabil ditzatela beren modura, interesgarrien iruditzen zaizkien zatiak edo ariketa osoak hartuz, baina nahi bezala eraldatuta.

Material hauek ahalik eta gehien heda daitezzen sortu dira, beraz, irakasleen esku uzten ditugu, goitik behera, askatasun osoz erabil ditzaten.

Ariketa bakoitzaren hamaika aldaera sor daiteke: gure proposamenak oinarritzat hartuta, irakasleek beren gustuko ariketak sor ditzakete, taldearen adinaren, kopuruaren edo izaeraren arabera. Hortaz, ez lituzkete begiratu behar soil-soilik maila edo arlo jakin bateko ariketak, izan ere, gerta liteke beste maila edo arlo batean ere gauza erabilgarriak aurkitzea. Esaterako, arrazakeria salatzeke ariketa bat, sexu-bazterkeriaren kontrako ariketa bihur dezakete nahikoa erraz. Eta adin baterako sortu dugun ariketa bat, beste adin baterako egokitu.

Ariketetan galdera asko ipini dugu. Irakaslearen lana erraztu nahian galderen erantzunak eman ditugu erantzuna bakarria denean. «Zein da falta den hitza?» bezalako galderekin erantzun zuzen bakarria daukate, zerrenda bat ematen bada. Baita ere «Zein da kalkuluaren emaitza?» bezalako galderekin. Baina, beste batzuetan, oso galdera zabalak egin ditugu: «Zuk zer uste duzu?», «Zein da arazo horren jatorria?», eta abar. Honelako galderetan, aldizka erantzun batzuk emango ditugu. Hori egitean ez dugu adierazi nahi erantzun horiek direla zuzenenak. Irakasleen lana erraztu nahi dugu, besterik ez. Galdera zabalak egiten ditugunean, hausnarketak bideratu nahi ditugu, baina erantzuteko bide anitz dago. Guk abiapunturen bat edo beste emango dugu. Irakasle eta ikasleen esku geratuko dira ondorengoak.

Irakasleagoa bere irudimena edo sormena erabiltzera bultzatu nahi dugu. Proposatutakotik edozer alda dezakete.

Esperimentazioa

Lan hau argitaratu baino lehen, Ararteko erakundearen laguntzari esker, lanean ari diren hainbat irakasleri bidali genizkien gure ariketak, erabil zituzten. Ariketa hauek, beraz, ikasgela arruntetan erabili ahal izan dira.

Ariketa hauetaz baliatuz lan egin duten irakasleen iradokizunak oso baliogarriak izan dira guretzat. Guri laguntzeko ahalegina egin duten irakasle horiei eskerrak eman nahi dizkiegu.

Arrazoi praktikoengatik, irakasle bakoitzari ariketa bakar batzuk helarazi genizkion, beren ikasgaiarekin lotura handiena zutenak. Oraindik ez dakigu gure ariketak beste arlo batzuetan erabiltzeko modukoak diren ala ez. Pentsatu nahikoa genuke proposaturiko ariketa asko erraz egokitu daitezkeela beste ikasgai eta maila batzuetara.

Berrehun eta berrogeita hamar bat ariketatik, azkenean 181 hautatu ditugu. 76 euskaraz eta 105 gaztelaniaz. Horietako batzuk bi hizkuntza horietan agertzen dira, baina beste batzuk, aldiz, hizkuntza bakarrean. Lanean ari diren irakasleen iritzia gurearen gainetik ipini dugu ariketak aukeratzeko.

Ebaluazioa

Ikasleen partehartzea neurtu eta sustatu behar delakoan gaude. Taldeka lan egiten bada, talde bakoitzaren lana neurtu beharko da, baina baita ere beste taldeekin izaten dituen komunikazioak eta ariketak ikasleengan izan duen eragina.

Jarrerak eta jokoerak ere balioztatu beharko lirake, ez bakarrik irakasleek zenbait eduki bereganatu edo ikasi dituzten ala ez. Taldearen barnean eta beste lan-taldeekin harremanetan, jarrerak eta jokoerak giza eskubideen hezkuntzan oinarritu beharko lukete.

Gure ustez, jarrerak eta jokoerak eskolan ere landu beharreko kontuak dira, eta ez familetan bakarrik. Giza eskubideen alorrean, edukiak -hau da, giza eskubideak zeintzuk diren ezagutzea- jarrera eta jokoaren menean daude: helburu nagusia giza eskubideak errespetatzea da.

Guk ikasgeletarako proposamen batzuk plazaratu besterik ez dugu egin, baina klustroei, gurasoen elkartei eta abarri dagokie beste zerbaitek egitea giza eskubideen alorrean. Eskola orduetatik kanpo, gobernuaren kanpoko erakundeetako ordezkariekin hitzaldiak antola daitezke, zine-forumak, etab.

Hori guztia kontuan izanik, tutoretzetako eskola orduetarako material batzuk ere proposatu ditugu. Beti jarrera eta jokoaren garrantzia azpimarratzeko asmoz.

Denbora luzean askok pentsatu izan dute etika eta erlijio ikasgaiak zegoen giza eskubideekin, jarrerekin, eta abarrekin zerikusia zeukaten gaiak jorratzea. Gure planteamendua oso bestelakoa izan da. Arlo guztietan zerbaitek egin zitezkeela pentsatu dugu. Ez gara, jakina, burutapen hori izan duten lehenengoak, legean bertan aipatzen baita, guk uste. Zehar-lerroen bidez heldu nahi zaio alor honi. Gure hasierako xedea horixe zen, irakasleei giza eskubideen alorrean jarduteko baliabideak eskaintzea, baita etika edo erlijio alorretatik kanpo ere.

Errazagoa dirudi giza eskubideak gizarte zientzien alorrean jorratzea alor teknikoagoetan baino. Hala ere, ia alor guztietarako zerbait prestatzen saiatu gara. Ez da lan erraza izan, arazo hau topatu baitugu: zenbat eta estuago lotu giza eskubideei, orduan eta nekezagoa gertatu zaigu asignatura bakoitzean irakasleak bete behar duen ikasketaprogramari jarraitzea.

Espero dugu programa horien malgutasunari eta irakasleen irudimen eta trebetasunari esker arazo hori konpontzea eta ariketa hauek lantzea.

Ariketen sailkapena

Bost irizpide hauen arabera sailkatuko ditugu ariketak:

1) **Arloen** arabera. Ariketa guztiak Bigarren Hezkuntzan lantzen diren arloen arabera sailkatuak daude: Matematika; Bigarren hizkuntza; Gizarte zientziak, Geografia eta Historia; Erljioa edo alternatiboa; Gorputz hezkuntza; Etika; Euskal hizkuntza eta Literatura; Plastiketa eta Ikus-hezkuntza; Natur zientziak; Tutoretza...

2) **Mailen** arabera. Maila gutxi gorabeherakoa izango da beti. Irakasleak berak ezagutuko du zelako taldea daukan. Guk, lagundu nahian, ariketa bakoitzeko maila bat ezarri dugu, baina, jakina, irakasleak ikusiko du ariketa jakin bat bere taldean erabilgarria eta komenigarria den ala ez, eta nola egokitu. Ariketa gehienak erraz molda daitezke, gure iritziz, maila ezberdinetara. DBHrako eta Batxilergorako prestatu ditugu.

Ikasle talde bat ondo ezagutzen duenak bakarrik erabaki dezake ariketa bat taldearen mailarako egokia den ala ez. Beraz, ariketak ez dira hertsiki adin-talde edo maila jakin baterako eginak. Irakasleen esku uzten ditugu, hark molda ditzan, zailtasuna gehituz ala gutxituz, luzatuz, laburtuz, e.a., bere iritzia arabera.

3) Beharrezkoak diren **oinarrizko materialen** arabera: testua; filma; abestia; grafikoak edo taulak; argazkia, marrazkia edo grabatua; arbela; material berezirik gabeko ariketak (rol-jokoak, e.a.).

4) **Zehar-lerro** batzuen arabera, ariketa bakoitza gutxi gorabehera zeri buruzkoa den azkar ikus dadin:

- Ingurugiro-hezkuntza
- Giza eskubide eta bakerako hezkuntza
- Arrazismoa
- Bakea
- Intolerantzia
- Hezkidetzeta
- Giza eskubideak
- Garapenerako hezkuntza
- Solidaritatea

5) Ariketak **denboraren** arabera ere sailkatu ditugu (hau ere gutxi gorabeherakoa izango da, ezinezkoa baita aurrez ariketa bat egiteko zenbat denbora beharko den aurrez zehaztea, talde bakoitza ezagutu gabe).

* * *

Ariketa bakoitzak zenbaki bat izango du, baina horrek ez du gehiegi lagunduko, non eta ez diren erabiltzen 6. eta 7. eranskinak.

Lagunariagoa izango da hasierako aurkibide-aula eta ariketa bakoitzaren buruan agertuko den taula. Esaterako:

Arloa	Euskal hizkuntza eta Literatura
Maila	Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	Ordu bat

Ariketa bakoitzaren buruan agertzen den taulako informazioa lagungarria da, ez nahitaez jarraitu beharrekoa. Ariketak beste ikasgai eta maila batzuetara ere egokitu daitezke.

Ariketa bakoitzaren **helburuak** oso laburrak eta orokorrak dira, ez baititugu bereizi edukizko, prozedurazko edo jarrerazko helburuak. Helburuok zehaztu gabe zirriborratzea erabaki dugu, irakasle bakoitzak bere erara eta talde bakoitzari egokitu diezazkion.

Giza eskubideen hezkuntzari buruzko ariketa praktikoak sortzen ahalegindu gara, eskoletan alor desberdinetan landu daitezen.

Sinopsia

Material hauek adibide praktikoak dira, giza eskubideak eskoletan lantzeko iradokizunak. Irakasleek adibide hauek nahierara aldatu eta egokitu ahal izango dituzte. Maila eta iraupena laguntzeko adierazi ditugu, ez mugak jartzeko.

MATERIALEN ERABILERA

Arlo eta maila askotarako ariketak proposatzen ditugu.

Ariketa bakoitza ikasgai bat baino gehiagotan erabil daiteke.

Ikasleek taldeka lan egitea hobetsiko da.

Irakasleek guk proposaturiko ariketak egokitu ahal izango dituzte askatasun osoz.

BITARTEKOAK

Irakasleek, ariketak burutzeko, zenbait bitarteko beharko dituzte: oinarrizko testuak, taulak, grafikoak, argazkiak, marrazkiak...

Ariketak eskola guztietan egin daitezen, erraz lortu eta erabil daitezkeen bitartekoak proposatu ditugu.

Arartekoak argitaratutako karpeta honetan bertan daude ariketak burutzeko beharrezko bitartekoak. Horrela ez bada, bitarteko horiek non eta nola lortu adieraziko dugu.

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Ikasleen jarrerak baloratu behar dira: ikasle bakoitzarenak eta talde bakoitzarenak.

Ikasleen eta ikasle-taldeen emaitzak baloratu behar dira.

Irakasleak bere burua ere ebaluatu behar du, bere irizpideen arabera.

Ariketak etengabe aldatu eta egokitzen baditu, aldi bakoitzean lortutako emaitzak erkatu beharko ditu.

3. eranskinean ebaluatzekeko irizpide batzuk ipini ditugu, irakasleentzat lagungarri izango direlakoan.

Material didaktiko hauek lanean ari diren irakasle batzuei eskuratu zaizkie eta esperimendazio-aldian egon dira.

arlo

eta

zehar-lerro

ezberdinetarako

ariketa

praktiko

batzuk

GIZA ESKUBIDEEN HEZKUNTZARI BURUZKO BALIABIDEAK

B I G A R R E N H E Z K U N T Z A : D B H E T A B A T X I L E R G O A



Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Euskal hizkuntza eta Literatura
Maila	Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	Ordu bat

Aldarrikapenaren hitzaurreari buruzko testu iruzkina egin beharko da.

Ikaslearentzat:

Egin ezazu hurrengo testuari buruzko iruzkina. Horretarako hurrengo pausoak jarrai ditzakezu:

1. Testuaren sailkapena.
2. Gaia. Egitura: barnekoa eta azalekoa.
3. Maila fonikoa.
4. Maila morfosintaktikoa: izenak, izenlagunak, aditzak, esaldiak.
5. Maila semantikoa.
6. Ondorioa.

“Hitzaurrea

Kontuan izanik giza familiako kide guztiek berezko duintasuna eta eskubide berdin eta utziezinak dituztela onartzea dela munduko askatasunaren, justiziaren eta bakearen oinarria;

Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxiestearen ondorioz, gizakien kontzientziari iraingarri zaizkion basakeriak gertatu izan direla; eta beldurretik eta miseriatik aske, gizon-emakumeei hitz egiteko askatasuna eta sineste-askatasuna ekarriko dizkien munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusi;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakiak agintekeriaren eta zapalketaren kontrako matxinadara -hori baita azken irtenbidea- jo bear izan ez dezan;

Kontuan izanik nazioen arteko harreman lagunkoia bultzatzea ere ezinbestekoa dela;

Kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek Kartan berretsi dutela gizakiaren oinarritzko eskubideetan, pertsonaren duintasunean eta balioan eta gizon-emakumeen eskubide-berdintasunean duten fedea; eta askatasunaren ikuspegi zabalago batetik,

gizarte-aurrerakuntza sustatzeko eta bizi-maila hobetzeko erabakia adierazi dutela;

Kontuan izanik estatu kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarritzko eskubide-askatasunak oro har eta modu eraginkorrean errespetatuko direla ziurtatzeko hitza eman dutela; eta

Kontuan izanik emandako hitza osorik beteko bada, oso garrantzitsua dela denek eskubide eta askatasun horiek berdin ulertzea;

Batzar Nagusiak

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsal hau egiten du herri eta nazio guztiek lortzen ahalegindu behar duten helburu gisa, pertsonak nahiz erakundeek, beti aldarrikapen honetan oinarrituz, eskubide eta askatasun hauei zor zaien errespetua bultzatzen irakaskuntzaren eta heziketaren bidez, eta nazio nahiz nazioarte mailan pixkanaka neurriak hartuz, oro har eta modu eraginkorrean aitortu eta betearaziko direla ziurta dezaten, bai Nazio Batuetako kide diren estatuetako herrietan, bai horien jurisdikziopean dauden lurraldeetakoetan.”

Galderak:

- Zeintzuk uste duzu izan zirela Nazio Batuek izan zituzten arrazoiak giza eskubideak eta betebeharrak testu batean bateratzeko?
- Begiramenen bat falta dela uste duzu? Uste al duzu izaki guztien arteko berdintasunak argi eta garbi azaltzen dituela?
- Munduan gertatzen al dira hitzaurre honek proposatzen dituen berdintasun egoerak? Zergatik?
- Aldarrikapena sinatu duten 151 herrialdeek -151k dute ordezkaria Nazio Batuetan- hitzaurreko betebeharrak betetzen dituztela uste duzu? Zergatik?
- Aldarrikapen Unibertsalak ez die herrialdeei bakarrik eragiten, baizik eta guztioi eragiten digu gure eguneroko bizitzan. Ezagutzen al duzu zure inguruan Giza Eskubideak betetzen ez diren egoeraren bat: ikastetxean, etxean, zure hirian?
- Nola lagundu dezakezu Aldarrikapen Unibertsala zure inguruan errespetatua eta onartua izan dadin? Eta mundu osoan, zerbait egin zenezake?

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Plastika eta Ikus-hezkuntza. Etika. Erlijioa edo alternatiboa
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Kartulina, margoak, argazkiak...
Iraupena	Ordu bat

Ikasle bakoitzak marrazki bat, collage bat, postal bat eta komiki bat egin beharko ditu, eta bertan, 1. artikuluko testuan azaldutakoak agertu beharko du. Gero, ikasle bakoitzak, pixka batean gogoeta egingo du postal edo marrazki hori munduko zein pertsonari edo zein erakunderi bidaltzea komeni izango litzatekeen premia handiarekin.

Azalpen grafiko bat egin daiteke ikasgelak aukeratutako lanekin.

Ikaslearentzat:

“1. Artikulua

Gizon-emakume guztiak libre jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberekin, eta, arrazoimenez eta kontzientziaz jantzirik daudenez gero, elkarrekin senide moduan jokatu behar dute.”

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Erljioa edo alternatiboa
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	30 minutu

Aldarrikapen Unibertsalaren bigarren artikuluekin batera ikasleei egoera multzo bat emango zaie, eta bertan, artikulua hau bortxatua ager daiteke edo ez. Ikasleek aukeratu behar dute artikulua betetzen den ala ez, eta arrazoitu.

Artikuluaren aldez aurreko irakurketa egitea aholkatzen da, adierazten diren kontzeptuei buruzko zalantzak argitzeko eta testuaren interpretazioari buruzko iritziak eskatzeko.

Ikaslearentzat:

“2. Artikulua

- 1. Pertsona orok ditu aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasun guztiak, eta ez da inolako bereizketarik egingo arraza, larru-kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politikako edo bestelako iritzi, jaioterri edo gizarte jatorri, ekonomi maila, jaiotze edo beste edozein gorabeheragatik.*
- 2. Gainera, ez da inolako bereizketarik egingo pertsona hori bere jurisdikziopean daukan herri edo lurraldearen egoera politiko, juridiko edo nazioartekoagatik, eta berdín dio herri burujabea den edo besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo burujabetza mugatukoa”.*

Egoerak:

1. Matematikako irakasleak azterketaren notak emango ditu. Nota altuena 9 da eta baxuena 2'5. Berdintasunaren abiaburuaren aurka doa: ikasle guztiek 5 bat eduki beharko lukete?
2. Emakume exekutibo batek bere gisako gizonak egiten duen lan berdina egiten du, eta hala ere, %30 gutxiago irabazten du.
3. Ikasle musulman bat klasera “chador”arekin doa (aurpegia eta ilea estaltzen duen beloa), bere erlijioaren arauak betez. Klasera joateko kendu egin behar al du eta horrela bere gela kideekiko desberdintasunik ez eduki?
4. Australian abereak markatzerakoan, normalena bertako biztanleek janari truke lan egitea da, baina honez gain soldata eskatzen hasi dira, lan ordu asko betetzen baitituzte eta beste behar batzuk dituztelako: sendagaiak, arropa..., eta horietarako eskudirua behar dute. Hala ere, ganaduzain australiarrak ez daude guztiz ados.
5. Gizon bat kartzelaratu izango da 100.000 pta.ko kaudimena ezarri diotelako eta ezin izan duelako diru hori bildu. Dena dela, beste batek 5 milioko kaudimena du, eta, beraz, diru hori ordainduta, kartzelatik irtengo da.
6. 1991 urtean Bakearen Nobel Saria jaso zuen Aung San Kyi Myanmar-ekoak (lehen Birmania). Ia sei urtez egon zen (1989tik 1995era) etxe barruan atxilotua, bere herrialdea gobernatzen zuen erregimen militarreakiko aurrakotasun politikoa era baketsuan manifestatzeagatik.
7. Gizon bati Estatu Batuetan heriotz zigorra ezarri zaio. Ezin du abokatu on bat ordaindu, eta ofiziko abokatu defendatzaileak kasu asko pilatuta dituenez gero, ezin ditu denak era berean aurrera eraman. Gizon horrek babes falta jasan duela uste duzu?

Galderak:

- Bururatzten al zaizu Aldarrikapenaren artikulua hau bortxatzen duen beste egoeraren bat?
- Zer egin genezake Giza Eskubideen bortxaketa amaitzeko? Zer egin zenezakete zuek zuen gelan edo ikastetxean?

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Plastika eta Ikus-hezkuntza
Maila	DBH
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Bideoa, grabagailua, orriak...
Iraupena	Ordu bat

Aldarrikapeneko 3. artikuluari buruzko publizitate-iragarki bat diseinatzea da kontua.

Ikasleek hiru edo lau laguneko taldeak osatuz, telebista, irrati edo prentsa idatziarentzako euskarri bezala erabil daitekeen publizitate-iragarki bat diseinatu behar dute, enuntziatuan Aldarrikapeneko 3. artikularen gaia erabiliz. Iragarkiek komunikazio bide desberdinetarako zehazki pentsatuta egon behar dute, eta horregatik, talde bakoitzak hauetako bati erantzunio dio: telebista, irrati edo prentsa...

Lan guztiak bukatu eta gero, eztabaida bat sortu edo aztertu egin daiteke artikularen mezua hobeto komunikatzen duen lana zein den aukeratzeko, hori komunikatzeko komunikazio bide zailena zein den, beste komunikazio bideetako iragarkiak nolakoak diren, agertzen den errealitateari buruz zer ikusten duten herriko komunikazio bideetan, estatukoetan, nazioartekoetan...

Publizitate-iragarkia diseinatzerakoan, Aldarrikapenaren 50. urtebetetzeaz balia daiteke.

Ikaslearentzat:

“3. Artikulua

“Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea”.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Euskal hizkuntza eta Literatura
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	Ordu bat

Ikasleak artikulu honen garrantziaz jabetzea edo saiakera bat egitea lortu nahi da, bi orrialdetan gutxi gorabehera.

Ikaslearentzat:

“6. Artikulua

Gizon-emakume guztiek dute, nonahi, nortasun juridikodun gisa hartuak izateko eskubidea”.

Gogoeta egiteko laguntza:

- Udaltzaingoak isun bat jarri dizulako-edo bidegabekeria egoera batean zaudela uste baduzu, desaraua dela uste duzulako-edo helegin nahi baduzu, hau da babesten zaituen Aldarrikapeneko artikulua.
- Zure aitak arropa denda bat jarri badu beste lankide batzuekin, hau da dendaren eskubide eta betebeharrak zaintzen dituen artikulua, senide arteko erakunde bezala eduki ditzakezuenetik bereziak.
- Auzoan auzo-elkarte bat edo eskolan ikasleen guraso-elkarte bat sortu baldin bada eta zuen ama elkarteko burukidea bada, artikulu hau da elkartearen eskubideak islatzen dituen, zuen amaren beste esparruetako ekintzetatik bereiziz.
- Bazenekien legezkontrako etorkinek ez dutela gure herrialdean eskubide hau? Legez kontra herrialde batean sartzearatik pertsona horrek ezin du eraso bat edo jasan duen lapurreta bat salatu. Eskubide hori ez edukitzeagatik, era batean ez dio balio beste guztiak aintzat hartzeak. Bidezkoa iruditzen zaizu? Irtenbideren bat bururatzen zaizu?

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Gizarte zientziak. Erljioa edo alternatiboa
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	Ordu bat

Ikasle bakoitzari hurrengo adibideak biltzen dituen testua emango zaio. Ikasle bakoitzak 5 minutu izango ditu gogoeta egiteko eta ikusteko ea 7. artikulua zein heinetan eragiten dion talde edo kolektibo bakoitzari.

Gero, lau edo bost pertsonako taldeak osatuko dira, egoerak parekatzeko eta talde-erabaki bat hartzeko. 10 minutu izango dituzte.

Hurrengo 20 minutuak lortutako emaitzak gelako gainerakoekin parekatzeko erabiliko dira. Aurkako jarrerak agertzen badira, adostasuna lortzen saiatuko dira.

Sakonago eztabaidatu ahal izateko, ariketa bi klasetan bana daiteke, edo galdera bakoitzak iradokitzen dienari buruz gogoeta idatzi bat eska daiteke.

Ikaslearentzat:

“7. Artikulua

Denak berdinak dira legearen aurrean, eta denek dute, bereizketarik gabe, legezko babes bera izateko eskubidea. Guztiek dute Aldarrikapen hau urratzen duen bereizkeria eta bereizkeria-eragile ororen kontra babes berbera izateko eskubidea”.

Galderak:

- Nola eragiten dio honako talde bakoitzari Aldarrikapenaren 7. artikulua?
 - arloak edo oinezkoak, hiri batetik bestera aterperik edo lanik gabe dabilzanak, eta zentsuan agertzea edo erroldatzea oso zaila dutenak.
 - urritu fisiko edo psikikoak, askotan ez baitute lortzen bidezko tratua, oso zaila egiten zaielako leku publikoetara heltzea, ez direlako behar dituzten egokitzapenak egiten
 - bere hiriko udal-hauteskundeetan botoa eman nahi duen Europako Batasuneko beste herrialde bateko hiritar bat.
 - lurreko legeei atxikita ez dauden estralurtarrak.
 - atxilotua izan den legezkontrako etorkin bat; ez daki zergatik atxilotu duten, ez duelako ez gaztelera ez euskara ulertzen.
 - Estatu Batuetan, pertsona bat 26 urteko kartzelaldia betetzera zigortu dute lau gailera lapurtzeagatik. Zigorra Kaliforniako lege batean oinarritzen da, eta bertan ezartzen da hiru delitu betez gero -arinak badira ez du axola-pertsonak mota hauetako zigorrak jaso ditzakeela. (El Mundo, 1998ko martxoaren 16a, 40. orrialdea).
- Bururatzen al zaizu Aldarrikapenaren artikulua hau bortxa dezakeen egoeraren bat?

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Filosofia. Etika. Erljioa edo alternatiboa. Plastika eta Ikus-hezkuntza
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	2 ordu

Epaiketa bat antzeztea da helburua. Akusatu bat, epaile bat, abokatu defendatzaile bat, fiskal bat eta sei ikaslez osatutako epaimahai bat izango da, azken horrek akusatua erruduna ala errugabea den esan beharko du, eta erruduna bada, zein den bere delituak merezi duen zigorra; klaseko beste ikasleek erru-egozleen edo errugabetzat jotzen duten lekukoen papera egingo dute, eta alde edo kontra argudia dezakete, betiere epailearen baimena eskatzen baldin badute parte hartzeko.

Atxilotua epaitzeko delituak honako hauek izan daitezke: giza-hilketa, lapurreta, iritzi delitua, eraso...

Kondenatua zer delitupean epaituko duten aukeratu ondoren, pertsonaia bakoitzak bere kontrako edo aldeko argudioak prestatu beharko ditu. Irakasleak, kondenatuak eta lekuko bikote batek (horren alde testifikatuko duen bat eta horren kontra testifikatuko duen beste bat) bakarrik jakingo dute erruduna ala errugabea den, baina jakingo ez balute bezala jokatu beharko dute.

Argudio guztiak entzun ondoren, epaimahaiak bere epaia emango du, eta epaileari zein zigor ezarri beharko duen gomendatuko diote, baldin eta epaitua erruduna bada.

Epaileak, epaiketa osoan zehar, moderatzaile papera egingo du, eta delitu horretarako bidezko zigorra aukeratu beharko du:

Komunitateko zerbitzua, urte batzuetarako zigorra, heriotza-zigorra (Legegintza espainiarrean ba al dago heriotza-zigorrik?)...

Epaiketa bukatzerakoan, atxilotuak, erruduna ala errugabea den aitortuko du.

Ordu bakar batean egiteko ariketa hau trinkoa izan daiteke. Horregatik, ariketa klaseko bi orduetan banatzea gomendatzen da. Edo bestela, aurreko une batean rol bakoitza nor antzetzuko duen aukeratu, hauek beren argudioak alde zurretik prestatu ahal izateko.

Ikaslearentzat:

“8. Artikulua

Pertsona orok du bere herriko auzitegi eskudunei errekurso eraginkorra aurkezteko eskubidea, Konstituzioak edo legeak aitortzen dizkieten oinarriko eskubideak urratzen dituzten ekintzetatik babesteko”.

Galderak:

- Egoki epaitu al dute? Abokatu defendatzaile prestatu batengana jotzeko aukera izan al du? Bere azalpena emateko aukera izan al du, eta justiziak bera entzutea lortu al du?
- Bere delituagatik zigor egokia jaso al du?
- Errugabea izanik ere erruduntzat jo badute, epaia berriro aztertaraz al dezake?
- Erruduna izanik errugabetzat hartu badute, fiskalak epaia berriro aztertaraz dezake?
- Eta erruduna bada baina zigorra gehiegizkoa dela uste badu, epaia berriro aztertaraz al dezake?
- Egin ezazu gogoeta labur bat Aldarrikapeneko 8. artikuluari buruz eta “epaiketa” honetatik atera dituzun ondorioei buruz.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Tutoretza. Gizarte zientziak, Geografia eta Historia. Gaztelera eta Literatura
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Talde bakoitzaren rokin egindako kartulinazko txartelak
Iraupena	Ordu bat

“15. Artikulua

1. *Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.*
2. *Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ez herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu”.*

Naziotasuna, kasu honetan espainiarra, lortu nahi duten pertsona desberdinen egoerei buruzko eztabaida bat sortu nahi da.

Klasea hiru taldetan banatuko da, eta bakoitzak, berari egokitu zaion iritzi korrante bat izango du. Honez gain, lau edo bost ikaslez osatutako talde bat izango da, eta hauek naziotasuna aldatu nahi duten pertsonak ordezkatzeko dituzte.

Hiru iritzi korrante mota horiek honako hauek dira:

- A. Beren herriaren traidore balira bezala beste naziotasun bat eskatzen duten pertsonak.
- B. Nazionalizatutako pertsonak beraien pareko bezala, eskubide eta egoera berdintasunean, onartzeko konpromezua hartzen dutenak.
- C. Beren herrian “atzerritarrak” onartzearen aurka agertzen direnak erabat.

Txartelak ikasleen artean banatuko dira, eta nolabait, bakoitzari A, B edo C aukeretako bat egokituko zaio.

Naziotasuna aldatu nahi duen pertsona bakoitzak bere pertsonaiari buruzko istorio labur bat sortu beharko du, eta bere gelako kideek egiten dizkioten galderari erantzun, horiek baitira beren herrialdean onartu behar dutenak.

Antzestu ahal dituzten rolak hauek dira:

- Beltz koloreko hegoafrikar batek bere naziotasuna aldatu nahi du, eta zergatiak ekonomikoak dira soilik. Hemen zerga gutxiago ordaintzen du. Hona etortzeak aberastasuna ekar diezaiolke.
- Afganiar emakume errefuxiatu bat. Herri hartan, emakumeek ez dute gizonezkoek duten mediku harrera berdina jasotzen, ezin dute lan egin, ez dute hezkuntzara sartzetik eta guztiz estalita atera behar dute kalera. Hemen bizi nahi du emakumearen egoera askoz hobea delako, edozertan egingo du lan, eta diru nahikoa biltzea lortzen badu, bere alabak ekarriko ditu berarekin.
- Errusiar bat. Espainian era desegokian aberastu diren ezagun batzuk ditu, eta berak zortzarekin jolas egin nahi du.
- Etorkin marokoar bat. Bere herrian eskasia ekonomikoak jasan behar izan du, eta ia-ia ezin dio bere familiari jaten eman. Mafiako kapo bati 100.000 pezetaren truke erosi dio legez kontra muga zeharkatzeko txartela, polizia atxilotu egin du, eta bere familiari jaten emateko duen aukera bakarra naziotasuna lortzea eta lan duin bat aurkitzea da.
- Apaiz kolonbiar bat. Bere herrialdean txiroekin elizbarruti batean lan egiten zuen, haiei laguntzen saiatuz, baina paramilitarrek hil egingo zutela mehatxatu zuten.
- Emakume ruandar bat bere bi seme-alabekin. Soinean zutena besterik gabe ihes egin behar izan dute beren herrialdetik eta ezin dira itzuli hilketak oraindik ez direlako amaitu. Bizi berri bat hasi nahi dute leku seguru batean.
- Bidaiari bat. Mundu osoan zehar ibili da, eta hemen bizitzen urte batzuk daramatzalako, botoa eman eta berarengan eragina duten erabakietan parte hartu nahi duela erabaki du.

Irakasleak, ikuspegi batetik edo bestetik agertzen diren argudioak idatzi egingo ditu arbelean. Bukatzean adostasuneran iritsi beharko dute eta Aldarrikapenaren 15. artikulua egokia den ala ez jakiteko ondorioak atera beharko dituzte.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Plastika eta Ikus-hezkuntza. Etika. Erljioa edo alternatiboa
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Eransten diren testu eta marrazkia
Iraupena	Ordu bat

Marrazkia "margolari espainarrek irudiz hornitutako Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala"ri dagokio, Amnesty Internationalek 1985. urtean argitaratua. Marrazki hau, hain zuzen ere, Enrique Venturarena da eta liburua 41. orrialdean agertzen da.

Ikaslearentzat:

"16. Artikulua

- 1. Gizonek eta emakumeek, gaztarotik aurrera, ezkontzeko eta familia osatzeko eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatik inolako murrizketarik gabe; eta ezkontzari dagokionez, eskubide berberak izango dituzte, hala ezkontzak dirauen bitartean, nola ezkontza desegiten denean.*
- 2. Ezkongaien baimen libre eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.*
- 3. Familia gizartearen berezko eta funtsezko osagaia da, eta gizartearen eta estatuaren babesa izateko eskubidea du".*

Galderak:

- Ikus ezazu marrazki hau. Azaldu zein den bere esanahia.
- Ondo al deritzozu printzesa herensugearekin maitemintzeari eta ez printzearekin? Eta herensugearen ordez pertsona beltz bat izango balitz? Eta ijito bat? Edo beste emakume bat? Zergatik?
- Hala ere, ipuin maitagarrietan printzesa herensugea hiltzen duen zaldunarekin ezkontzen da. Zaldunarekin ezkondu behar al du? Edo printzesa nahi duenarekin ezkon daiteke?
- Azaldu betebeharren eta eskubideen arteko desberdintasuna.



Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Historia garaikidea. Gizarte zientziak, Geografia eta Historia
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Entziklopedia: erusiar iraultzari eta komunismoari buruzko historia liburuak
Iraupena	Ordu bat

1917ko iraultza erusiarrek banakako jabegoaren eskubideari nola eragin zion aztertzeke saio txiki bat egitea da helburua.

Ikaslearentzat:

“17. Artikulua

1. *Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldeka.*
2. *Inori ez zaio arrazoirik gabe bere jabetza kenduko”.*

Saioa aurrera eramateko eskema:

1. Bilatu liburuetan iraultzaren ondoren Sobietar Batasunean ezarri zen ekonomi sistemari buruzko ezaugarriak. Izan ere, SESBen banakako jabegoarekiko eskubide mota guztiak edo lur banakako jabegoaren eskubidea, errekurtsio naturalak edo ekoizpen ondasunak, oro har bakarrik desagertu al ziren? Zein modutan burutu zen Sobietar Batasunean ondasunen sozializazioaren prozesua? Zein izan ziren urratsak?
2. Egin ezazu gogoeta gizarte estatu modernoari buruzko onurabide batzuez (desjabetzapenen kalteordain eskubidea, esaterako). Zein da sobietar sisteman erabilitako bideen eta jarraitutako asmoaren artean ikusten duzun desberdintasuna? Aldarrikapen Unibertsalak bere barne duen jabego eskubideak ez duela mugarik uste al duzu, eta hori dela eta, estatuak ez dutela legitimaziorik inolaz ere desjabetzeko? Artikuluaren bigarren zatia ba al du ñabardurarik? Zein da horretaz guztiaz duzun iritzia? Arrazoitu ezazu.
3. Sistema kapitalistak eta komunistak benetako jabegoari buruz dituzten desberdintasunak adieraz itzazu. Zein alde on eta txar ikusten dituzu ekonomi sistema bakoitzean?

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Filosofia. Etika. Erlijioa edo alternatiboa
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	30 minutu

Aldarrikapenaren artikulua hau ez betetzeari buruz gogoeta egitea da xedea. Galderak egia edo faltsua den erantzuteko egingo dira.

Ikaslearentzat:

“18. Artikulua

Pertsona orok du pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea. Eskubide horrek bere baitan biltzen du erlijioz edo sinestez aldatzeko askatasuna, baita ere bakarka nahiz taldeka, jendaurrean nahiz pribatuan nor bere erlijioa edo sinestea azaltzeko askatasuna, irakatsiz, praktikatuz, gurtuz edo arauak betez”.

Galderak:

- Ondoko baieztapenak egia edo gezurrak diren esan eta azaldu zergatia:

- Pentsamendu askatasuna eduki ahal izateko, pertsona bakoitzak askatasunez adierazteko beharra du, bere pentsamendua osatu, desberdindu eta azaldu ahal izateko.
- Dagoen informazio baliagarri guztia eskuratzea arriskutsua da ideia argi bat edukitzeko eta benetako egoera ezagutzeko. Gure ideiak distorsionatu egin ditzake horrek.
- Munduan oraindik badira adierazpen askatasuna debekatzen duten herrialde batzuk, eta errealitate ofizialetik kanpo dagoen edozein pentsamendu nahastaile zentsuratu egiten da.
- Komunikabideak gai dira errealitatea manipulatzeko, isilarazteko edo zentsuratzeko, informazio garrantzitsua murriztuz edo pentsamolde bakarra ezarri.
- 18. artikulua dio gizaki guztiak uko egin diezaioketela ezarritako edozein ekintzari, ekintza honek bakoitzaren kontzientzia ukatzen badu.
- Giza talde askorentzat, gaur egun, erlijioa beren nortasunaren zutabe garrantzitsuenetarikoa bat da, eta askotan ezin eramana eta aurriritziak altxatu izan dira erlijio bera ez dutenen aurka.

- Egin ezazu gogoeta labur bat Aldarrikapenaren artikulua honetaz eta berau urra dezaketen egoerez.

(Iturria: Amnesty Internationalek antolaturiko “Eskubideetatik gertaeretara” azalpenaren agiririk, Iruñea eta Mugarik Gabe taldea, 1997).

Aldarrikapena eta iritzi askatasuna

Arloa	Gizarte zientziak, Geografia eta Historia. Historia garaikidea
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Historia liburuak, entziklopediak...
Iraupena	Ordu bat

Gizadiaren historian zehar ofizialak ziren ideiekiko beste ideia batzuk izateagatik jazarriak izan diren pertsona desberdinei buruzko saio bat egitea da helburua: Jainkoa, Gandhi, Tomas Moro, Galileo Galilei, Socrates, Martin Luther King, etab. Gela hiru edo lau taldetan bana daiteke, eta talde bakoitzak pertsona hauetako bat aukeratu beharko du.

Ikasle talde bakoitzarentzat:

“19. Artikulua

Gizaki orok du iritzi- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea. Horrek bere barnean biltzen du norberaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, informazioa eta iritziak ikertu eta jasotzekoa, eta horiek mugarik gabe eta edozein adierazpidez zabaltzekoa”.

Talde bakoitzak saioan zera bildu beharko du:

- Pertsonaiaren biografia.
- Bere iritziak.
- Bere garaian jazarria izateko arrazoiak, pertsonaiak defendatzen zituen ideiekin kontrastatuz.
- Ondorio bezala taldeak gertaera historiko hauei buruz dituen iritziak.

Gogoetarako laguntza:

- Eskubide hau Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren barne egotea garrantzitsua izan da?
- Hala ere, gaur egun oraindik badira beren iritziak jendaurrean azaltzeagatik jazarriak diren pertsonak: Rigoberta Menchú, Aung Suu Kyi, Salman Rushdie... Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak iritzi askoren eskubidea du bere barne, eta pertsona hauek Nazio Batuetan ordezkari izan diren gobernuek jazarri dituzte. Zure ustez, nola liteke hori?
- Zer egingo zenuke azaldutako egoerak gerta ez daitezen?

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Tutoretza
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	Ordu bat

Ikasleak ikastetxearen barneko talde gisa agertzen diren erakundeei buruz ikertzea da helburua.

Horretarako, irakasleak gaiaz duen informazio guztia eman beharko du, edo bestela, ikasketa buruarekin edo zuzendaritza taldeko kideren batekin elkarrizketa bat adostu, informatu ahal izateko.

Elkarrizketa antolatzeko, ikasleek ordu laurdenean egin nahi dituzten galderak prestatu beharko dituzte.

Ikasleentzat:

“20. Artikulua

- 1. Pertsona orok du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea.*
- 2. Inor ezingo dute behartu elkarte bateko kide izatera”.*

Elkarrizketa prestatzeko laguntza:

- Zure irakasleak ez badu zure azterketa gaindituzat jotzen eta zuk bidegabeko arrazoiengatik izan dela uste baduzu, helegin al dezakezu eta azterketa berriro zuzentzea eskatu? Era horretara ez bazarete ados jartzen eta zu ez bazara notarekin pozik geratzen, ba al duzu helegitera jotzeko beste elkarterik?
- Zertarako balio du gelan ordezkari bat edukitzeak?
- Eskola kontseiluan edo Ordezkaritzako Organo Gorenean (OMR) ikasleek ordezkariak dituzte. Zertan datza horien eginkizuna?
- Zure eskolan ikasleen sindikaturik ba al dago? Ba al dakizu zein diren horien eginkizunak?
- Zergatik uste duzu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak bere baitan biltzen duela elkarte askeari buruzko artikulu bat? 20. artikulua al da hori?
- Zure ikastetxean eskubideak dituzu, baina zein betebehar bete behar duzu?

Zein beste eratako elkarteak daude? Baliagariak al dira? Azaldu ezazu hobeto ezagutzen dituzunen funtzionamendua?

Aldarrikapena eta botoa emateko eskubidea

Arloa	Etika. Erljioa edo alternatiboa. Gizarte zientziak. Filosofia
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Marrakia, margoak, arkatzak, kartulinak...
Iraupena	Bi ordu

Ariketa bi ataletan banaturik dago.

Lehenengoa, honekin batera doan marrakia aztertu eta Aldarrikapenaren 21. artikuluari buruzko gogoeta bat egitea izango da, 15 eta 20 minutu artean.

Bigarren atalean ikasleei denbora emango zaie gogoetaren ondoren (21. artikuluan aztertzen den gaiari buruz) marrakia bat, collage bat, komiki bat... egiteko. Gainerako denbora, 40 eta 45 minutu artean.

Honekin batera doan marrakia Interhonek argitaratutako "Giza Eskubideak" bildumatik hartua da, 1. zenbakia.

Ikaslearentzat:

"21. Artikulua

- 1. Pertsona orok du bere herriko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean edo askatasun osoz aukeratutako ordezkarien bidez.*
- 2. Pertsona orok du berdintasunez bere herriko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.*
- 3. Herriaren borondatea da agintaritza publikoaren agintearen oinarri; borondate hori aldizka egingo diren hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeotako bozketak orokorrak eta berdintasunezkoak izango dira, eta isileko botoz edo boto-askatasuna bermatzen duen beste bide batez egingo dira.*

Galderak:

- Zer adierazten dute kontakizun honetako bi pertsonaiek? Munduko edozein herritan gertatzen denarekin parekatzen al duzu?
- Myanmar-en —lehenago Birmania zena—, militarrek gobernatutako beste herri batzuetan bezala, hauteskundeak murrizturik zeuden. Gehiengo zuen aurkako alderdiak irabazi zuen, baina militarrek Aung San Suu Kyi beren buruzagia atxilotu eta ia sei urteko etxe barruko arrestua ezarri zioten zigor gisa. Edo Argelian bezala, bidezko hauteskundeak alderdi islamiko batzuek irabazi arren, gobernuan zegoen alderdiak hauteskundeetako emaitzak arbuiatu egin baitzituen, gutxiengoaren eskubideak arriskuan jartzen zituelako. Orain, Argelian segurtasunik gabeko egoera bizi da eta babesgabeko zibil asko hiltzen dira. Zergatik uste duzu etorri direla egoera horiek? Hauteskundeetan herriak aukeratzen duela esan nahi al dute?
- Zergatik jasoa dago botoa emateko eskubidea Aldarrikapen Unibertsalaren barne?
- Asma ezazu militar eta boto-emaile baten artean sor litekeen elkarrizketa bat. Azal ezazu zure ustez bakoitzak zer esaten duen eta zer pentsatzen duen.
- Batzuetan, abstenitzea erabakitzen duten pertsonak botorik ez emateko darabilten argudioa honako hau izaten da: "berdin da nork irabazi, politiko guztiak berdinak dira eta alderdiak hauteskunde programetan agintzen dutena, gero boterera heltzean hitz soiletan geratzen da". Zer deritzozu horri?
- Demokraziak, besteak beste, esan nahi du gehiengoak errespetatu egin behar duela gutxiengoaren iritzia. Nola betetzen da errespetu hori zuk ezagutzen duzun demokrazian? Demokrazia-zko sistema batean une jakin bateko gehiengo batek besteekiko bidegabeko lege bat inposa al dezake? Estatu Batuetako heriotza-zigorren kasua al da

hori? Beste adibiderik bururatzen al zaizu? Berdin da legezkotasuna eta justizia? Babeserako zein mekanismo dute gutxiengoek sistema demokratikoan?

- Nola definituko zenuke zuk sistema demokratikoa? Aldarrikapen Unibertsalean agertzen diren baloreak, sistema demokratiko batean gehiengoak erabakitzen duenaren gainetik al daude, bai ala ez? Horrela uste baduzu eta sistema demokratikoa dauden guztietatik gizabidetsuena dela uste baduzu, nola ebatziko zenuke kontraesan hori? Hiritarren heziketak zerikusia izan dezake horretan guztian. Demokrazia berdina al da, esate baterako, biztanleriaren %50a alfabetatugabe funtzionala den herrialde batean eta unibertsitario portzentaia altua duen beste herrialde batean? Hala eta guztiz ere, naziak demokratikoki heldu ziren boterera, munduan dauden herrialde alfabetatu kultoenetako batean gainera.
- Bestalde, sistema demokratikoak ezagutzen dituzun moduan sistema bukatuak direla uste al duzu, edo alderantziz, aurrera egin daitekeela uste duzu? Zein ekarpen egin dezakezu zuk bizi duzun demokrazia hori hobetzeko asmoz?
- Honi guztiari buruz hausnarketa egin, eta marrazki bat, komiki bat, collage bat... egin artikuluko honek iradokitzen dizkizun gogoetekin.



Aldarrikapena eta lana edukitzeko eskubidea

Arloa	Etika. Erljioa edo altematiboa. Gizarte zientziak. Ekonomia
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Honekin batera doazen testuak
Iraupena	Ordu bat

Artikulu hau urratzen duten egoera desberdinak parekatzea da egin beharrekoa.

Egoera batzuk proposatuko dira, ikasle bakoitzak bakarka aztertuko ditu, eta artikulu hau nola urratzen den azal dezala eskatuko zaio. 15 edo 20 minutu erabil daitezke praktikaren atal honetarako.

Gero ondorengo galderei erantzun diezaietela eskatuko zaie. 10 minutu gutxi gorabehera.

Ikaslearentzat:

“23. Artikulua

- 1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lan-baldintza onak eta bidezkoak izatekoa, eta lanik ezaren kontrako laguntza izatekoa.*
- 2. Pertsona orok du, inolako bereizkeriarik gabe, lan berdinatik soldata berdina jasotzeko eskubidea.*
- 3. Lanean diharduen pertsona orok du lansari ona eta bidezkoa jasotzeko eskubidea, bera eta bere familia giza duintasunari dagokion moduan bizi daitezten. Lansaria horretarako nahikoa ez bada, beste edonolako gizarte-laguntzez osatuko da.*
- 4. Pertsona orok du sindikatuak sortzeko eta sindikatuko kide izateko eskubidea, bere interesen alde egitearren”.*

Egoerak:

- Emakume exekutibo batek bere gizonetako homologoak baino %30 gutxiago irabazten du.
- Garapen bidean dauden herrialdeetan, ohiko etxebizitzaren arduragabetasunak, landaketa oso teknifikatuak izateak, oinarri industrialik ezak eta jaiotze tasa altuek gehiegizko langabezia sortzen dute.
- Afrikako herrialde batzuetan, hiriko populazio aktiboaren %70a lanean segurtasunik gabe, diru aldetik segurtasun ezarekin eta egoera ekonomiko eta sozial gero eta okerragoan bizi dira.
- Batzuetan, ezkutuko ekonomiara jotzen da aurrera egiteko: hau da, gizarte segurantzari kotizatu gabe lan egitera, alokairu finkorik eduki gabe eta inolako eskubiderik gabe, Estatu mailako inolako erakundek ez duelako kontrolatzen lana. Estatuak hiritarren oinarriko beharrak betetzen ez dituzenean gertatzen da hori, eta ondorioz, ekintza “extra” horietara jo behar izaten dute bizi ahal izateko. Baina gure herrian ere badago ezkutuko lana.
- Lanaren Nazioarteko Erakundeak emandako datuen arabera (OIT), munduan 150 milioi umek lan egiten dute gutxienez iristen ez den soldata baten truke. Espainian 100.000 ume inguru daude egoera horretan.
- Herrialde batzuetan, langile bat kaleratzen dutenean edo bere kontratua bukatzen denean, ez du izaten langabeziaren mantenu-saria kobratzeko eskubiderik, edo bestela, langile horrek ez du izaten gizarte segurantzarik, eta horietan, langile bakoitzak ordaindutako medikuntza aseguru partikularrak izaten ditu.
- Australiako abeletxe handietan, langile aborigenak kontratatzen dituzte abereak markatzeko. Normalena da beraiek egindako lana janariaren bidez ordaintzea, baina aborigenek, horrez gain, soldata bat ere eskatzen hasi dira lan horren truke.

Galderak:

- Lana hain beharrezko ondasuna iruditzen al zaizu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak bildu behar izateko?
- Bururatzen al zaizkizu artikulu hau urratzen duten beste egoera batzuk?
- Artikulu honetan, pertsona guztiek sindikatuak osatzeko duten eskubidea jasotzen da, langileen eskubideak elkarrekin defendatzeari begira. Horrela, munduko herri askotan, sindikatuburuak jazarriak izan ohi dira gauzatzen dituzten ekintzengatik. Eskubide hau jasotzea egokia dela uste duzu? Azaldu zergatik.

Aldarrikapena eta aisialdirako eskubidea

Arloa	Matematika
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak. Sexu-berdintasunerako hezkuntza
Materialak	Kalkulagailua
Iraupena	30 minutu

Ikasleek, langileek eta etxeko andreak lanari eta atsedendialdiari eskaintzen dizkieten orduak zenbat diren erabakitzea da helburua, horretarako ezagupen matematikoak erabiliz.

Ikaslearentzat:

“24. Artikulua

Pertsona orok du atsedeen hartzeko eskubidea, aisialdiaz gozatzekoa, lanaldi mugatua izatekoa, eta, aldizka, ordaindutako oporrak izatekoa”.

Eranskina:

“2,5 millones de mujeres trabajan a la vez dentro y fuera de casa.

(...) La creciente incorporación de la mujer al mundo del trabajo no corre en paralelo con una mayor liberación en las tareas hogareñas, ya que sólo en el último año (1995) el colectivo de mujeres que tiene que compatibilizar ambas actividades creció en más de 150.000.

Sólo 1.278.400 mujeres con trabajos profesionales no debían simultanear esa labor con el hogar. La situación es distinta en el caso de los hombres, ya que sólo comparten el trabajo con las labores caseras 329.200, ocho veces menos que las mujeres”

(El Mundo, 1996ko ekainaren 4a, asteartea, 50. or.)

Hurrengo gizabanako bakoitzak lanari, aisiari eta atsedinari urtean zehar eskaintzen dion portzentaia finka ezazu.

Ikaslea

Klasera 9 hilabetetan zehar joan behar izaten du, astean 5 egunez. Egutero 6 ordu ematen ditu irakasgai desberdinetako klaseak entzuten, eta ordu eta erdi lanak egiten eta ikasten. Ikasturte osoa ekainean gainditzen du, eta beraz, uda bere aisialdirako du.

Asteburuak aisiari eskaintzen dizkio oso-osorik.

Egutero 8 ordu egiten du lo, eta 4 ordu jatordu eta joan-etorrietarako erabiltzen ditu.

Langilea

Egutero 8 orduko lanaldia du, astean 5 egunez. Oporrak, adibidez, hilabete eta erdikoak, ordainduak ditu.

Libre duen egunetan, 6 orduko batez bestekoa eskaintzen die bere zaletasunei: kirolak, dibertsioak...

Egutero 8 ordu egiten du lo, eta 4 ordu jatordu eta joan-etorrietarako erabiltzen ditu.

Etxeko andrea

Etxetik kanpo ez du inolako lanik egiten; etxea aurrera ateratzea da bere lana. Etxeko lanetan egutero 8 ordu ematen ditu, asteko 7 egunetan. Ez du atsedeen egunik, baina udako oporretan (3 hilabete) beren jardunaldia 6 ordutara murrizten da.

Egutero 8 ordu egiten du lo, eta 4 jatordu eta aisialdirako erabiltzen ditu.

Galderak:

- Zein ondorio atera duzu lortutako emaitzetatik? Etxeko andrearekin edo etxeko gizonekin Aldarrikapenaren artikulua hau betetzen dela uste al duzu?

Erantzunak:

Urteko egunak = 365 e. Urteko orduak = 8.760 o.

Ikaslea:

a) Ikasketak

9 hilabete = 270 egun = 38,5 aste.

$270 \text{ egun} \cdot (8+4) = 3.240$ ordu lo, jatorduak, etab.

$38,5 \text{ aste} \cdot 5 \text{ egun klaseetan} = 192,5$ egun klaseetan

$192,5 \cdot 6 \text{ ordu klaseetan} = 1.155$ ordu klaseetan.

$192,5 \cdot 1,5 \text{ ordu ikasten} = 288,75$ ordu ikasten.

b) Oporrak

3 hilabete = 90 egun.

$90 \text{ e} \cdot (8+4) = 1080$ ordu lo, jatorduak, etab.

Aisialdi ordu guztiak = $8.760 - (3.240 + 1.155 + 288,75 + 1.080) = 2.996,25$ aisialdiko ordu.

	aisialdian	ikasten	klaseetan	atsedenaldian
orduak, guztira	2.996,25	288,75	1.155	4.320
%	34,2	3,3	13,2	49,5

Langilea:

a) Lana

10,5 hilabete = 315 egun = 45 aste

$315 \text{ egun} \cdot (8+4) = 3.780$ ordu lo, jatorduak, etab.

$45 \text{ aste} \cdot 5 \text{ lanegun} = 225$ lanegun.

$225 \text{ e} \cdot 8 \text{ lanordu} = 1.800$ lanordu.

b) Oporrak

1,5 hilabete = 45 egun

$45 \text{ e} \cdot (8+4) = 3.240$ ordu lo, jatorduak, etab.

Aisialdiko ordu guztiak = $8.760 - (3.780 + 1.800 + 540) = 2.640$ aisialdiko ordu.

	aisialdian	lanean	atsedenaldian
orduak, guztira	2.640	1.800	4.320
%	30,2	20,5	49,3

Etxeko andrea:

a) Etxeko lanak

9 hilabete = 270 egun

$270 \text{ egun} \cdot (8+4) = 3240$ ordu lo, jatordu, etab.

$270 \cdot 8 \text{ ordu etxeko lanetan} = 2160$ lanordu

b) Oporrak

3 hilabete = 90 egun

$90 \text{ e} \cdot (8+4) = 1080$ ordu lo, jatordu, etab.

$90 \text{ e} \cdot 6 \text{ lanordu} = 540$ lanordu.

Aisialdiko ordu guztiak = $8760 - (3240 + 2160 + 540 + 1080) = 1740$ aisialdiko ordu.

	aisialdian	etxeko lanetan	atsedenaldian
orduak, guztira	1.740	2.700	4.320
%	19,9	30,8	49,3

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Historia garaikidea. Etika. Gizarte zientziak, Geografia eta Historia
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Entziklopedia, historia liburuak, zuzenbide liburuak...
Iraupena	Ordu bat

Giza Eskubideetan oinarritutako nazioarteko benetako legeria baten ezarpenari buruzko gogoeta egin ahal izateko dokumentazioa biltzea da eginkizuna.

Ikaslearentzat:

“28. Artikulua

Pertsona orok du eskubidea gizarteko eta nazioarteko antolabidea ezar dadin, Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak guztiz gauzatzeko”.

- Bil ezazu informazioa giza eskubideak aintzat hartu izan dituzten nazioarteko legeen historia zein izan den ulertzeko. Hona hemen pista batzuk: Indiako legeak eta frai Bartolome de las Casas; frai Francisco de Vitoriaren jendeen legea edo nazioarteko legea; Ameriketako eta Frantziako iraultza; esklabutzaren abolizioa; konstituzio liberalak, deskolonizazio prozesua; nazioen liga, Nuremberg-eko epaitegia, NBE-a, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Haga-ko Giza Eskubideen Nazioarteko Epaitegia, etab.
- Nazioarteko legeak: beren zergatiak, arazoak, mugak. Barne arazoetan eskurik ez sartzearen kontzeptua eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartzearen printzipioak sortzen dituen kontraesanak. Nazioak Nazioarteko hitzarmen eta itunei atxikitzea, esate baterako Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalari, eta benetan zein mailatan betetzen diren.

Galderak:

- Nola lortu Giza Eskubideak mundu guztian errespetu eta bete daitezen?
- Moralitatean oinarritutako mundu mailako ordena posible al da?
- Gizadia utopia horretarantz doa? Edo munduko egoera pixkanaka lortutako gutxi hori arriskuan jar dezaketen egoerarantz doala uste duzu?
- Baliabide eta teknologiaren banaketa desorekatua, planetan ekosistemaren gehiegizko ustiapena, demografiaren leherketa, migrazio handiak, etab., ez dira egoera atseginak. Zer egin dezakezu zuk horri dagokionez? Ahal duzuna egiten al duzu, hori gutxi iruditu arren?

Giza Eskubideen Nazioarteko Hitzarmen eta Itunen zerrenda bat doa honekin batera: “De los dichos a los hechos” Amnesty Internationalen azalpeneko dokumentazioa, Iruñako taldea eta Mugarik Gabe, Iruñea, 1997.

Giza Eskubideei Buruzko Nazioarteko Hitzarmen eta Adierazpen Nagusiak

- 1948 Declaración Universal de los Derechos Humanos
- 1948 Convención para la prevención y la sanción del delito de genocidio
- 1948 Convenio nº 87 de la OIT sobre la libertad sindical y la protección del derecho de sindicación
- 1949 Convención de Ginebra para mejorar la suerte de los heridos y enfermos de las fuerzas armadas en campaña
- 1949 Convención de Ginebra para mejorar la suerte de los heridos, enfermos y náufragos de las fuerzas armadas en el mar
- 1949 Convención de Ginebra relativa a los prisioneros de guerra
- 1949 Convención de Ginebra relativa a la protección de las personas civiles en tiempo de guerra
- 1949 Convención para la represión de la trata de personas y de la explotación de la prostitución de otras
- 1950 Convención Europea para la protección de los Derechos Humanos y la libertades fundamentales (CE)
- 1951 Convenio nº 100 de la OIT relativo a la igualdad de remuneración entre la mano de obra masculina y femenina por un trabajo de igual valor
- 1951 Convención sobre el estatuto de los refugiados
- 1952 Convención sobre los derechos políticos de la mujer
- 1956 Convención relativa al derecho internacional de rectificación (UNESCO)
- 1957 Convención suplementaria sobre la abolición de la esclavitud, la trata de esclavos y las instituciones y práctica análogas a la esclavitud
- 1957 Convención sobre la nacionalidad de la mujer casada
- 1958 Convenio 111 de la OIT relativo a la discriminación en materia de empleo y ocupación
- 1959 Declaración de los derechos del Niño
- 1960 Convención relativa a la lucha contra la discriminación en la esfera de la enseñanza
- 1960 Resolución 1.514 (XV) o Declaración sobre el acceso a la independencia de los países y pueblos colonizados
- 1961 Carta social europea
- 1961 Convención sobre la reducción de los casos de apatridia
- 1962 Convención sobre el consentimiento para el matrimonio, edad mínima para contraer matrimonio y registro de los mismos
- 1962 Recomendación 116 de la OIT sobre la reducción del horario de trabajo
- 1963 Convención internacional sobre la eliminación de todas la formas de discriminación racial
- 1964 Convenio sobre política social (OIT)
- 1966 Declaración de los principios de la Cooperación Internacional (UNESCO)
- 1966 Pacto Internacional de derechos económicos, sociales y culturales (a)
- 1966 Pacto Internacional de los derechos civiles y políticos (a)
- 1967 Declaración sobre la eliminación de la discriminación de la mujer
- 1968 Proclamación de Teherán
- 1968 Convenio sobre la imprescriptibilidad de los crímenes de guerra y los crímenes contra la humanidad
- 1969 Convención americana sobre Derechos Humanos
- 1971 Declaración de los derechos del retrasado mental
- 1972 Declaración de la N.U. sobre el medio humano. Proclamación y principios
- 1973 Convenio Internacional sobre la represión y el castigo del crimen del apartheid
- 1974 Declaración sobre el establecimiento de un nuevo orden económico Internacional (UNESCO)
- 1974 Carta de los Derechos y Deberes económicos de los Estados
- 1975 Declaración de los derechos de los impedidos
- 1975 Declaración sobre la protección de todas las personas contra la tortura y otros tratos o penas crueles, inhumanos y degradantes
- 1976 Recomendación relativa a la participación de las masas en la vida cultural (UNESCO)
- 1978 Documento final del décimo periodo extraordinario de sesiones de la Asamblea General (sobre el desarme)
- 1979 Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer
- 1981 Carta Africana de Derechos Humanos y de los Pueblos
- 1981 Declaración sobre la raza y los prejuicios raciales
- 1984 Convenio contra la tortura y otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes
- 1985 Convención Interamericana para prevenir y sancionar la tortura
- 1989 Convenio sobre los Derechos Humanos del niño
- 1992 Convenios sobre biodiversidad, cambio climático y Agenda 21 en Río de Janeiro
- 1993 Conferencia Mundial de Derechos Humanos en Viena
- 1994 Conferencia sobre población en El Cairo
- 1994 Convención Interamericana sobre Desaparición Forzada de personas
- 1995 Conferencia sobre desarrollo social en Conpenhage
- 1995 Conferencia sobre la Mujer en Pekín

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Filosofia. Etika. Erljioa edo alternatiboa
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Honekin batera doazen testuak
Iraupena	Ordu bat

Hurrengo galderak irakurri ondoren, zehatz ezazu zein eskubide eta zein betebehari dagokion egoera bakoitza. Gela osoko eztabaida balitz bezala aurkez daiteke, edo lehenik, hiru edo lau ikasleren arteko taldetan egindako ariketa bezala, eta gero, gela osoaren bateratze-lana egin daiteke. Ondorio bezala, gizakiei dagozkigun eskubide eta betebehari buruzko banakako gogoeta bat eska daiteke.

Ikaslearentzat:

"29. Artikulua

- 1. Pertsona orok ditu komunitatearekiko betebeharrak, komunitatea baita bere nortasuna libre eta erabat garatzeko toki bakarra.*
- 2. Pertsona orok, bere eskubideak erabiltzean eta horiek askatasunez gozatzean, legeak ezarritako mugak baino ez ditu izango, bai gainontzeko herritarren eskubide-askatasunak errespetatuko direla ziurtatzeko, bai gizarte demokratiko batean moralaren, ordena publikoaren eta guztien ongizatearen bidezko eskakizunak betetzeko ere.*
- 3. Eskubide eta askatasun hauek ezingo dira, inolaz ere, Nazio Batuen helburu eta irizpideen kontra erabili".*

Egoerak:

- Seguruenik behin baino gehiagotan entzungo zenuen ondoko esaldia: "nik ez dut botorik ematen, politikoekin berdin da nork irabazi, beti berdin egiten baitute". Ez zaizu iruditzen gobernatzeko erarekin hain gogaituta baldin badago, beste pertsona gogaitu batzuekin bildu beharko lukeela eta beren haserre entzuna izan dadin nolabait antolatu?
- Kotxe bat bigarren ilaran aparkatuta dago eta ez dio zure aitari aparkalekutik irteten uzten. Zure aita kexu da udaltzainek ez dituztelako gauza horiek eragozten eta ernegatu egiten da. Hala ere, hurrengo egunean zure aitak bigarren ilaran aparkatu du eta udaltzainak isuna jarri dio. Hain haserre baldin badago beste gidariaren jokatzeko erarekin, zergatik egin du berak berdin?
- Nigerian tradizio kultural handiko tribu bat dago, ogoniak izenekoa. Gune petrolifero aberats batean bizi dira, baina petrolioaren multinazional handiak lur horiek suntsitzen ari dira, halako industria batek dakarren kutsaduraren ondorioz. Ogoniak jazarriak dira, eta beren buruzagi batzuk denen aurrean erail dituzte. Ken Saro-Wiwa idazlea, ogoni herriaren mugimenduaren aldeko gidarietako bat, beste zortzi ogonirekin batera exekutatu zuten 1995eko azaroan. Nazioarteko komunitateak ez luke zerbait egin behar ogonien eskubideak errespetatu daitezkeen?
- Garatzen ari diren herrialdeetako biztanleek duten argudioetako bat zera da: herrialde aberatsak izan dira, baina herrialde garatuenean azpiratu egin zituzten kolonia izan ziren garaian, edo agian lehenago, Amerika aurkitu zenean. Beren ustez, herrialde garatuenean betebeharra laguntza ematea eta, nolabait, beste garai batzuetan bahitutako ondasun guztiak itzultzea da.
- Ana giza eskubideen erakunde batean besteenganako onginahiz lanean hasi zenean, etxekoek hertsatu egin zuten lan hori utz zezan, zera esanez, berak bakarrik ezin zuela ezer egin, babesten zituenetik norbait delituren bat egina izango zela seguruenik eta galdeketa jasandako torturak edo babesgabatasuna merezi zituela. Ana giza eskubideen ekintzailatzat dauka bere burua, eta uste du edozein eskubideren bortxaketa salatu beharrekoa dela.

- Nazio Batuen barnean 151 herrialde egon arren eta oinarrizko baldintzetako bat Aldarrikapen Unibertsala onartzea izan arren, munduko herrialde guztietan era batera edo bestera eskubideak bortxatzen dira? Aldarrikapena paper errea al da?
- Zertara behartzen du Aldarrikapenaren 25. artikulua?

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Arloa	Erljioa edo alternatiboa. Etika
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Egunkariak, telebista albisteak... Aldarrikapen Unibertsalaren artikulak
Iraupena	Ordu bat

Ikasleek arreta jarri beharko dute eta, adibidez, aste batean zehar egunkarietan, telebistako albisteetan, irratan... eta bai udalean edo eskualdean edota nazioarte mailan ere eman diren giza eskubideen bortxaketen zerranda bat egin; zein artikulua bortxatu den, zein herrialdean, zer egiten duen nazioarteko komunitateak hori konpontzeko edo arintzeko, hirian laguntzarik antolatu al den...

Beste bide bat izango litzateke liburutegi publikoko hemerrotekara informazio bila joatea.

Jasotako datu horietaz baliatuz, gogoeta labur bat idatzi beharko da, orrialde batekoa gutxi gorabehera, errealitatean ikasitakotik eta Aldarrikapenaren azken artikulua honetatik atera daitezkeen ondorioei buruz.

Ikaslearentzat:

“30. Artikulua

Aldarrikapen honetako ezerk ez du ulertaraziko Estatuari, talde bati edo pertsona bati eskubidea ematen zaionik Aldarrikapen honetan bertan adierazitako eskubide-askatasunak kentzeko jarduerak edo ekintzak hasi eta burutzeko”.

Galderak:

- Zure herrialdeko eta munduko Giza Eskubideen bortxaketen artean ba al dago desberdintasun argirik?
- Zer egin dezakegu giza eskubideak osorik eta mundu osoan bete daitezen?

Lore distilazioa

Arloa	Kimika. Teknologia
Maila	DBHko 3. eta 4. maila. Batxilergoko 1. maila
Helburua	Garapenaren laguntza zertan datzan ikustea
Zehar-lerroa	Garapena
Materialak	Behean azaltzen den laborategiko materiala
Iraupena	Ordu bat

Beharrezkoa izango da Kimikako laborategian ondoko materialak edukitzea:

pistiloa duen almaitz bat; 250 ml-ko 2 matraze; hozkarri bat; seguritate hodi bat; bihoratatutako 2 tapoi; 3 euskarri; 3 pintza; 2 uztai; 2 saretxo; 5 intxaur; inbutu txiki bat; distilatze ontzi bat; konexioetarako gomak; beirazko hodi ukondotua; irazki-paper konikoa, inbutuan ahoratuko dena; ur distilatua; landare lurrinsu baten hosto eta loreak (ezkai, izpiliku...) edo lore petaloak, 30 gr. talde bakoitzeko.

Praktikaren marrazki bat doa honekin batera.

3 edo 4 ikaslez osatutako taldeentzako ariketa da, kimikako material kantitatearen arabera.

Ariketa hau Erljio edo Etikako beste batekin erlazionaturik egon daiteke. Horietan, GKEek garapenerako laguntzan egiten duten lanari buruz hitz egingo zaie.

Ikaslearentzat:

Klima tropikala duen Asiako herrixka batean, biziraupeneko ekonomia dute, alegia, nekez ekoizten dute bizitzeko behar dutena eta Euskaditik bidaltzen diegun laguntzaren beharrean daude gaixotasunei aurre egiteko, ez baitute dirurik sendagaiak erosteko.

Arazo horien aurrean, garapenerako laguntzaren aldeko GKE batek egoera eta herrixka hori kokatua dagoen ingurua ikertu ditu, eta ikusi du lore kopuru handiak dituztela eta horien laborantzak ez diela ia inolako gasturik sortzen, ez ongarrietan, ez ureztapenetan, ezta zainketan ere.

GKEak herrixka horretako buruzagiei honako hau proposatuko die: herritarrek gogor lan egiteko konpromisoa hartzen badute, merkatuan hain ondo ordaintzen dituzten loreen olio esentzialak kopuru handian ekoiztu ahal izango ditu GKEak (gogoratu zenbat balio duten erabiltzen dituzuen lurrin eta koloniek). Modu honetan, herrixka horrek, denbora gutxi barru, GKEak utzi dien dirua itzuli ahal izango du eta bere sendagaiak erosi ahal izango ditu, eta halaber, herriaren higijene egoera hobetu eta bere komunikazioak hobetzeko behar dituzten errepideak eraiki.

Herrixka horretako biztanleek onartu egin dute. Baina teknikari bat behar dute olio esentzialak distilatze behar dituzten tresnak prestatzen erakuts diezaien. GKEak zuek aukeratu zaituzte, baina lehenik, loreen olio esentzialak distilatzen ikasi behar duzue.


Praktikaren garapena:

- Honekin batera doan marrazkian ageri bezala eraiki ezazue distilazio ekipoa.
- Irazki-papera jarri baino lehen busti ezazue ur distilatuaz.
- Almaitzean, aukeratutako loreen ereduak ur pixka batekin ebaki eta txikitu.
- B matrazean jar itzazu ur distilatuko 200 ml.
- Matraze bietako sua piztu, baina A irakiten hasten denean, sua itzali, eta B piztuta utzi.
- Likidua inbutuan distilatuko da, irazkitik pasatuko da, eta bitartean olio esentzialaren tantak bertan atxikiko dira.
- Irazki-paper berberarekin, ensaiu hodi batera alda ezazu olio esentziala: bien arteko pisu desberdintasuna izango da olio esentzialak pisatzen dutena.

Iturria: "¿Eso es química?", Alhambra liburutegiko errekurtsio didaktikoetako VVAA, Alhambra argitaletxea, 1988, 64 or.

Galderak:

- Zenbat olio esentzial lortu duzue?
- Zertan datza distilazio prozesua?
- Zergatik bana ditzakegu olioia eta 100° C-tara irakiten duen ura?
- Olioia uretan disolbatzen al da?
- Beraz olioia eta ura nahastezinak dira. Defini ezazu "nahastezina" zehaztasun zientifikoz.
- Asia eta Amerikako klima tropikaleko eta landaredi aberatseko lurralde batean irabazbide hau aurrera eraman daitekeela uste duzue?
- Zein motatako beste irabazbide gauza daitezkeela uste duzue, aro berriko bizitzarekin bat datorrena: eskolak, ordenagailu gela bat sortu...? Bizi diren lurraldea kontuan hartu.
- Industria sortu ahal izateko behar duten laguntza edo dirua eman diezaiaketen organismo eta erakunderik Euskadin badagoela uste al duzue? Nola deitzen dira?



Lore lurrina

Arloa	Matematika
Maila	Batxilergoa
Helburua	Garapenerako laguntza zertan datzan ikustea
Zehar-lerroa	Garapena
Materialak	Kalkulagailua
Iraupena	30 minutu

Arestian egindako praktikaren emaitzetan oinarrituko gara (ariketa ez bada egin, datu bezala 10 gr olio esentzialeko 500 gr lore har daiteke). Logaritmoak eta funtzio esponentzialak erabiliko dira GKE baten garapenerako laguntzaren arazoa ebazteko.

Kimikako beste ariketa batekin erlaziona daiteke, lehen egindakoarekin edo etika edo erlijio beste batekin.

Ikaslearentzat:

Problema.

Klima tropikala duen Asiako herrixka bateko biztanleek, garapenerako GKE baten laguntza jaso dute olio esentzialak lortzeko zentral bat eraikitzeko. Lehenengo urtean erabilitako 100 gr loretatik 10 gr olio esentzial lortu dira. Bigarren urtean, ekoizpena bikoiztu egin da, hirugarren urtean bigarren urteko ekoizpena bikoiztu da, eta horrela, hurrenez hurren.

a) Lehenengo urtean erabilitako lore kantitatea 10 kg-koa bada, zein izan da lortu den olio esentzial kantitatea?

b) GKEak 500.000 pta. mailegatu badizkio herrixka horri distilazio zentrala sortzeko eta olio esentzial kiloak 400.000 pta. balio badu, zenbat urte emango dituzte GKEari utzitako dirua itzultzeko, maileguaren ordainketarako urteko etekinaren %10a erabiltzen badute? Kontuan hartu mailegua mozkinak kobratu gabe egiten dela.

Ondo iruditzen al zaizu utzi zaien dirua itzuli behar izatea?

Erantzunak:

$$10.000 \text{ gr lore} \cdot \frac{10 \text{ gr olio}}{100 \text{ gr lore}} = 1.000 \text{ gr olio} = \text{Kilo bat olio esentzial}$$

Zenbat denbora behar dute GKEari ordaintzeko?

$$\frac{500.000 \text{ pta. zor}}{400.000 \text{ pta./kilo bat olio}} = \text{Ordaintzeko, 1,25 kilo olio behar dute}$$

Zenbat urte	1	2	3	----	x
Zenbat kilo olio	1	2	4	----	--
Funtzioa	2^0	2^1	2^2	----	2^{x-1}

$$b(x) = 2^{x-1}$$

$$1,25 = 2^{x-1}$$

$$\log 1,25 = \log 2^{x-1} = (x-1) \log 2$$

$$\log 1,25 = (x-1) \log 2$$

$$(x-1) = \frac{\log 1,25}{\log 2}$$

$$x = \frac{\log 1,25}{\log 2} + 1$$

$$x = 1,32 \text{ urte}$$

Lortutako olio esentzial guztia mailegua ordaintzeko erabiltzen badute, urtebete pasatxon ordaindua izango dute.

Garapenerako Ioreak

Arloa	Etika. Erljioa edo alternatiboa
Maila	DBH
Helburua	Garapenerako laguntzaren funtzioari buruz gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Garapena
Materialak	Honekin batera doan testua. Koordinatzaile Espainiarraren Garapenaren Aldeko GKEaren jarrera-kodea
Iraupena	Ordu bat eta 15 minutu

Ariketa hau egin ahal izateko distilazio eta olio esentzialen lorpenari buruzko kimika edo teknologia ariketa erabil daiteke, edo negozioarekin lortutako etekinei buruzko matematikakoa bestela. Ariketa hauetako planteamendu etikoaren ikuspegiari buruz gogoeta egitea da helburua. Aipatutako praktikak egin gabe ere burutu daiteke.

Ariketa bi zatitan banatua dago. Lehenengoa klaseko azken ordu laurdenean egin daiteke, eta tarte horretan, egindako galderei banaka erantzun diezaietela eskatuko zaie. Gero ikerketa-lan labur bat egin beharko dute, garapenerako GKE baten egoitza batera joanez edo ordezkariaren bat gonbidatuz, bere lanari buruzko hitzaldi bat eman dezan. Galdeketa azter daitekeen galdera sorta bat aurkeztuko da. Bigarren zatian, hiru edo lau ikaslez osatutako taldetan lan bat egitea da helburua, erantzunak elkarrekin pareka ditzaten eta ateratako ondorioekin orrialde bat edo biko iruzkina egin dezaten.

Ikaslearentzat:

Garapenerako laguntzaren GKE batek Asiako lurralde oihantsu baten egoera ekonomikoari buruzko ikerketa bat egin du. Egiatzatu du gune hori garatzeko modu egoki bat (komunikazio onak eduki ditzan, sendagaiak eta behar diren elikagaiak hel daitezten eta umeek hezkuntza egokia eskura dezaten), oihaneko loreekin olio esentzialen laborazio lantegi txiki bat sortzen saiatzea dela. Horren eraikuntzarako ez litzateke diru asko beharko, lehengaiak ez dietelako neke handirik eskatuko oihana aberatsa baita baliabidetan, eta lankidego bat bezala gestionatzen badute, herrixkak asko irabaziko luke. GKE hori behar den ahalegin ekonomikoa egiteko prest dago.

GKE horrek ezartzen dituen baldintzak bi dira, funtsean: komunitatearen eta herrixkaren konpromisoa batera egiten den ahalegina izan dadila, eta aurreratzen zaion dirua interesik gabe itzul dadila, diru hori berriro erabili ahal izan dadin beste herrixka baten laguntza proiektuan.

Erantzun hurrengo galderei:

- Egokia iruditzen al zaizu herrixkari utzitako dirua itzul dadin eskatzea? Ez litzateke errazagoa izango dirua ematea haiek erabil dezaten, itzultzeko konpromisoa eskatu gabe? Garapenerako GKEren batean dirua emanez lan egiten duzunean, proiektu batzuk gestionatzeko ari zara dirua ematen, baina ez al da hobe proiektu bakar bati lagundu beharrean bat baino gehiagori laguntzea denboran zehar?
- Garapenerako GKEen eta “%0,7 eta gehiago” mugimenduen eginkizunetako bat zera da: garapen bidean dauden herrialdeetako pertsonak jabe daitezela beren kabuz ezer egiten ez dakiten pertsonak direla eta, ikuspuntu paternalistatik, lagundu behar zaiela. Bila ezazu gai honi buruzko informazioa zure hiri eta probintziako garapenerako GKEetan.
- Gai honi buruz “Jarrera Araudi” bat ere idatzi dute. Araudi honi buruzko laburpena irakurri ondoren, egin ezazu iruzkin idatzia: esan zergatik sortu diren, zergatik diren hain beharrezkoak, eta ikertu komunikaziobideetan nola ikusten diren hiriak garapen bidean dauden herrialdeetan.
- Olio esentzialen industria bat osatzearen ideia gezurrezkoa da. Galdetu GKE desberdinetan zein proiektutan ari diren lanean: nekazaritza eta abelzaintzaren inguruak, osasun eta hezkuntza arloko laguntza...

CÓDIGO DE CONDUCTA DE IMÁGENES Y MENSAJES RELATIVOS AL TERCER MUNDO (RESUMEN)

Este código ha sido redactado por las Organizaciones No Gubernamentales europeas, actores o contrapartes en el proceso hacia un desarrollo global. Su objetivo no es otro que el de promover una discusión en torno a dicho código y animar a las mencionadas organizaciones a revisar su propio material. Ha sido aprobado por la Asamblea General del Comité de Enlace de las Organizaciones No Gubernamentales europeas ante la CE en 1989.

PREÁMBULO

Desde estos últimos diez años, el público europeo ha sido regularmente ahogado bajo una masa de información e imágenes angustiosas sobre la situación de urgencia que en ciertos países del Tercer Mundo. Ha debido de absorber diversas interpretaciones de la situación y ha sido objeto de llamadas acuciantes, expresadas sobre todo en términos de caridad, a fin de ayudar a las poblaciones en dificultades. Si esta campaña ha permitido innegablemente salvar un gran número de vidas humanas, también ha influenciado la idea que los europeos tienen del Tercer Mundo, de sus problemas y de sus posibles soluciones, así como de sus propias soluciones con estos países. Si la carga emocional de la imagen, las virtudes lapidarias del lema publicitario y la eficacia temporal de su yuxtaposición hacen del cine, de la televisión, del cartel, del periódico, -vectores expresamente designados para atraer la atención del público -este tipo de comunicación privilegia el riesgo sensacional de descuidar lo fundamental menos espectacular y de ocultar la cara positiva de las cosas.

En efecto, la calidad de la cooperación y de toda solidaridad con los países del Tercer Mundo reposa esencialmente sobre estas imágenes y mensajes producidos hacia el público, objeto del trabajo de sensibilización llevado por las ONG.

OBJETIVOS GENERALES DEL CÓDIGO DE CONDUCTA

Este código es a la vez un desafío lanzado a las ONG europeas y una guía. Debería inspirar a los diferentes actores y socios deseosos de hacer progresar la cooperación e incitarlos a un examen de su producción con respecto al Tercer Mundo suprimiendo las imágenes reductoras, miserabilistas o idílicas.

- Evitar las imágenes catastróficas o idílicas que incitan más a la caridad limitada a las fronteras de la buena conciencia que la reflexión.
- Toda persona debe ser presentada como un ser humano, y las informaciones, suficientes que permitan cercar su medio ambiente social, cultural y económico a fin de preservar su identidad cultural y su dignidad. La cultura debe ser mostrada como una palanca al desarrollo de los pueblos del Tercer Mundo.
- Los testimonios de las personas interesadas deben ser utilizados preferentemente a las interpretaciones de un tercero.
- La capacidad de la gente para hacerse cargo de un mismo debe ponerse en relieve.

- El mensaje debe ser concebido de manera que evite toda globalización y generalización en la mente del público.

- Los obstáculos internos y externos al desarrollo deben aparecer claramente. La dimensión de la interdependencia y la noción de co-responsabilidad en el mal-desarrollo deben subrayarse.

- Las causas de la miseria (políticas, estructurales, naturales) deben ser expuestas en el mensaje que debe llevar al público a descubrir la historia y la situación real del Tercer Mundo, así como las realidades profundas de las estructuras de estos países antes de la colonización. Conscientes del pasado, hay que partir de la realidad de hoy y ver lo que puede hacerse para suprimir las condiciones de extrema pobreza y opresión. Hay que subrayar los problemas de poder y de intereses y denunciar los medios de opresión así como las injusticias.

- El mensaje debe velar por evitar toda clase de discriminación (racial, sexual, cultural, religiosa, socioeconómica...)

- La descripción de nuestros socios del Tercer Mundo como dependientes, pobres, sin poder, se aplica tanto más a las mujeres que son presentadas a menudo como víctimas dependientes o, peor aún, son completamente olvidadas. La mejora de las imágenes, utilizadas en el material educativo sobre el Tercer Mundo, en general, pasa también por el cambio de imágenes proyectadas sobre las mujeres en el Tercer Mundo.

- Los socios del Sur deben ser consultados para la elaboración de todo mensaje.

- Cuando una ONG, en el marco de una campaña de captación de fondos, llama a otros socios (instituciones, organizaciones o empresas privadas), debe velar por que las recomendaciones del presente Código sean respetadas en su totalidad. Sería oportuno hacer una mención del Código en el(los) contrato(s) de patrocinio (sponsoring en el texto) concluido(s) entre la ONG y su/s socio(s).

CONCLUSIÓN

La información diaria habla del Tercer Mundo de una forma a menudo parcial, donde los pueblos hambrientos parecen víctimas inmutables de su suerte. Conviene dejar atrás este fatalismo aportando una información más próxima a la realidad y más completa, que permita una toma de conciencia del valor intrínseco de todas las civilizaciones, de los límites de nuestro propio sistema y de la necesidad de un desarrollo más universal, respetuoso de la justicia, de la paz y del medio ambiente. Esto determina la tarea de las ONG que deben ofrecer al público una información verídica objetiva, respetando no sólo el valor humano de las personas representadas sino también la inteligencia del público mismo.

Herrixka eta dorrea

Arloa	Fisika
Maila	Batxilergoko 1. maila
Helburua	Fisikako ariketak Giza Eskubideen argudioekin erlazionatzea
Zehar-lerroa	Ingurugiro-hezkuntza
Materialak	Proposatutako ariketa
Iraupena	20 minutu

Ikasleei ondorengo ariketa emango zaie bakarka aska dezaten. Erantzuna honekin batera doa.

“Gesto por la Paz”en gida didaktikoan azaltzen diren ereduak ariketa adibide bat jartzea da xedea. Ahal den neurrian eduki sexistak, arrazistak, gerrazaleak, etab. ekidin egingo dira, jokamolde positibo, integraztaile eta solidarioei lehentasuna emanez.

Ikaslearentzat:

Ariketa

Mendixka baten gainean kokatua dagoen Afrikako herrixka batek (ikusitako honekin batera doan eskema) kalte handiak jasan ditu alboko mendixkan helburu militarretarako eraiki zen eta erabiltzen ez den komunikazio dorre zahar bat dagoelako. Horregatik dorrea lurrera botatzea erabaki dute.

Baina ez diote ingurugiroari kalterik egin nahi (bonba baten eztandak inguruko oihanetako aberastasuna urrituko luke), ezta inguruan ibiltzen diren animaliei minik egin, beren tradizioak debekatu egiten baitie animaliak hiltzea, jateko izan ezik.

Injineru bat behar dute, herria dagoen 300 metroko altuera horretatik biribilka joango den pisu handiko zilindro bat diseinatzen lagun diezaien. Zilindroak abiadura jakin bat behar du dorrean dagoen mendixkaren 30° aldapa igotzeko, guztira 300 metro


igo eta dorrea suntsitu dezan. Horretarako, dorrera heltzean behar duen gutxieneko abiadura 10 m/s-koa da.

Zeu zara injinerua eta horretarako ondorengo galderak askatu beharko dituzu:

- Zein da zilindroari aplikatu beharko diogun hasierako abiadura dorrera irits dadin, edo nahikoa izango al da erortzen uztea?*
- Herrixkaren gainetik zein altuerara jarri beharko litzateke zilindroa, hasierako abiadurarik ez izateko?*

(Zilindroak ez du irrist egiten eta CB tartearren marruskadura koefizientea 0.1-ekoa da. AC tartearrik ez du marruskadurarik. Jo ezazu zilindro homogeneoaren inertzia momentua $I=1/2 MR^2$ koa dela. CB tartean ez dago biratzerik).

Erantzunak:

**A Zatia**

AC Tartea

$$E_{c1} + E_{p1} = E_i + E_{c2}$$

$$1/2 m \cdot v_0^2 + mgh = 1/4 mr^2 \cdot \omega^2 + 1/2 m \cdot v_1^2$$

$$1/2 v_0^2 + gh = 1/4 v_1^2 + 1/2 v_1^2$$

CB Tartea

$$E_i + E_{c2} = E_{p2} + W + E_{c3}$$

$$F_r = \mu N = \mu mg \cos 30$$

$$P_x = mg \sin 30$$

$$1/4 mr^2 \cdot \omega^2 + 1/2 m \cdot v_1^2 = mgh' + (F_r + P_x) \cdot d + 1/2 m \cdot v_2^2$$

$$1/4 v_1^2 + 1/2 v_1^2 = gh' + g \cdot (\mu g \cos 30 + g \sin 30) \cdot d + 1/2 \cdot v_2^2$$

$$1/2 v_0^2 + 9,8 \cdot 300 = 3/4 v_1^2$$

$$3/4 v_1^2 = 9,8 \cdot 150 + 9,8 (0,1 \cdot \cos 30 + \sin 30) \cdot 300 + 1/2 \cdot 100$$

$$v_1 = 65,7 \text{ m/s}$$

$$v_0 = 24 \text{ m/s}$$

B Zatia

$$v_0 = 0 \text{ eginez} \quad h = 330,4 \text{ m}$$

Gas ganbara

Arloa	Kimika
Maila	Batxilergoa
Helburua	Heriotza-zigorrari buruz gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Ariketa eta emaitza
Iraupena	20 minutu

Ikasle bakoitzari hurrengo estekiometria arazoa emango zaio.

Osagarri bezala ikasleei eskatu ahal zaie erakundeekin edo GKEekin batera landu dezatela heriotza-zigorraren gaia, zigor horietaz ahal den guztia jakiteko: zein herrialdetan aplikatzen den, exekutatuaren kopurua, instantzia judizialek onartu dituzten okerrak, etab. (edo ekintza hau beste Etika edo Erljioko irakasgaiekin osatu).

Ikaslearentzat:

Problema.

Produktu kimikoen enpresa bateko langile batek jakin du bere enpresak heriotza-zigorra gas ganberaren bidez gauzatzen duen kartzela bati behar dituen aktibakorrak salduko dizkiola, preso bat gutxienez exekutatzeko. Bai bera eta bai zu heriotza-zigorraren aurka zaudete, zigor hori moralaren kontrakoa, ankerra eta gutxiesgarria dela uste duzuelako; horregatik, gauza daitezkeen exekuzioak boikoteatzen saiatuko zarete. Badakizue gas hilgarriak asfixiatik heriotza sortzen duen erreakzioa ondoko hau dela



eta nahikoa dela azido zianhidrikoko 10 ppm. airean arnastea pertsona bat hiltzeko. Zein ezpurutasun maila ezarri beharko du langileak aktibakor hauek hilgarriak izan ez daitezzen?

Datuak: Gas ganberak 3•4•2,5 metroko neurriak ditu. Sodioko Zianuro komertziala hartuko dugu oinarri gisa, %86ko aberastasunaz.

Zure esku balego, aktibakorrak benetan boikoteatuko zenituzke pertsona bat exekuta ez zezaten? Zergatik?

Erantzunak:



10ppm

$$V = 3 \cdot 4 \cdot 2,5 \text{ m}^3$$

$$10 \text{ ppm} = 10 \text{ mg/l} \cdot 30 \text{ m}^3 \cdot \frac{10^3 \text{ l}}{1 \text{ m}^3} \cdot \frac{1 \text{ g}}{10^3 \text{ mg}} = 300 \text{ g HCN}$$

$$544,44 \text{ g NaCN puru} \cdot \frac{100 \text{ g komertzial}}{86 \text{ puru}} = 633 \text{ g}$$

Nahikoa da NaCN komertzialeko 633 gr hauetako zati bat produktu geldoren baten orde, edo hobeto, oinarriko baten orde (bikarbonato, potasa, etab.) aldatzea, erreakzioa boikoteatzeko: NaCHaren aberastasuna aldatu eta gutxitzeaz gain, konposatu honek H2SO4arekin erreakzionatuko zukeen azido zianhidrikoaren erreakzioa eragotziz.

Inken teknologia

Arloa	Kimika. Teknologia
Maila	DBHko 4. maila. Batxilergoko 1. maila
Helburua	Kultura indigenekiko errespetua bultzatzea
Zehar-lerroa	Garapena
Materialak	Honekin batera doan ariketa
Iraupena	20 minutu

Dagokion ikasgaiaren kaliometriari buruzko azalpenekin lotu dezakegu ariketa hau.

Ikaslearentzat:

“Konkista aurretik, Andeatako goi lautadetan hiri handiak eraiki zituzten inkek. Itsas-mailatik oso altuera handietara, eta muturreko klima zutela -gauzez tenperatura oso baxuak- landaketa handiak egiteko eta herri osoa elikatzeko gauza izan ziren distantzia handiak ibili beharrik gabe, altuera gutxiagoko lurretara joz, horietan klima hobea baitzen eta landaketak halako arazorik gabe egin baitzitzaketen.

Zenbait ikerketa berrik frogatu dute landaketa sail handiak ur kanalez inguratuz ekiditen zutela landareak izoztu zitezela. Horrenbestez, gauzez tenperatura 0º gradutik igo ez arren, landaketak ez ziren izozten eta uzta onak jasotzen zituzten. Jakingo al zenuke azaltzen zergatik ez ziren izozten landaketak urez inguratzean?

Erantzuna:

Dakizunez, ura 0 gradu Celsius-era solidifikatu eta izotz bihurtzen da. Baina prozesu honek 80kal/gr askatzen ditu, eta horrek lagundu egiten du tenperatura baxuen eragina gutxitu dadin, inguruan askatutako beroa zabalduz, kasu honetan landare-sailetako lurretara.

Galderak:

- Lehortaldi batzuen ondoren ura bukatu zenean, inkek utzi egin zituzten lur horiek. Hala ere, beren ondorengoak Andean bizi dira, eta gainera, beren burua hornitzeko gai dira ia-ia, eta biziraupeneko landaketak egiten dituzte: Zergatik uste duzu gertatu dela beren arbasoen aurrerakuntzak ez ezagutze hori?
- Ez zaizu gertatzen askotan pentsatzen dela indigenak ez dutela garapen maila nahikorik, eta hala ere txunditu egiten zaituztela konkista aurretik erabiltzen zituzten zenbait aurkikuntza guztiz aurreraturekin? Zergatik uste duzu ditugula aurreiritzi horiek haiekiko? Arrazismo sintoma bat da?

Jostailu berrerabiliak

Arloa	Plastika eta Ikus-hezkuntza. Natur zientziak
Maila	DBH
Helburua	Zaborra berrerabili jostailu bat egiteko
Zehar-lerroa	Ingurugiro-hezkuntza
Materialak	Zaborrean bildutakoa
Iraupena	Ordu bat

Astean zehar etxe batean sortzen diren zabor desberdinak pisatu eta poltsa desberdinetan ondorengo kategorien arabera banatzea da eginkizuna: materia organikoa, papera eta kartoia, beira, plastikoa, metala eta beste batzuk. Gero konparaketak egingo dira gure zabor maila eta gure inguruko batez bestekoarekin: Espainia eta Europa (*Mia* aldizkariak dituen datuen arabera, ideia liburua 5. zenbakia, 128. or.).

Bestalde ikasleari zabor honen zati bat gorde dezala proposatutako zaio, egokien iruditzen zaiona (egurra, kartoia, mache papera, ehuna, latoia, etab.), bere eskuez jostailu bat egin dezan.

Informazio baliagarri osagarria:

- Ariketa honen oinarri bezala *Construcción de juguetes con material de desecho*, Charo Piñago eta Sol Martin Frances-en liburua erabil daiteke (Popular argitaletxea, Madrilgo Komunitate Autonomoaren laguntzarekin, 1996).


- Ume afrikarrek zaborretako materialarekin egindako jostailuen erakusketa ibilkorrean parte hartu zuen Intermon garapeneko GKEak. Katalogoaren izenburua "Lo he hecho para divertirme" da eta hitzurrea, berriz, EK-ko funtzionario batek, Generalitateko conseller batek, idazle batek eta historialari batek egin dute.

- Berziklapenarekiko kontzientzia har dezaten, liburu hauek erabil daitezke, esate baterako: "50 cosas que los niños pueden hacer para reciclar". The earth works taldea, Emecek 1995. urtean argitaratua.

Ikaslearentzat:

Zaborretara botatzen duguna:

Zein hondakin kantitate botatzen dugu.



Galderak:

- Herralde bat lehenengo munduan edo hirugarren munduan kokatzen den jakiteko bide bat beren zaborrak konparatzea da. Garatuen dauden kulturen zaborrak, lehenengo mundukoarenak, hirugarren mundukoarenak baino gutxiago aprobetxatzen dira.
- Solidarioa iruditzen al zaizu argudio hau?
- Ez duzu uste askoz gehiago aprobetxatu beharko genituzkeela ditugun baliabideak eta gehiago berrerabil ez daitekeena bakarrik bota zaborretara?
- Ez zaizu solidaritatearen aldeko argudio bat iruditzen dirua alferrik ez gastatzen ahalegintzea, horren bidez ingurugiroari kalte gutxiago egiten bazaio, oro har eta mugarik gabe?
- Zer egin zenezakeen gai honen gainean gizarte kontzientzia sortzeko? Zer egin zenezakete ikasgelan gai honetaz ardura handiagoa izateko?
- Ekologiak giza eskubideen barnean egon behar duela uste duzu? Azaldu zure arrazonamendua.

Giza eskubideak gure herrialdean

Arloa	Historia. Zuzenbidea
Maila	Batxilergoa
Helburua	Espainiako historia berriak giza eskubideen arloan izan duen aldetaz konturatzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Amnesty Internationalen 1979, 1986 eta 1996ko txostenen atal batzuk
Iraupena	Ordu bat

Aurtengo Amnesty Internationalen Urteroko Txostenetik ateratako testu hauek banatuko zaizkie ikasleei.

Amnesty International elkarte independente eta inpartziala da, eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren lan punturen gainean egiten du lan: kontzientiazko preso guztien berehalako eta baldintzagabeko askatasuna bilatzen du, heriotza-zigorren, torturaren eta tratu txar gutxiezgarrien eta ezgizatiarren aurka dago, preso politiko guztiek bidezko epaiketak izan ditzaten lan egiten du eta "desagerpen" eta hilketa politikoaren aurka dago erabat.

Bakearen Nobel saria eman zioten 1977. urtean.

Urtero bere Urteroko Txostena argitaratzen du, eta bertan, elkarrekin urtean zehar aztertutako giza eskubideen bortxaketak azaltzen ditu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, euskal hiriburuetan du egoitza:

Amnesty International, 334 posta-kutxatila, 01080 Vitoria-Gasteiz.

Amnesty International, 803 posta-kutxatila, 48080 Bilbo.

Amnesty International, 1109 posta-kutxatila, 20080 Donostia.

Ikaslearentzat:

1979

El año transcurrido fue testigo de las etapas finales de transición del programa de reforma constitucional y judicial, iniciado por el gobierno del Sr. Adolfo Suárez. El logro más notable fue el de una nueva Constitución que reemplaza a las Leyes Fundamentales del General Franco. El texto fue aprobado por las dos cámaras de las Cortes (parlamento) el 31 de octubre de 1978, después de varios meses de debate, y respaldado por un referendo celebrado el 6 de diciembre de 1978. Entró en vigencia el 28 de diciembre de 1978.

La nueva Constitución abolió la Pena de Muerte, excepto bajo la ley militar en tiempos de guerra y prohibió el uso de la tortura y de castigos inhumanos y degradantes. Se introdujo el recurso de habeas corpus, y se limitó a 72 horas el plazo de detención preventiva. También se reconocieron los derechos de asociación y huelga.

Continuó el conflicto armado entre grupos extremistas de izquierdas y derechas y las fuerzas de orden público, especialmente en el País Vasco. En el año 1979 se registraron más de 80 asesinatos, la mayoría de policías u oficiales del ejército. A fin de combatir esta violencia, el gobierno ha dictado leyes que pueden contribuir al deterioro de los derechos civiles y humanos garantizados por la nueva Constitución.

(...) La Ley 56/1978, del 4 de diciembre de 1978 dice que el sospechoso debe ser llevado ante el juez dentro de las 72 horas después del arresto, pero el juez puede ordenar un nuevo período de incomunicación de siete días de detención (...) El decreto establece que el ejercicio de estos poderes no debe obrar en perjuicio del derecho de defensa, pero ha habido reiteradas denuncias de que los jueces interpretan el derecho de defensa de manera tal que obstaculiza la visita de los abogados a los detenidos en virtud de esta ley (...).

La interpretación de estas leyes a fin de restringir el derecho del detenido a un abogado fue, en opinión de Amnistía Internacional, un factor muy importante en el repentino aumento de denuncias de tortura por parte de detenidos políticos. Las mismas provinieron especialmente de vascos acusados de pertenecer a ETA. Con todo, las denuncias no estuvieron limitadas a este grupo o a una determinada región geográfica; todas ellas provinieron de alguien arrestado según las leyes antiterroristas y detenido sin asistencia de abogados.

(...) Cuatro miembros de la compañía de mimos Els Joglars sentenciados a dos años de cárcel el 6 de marzo del 78 en virtud del Código de Justicia Militar por haber insultado a las fuerzas armadas, fueron indultados después de cumplir un año de sus sentencias (...).

El gobierno debe aún aprobar una nueva ley referente a la objeción de conciencia. Sólo se registró un juicio - en febrero del 79- según la antigua ley. Se ordenó a las autoridades militares que ofrecieran un aplaza-

miento a los reclutas que reclamaban ser reconocidos como objetores de conciencia. El artículo 30 de la nueva Constitución permite entrever la introducción de una forma de servicio alternativo.

1986

La tortura y malos tratos infligidos a los detenidos, particularmente a quienes se encuentran en régimen de incomunicación, de acuerdo a la ley antiterrorista, continuaron siendo la principal preocupación de Amnistía Internacional. Se produjeron numerosas diligencias judiciales y procesamientos de agentes de policía y guardias civiles acusados de tortura y malos tratos a los detenidos. (...).

El 3 de julio se publicó el informe de Amnistía Internacional España, la cuestión de la tortura, en el que se incluía un memorando sobre casos de supuestas torturas y sobre las medidas de protección contra las mismas, junto con la respuesta recibida del Gobierno español. Un representante de la Oficina de DDHH del Ministerio de Asuntos Exteriores comentó en una entrevista radiada por la BBC, el mismo 3 de julio, que el Gobierno español tenía conciencia del problema de la tortura y reconocía que la legislación relativa a la protección de los detenidos tal vez era insuficiente, existiendo deficiencias en la ley antiterrorista (...).

Siguieron adelante los juicios contra guardias civiles en los dos casos descritos en el libro. (...).

El 27 de abril, se aprobó el reglamento relativo a la aplicación de la nueva ley sobre el servicio militar y a

la creación de una prestación social sustitutoria. El nuevo sistema establecía un servicio militar de 12 meses o una prestación social sustitutoria de 18 a 24 meses, fuera del control militar y constituida por actividades de utilidad pública (...).

El 14 de enero España ratificó el Protocolo nº 6 del Convenio Europeo para la Protección de los Derechos Humanos, que prevé la abolición de la Pena de Muerte por los delitos cometidos en tiempo de paz (...). Amnistía Internacional consideró la proyectada reforma del Código Penal Militar como una oportunidad para conseguir la abolición total de la pena de muerte, pero aunque la organización apremió individualmente a todos los miembros de ambas Cámaras para que votaran por la total abolición de la pena de muerte, en octubre se aprobó una nueva ley en la que se retenía el uso de la pena de muerte para una amplia gama de delitos enumerados en el Código Penal Militar.

El 25 de enero, España se adhirió al Protocolo Facultativo del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, que proporciona al individuo el derecho de presentar quejas contra las violaciones de sus derechos reconocidos en el Convenio.

1996

Siguió vigente la legislación especial relativa a los grupos armados. Las personas sospechosas de pertenecer a grupos armados o de colaborar con ellos podían permanecer detenidas por orden judicial en régimen de incomunicación durante períodos de hasta cinco días - 48 horas más que el plazo legal aplicado a otros detenidos- y se les denegaba el derecho a asignar a su propio abogado.

En febrero, España firmó el Segundo Protocolo del Convenio Europeo para la Prevención de la Tortura y de las Penas o Tratos Inhumanos o Degradantes, que ratificó en junio.

En noviembre quedó suprimida por ley la Pena de Muerte del Código Penal Militar.

Las más altas instancias del poder judicial, como la Audiencia Nacional y el Tribunal Supremo, continuaron investigando las denuncias de implicación de políticos y miembros de las fuerzas de seguridad en una "guerra sucia" contra presuntos miembros de ETA. Al parecer la organización clandestina Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL) fue la que llevó a cabo esta campaña ilegal. Según los informes, los GAL estaban integrados por funcionarios de la seguridad del estado y por pistoleros contratados, y se creía que

habían estado vinculados a las más altas esferas ministeriales españolas (...).

Amnistía Internacional consideró presos de conciencia a dos objetores de conciencia al servicio militar, encarcelados por desertión. (...)

Hubo nuevas denuncias de malos tratos presuntamente infligidos por agentes encargados de hacer cumplir la ley. En agosto se abrió una investigación judicial en torno a la denuncia contra la Policía Nacional por malos tratos contra Guillermo Guzmán, minusválido, en Vitoria-Gasteiz. (...)

Siguieron su curso numerosas actuaciones judiciales contra funcionarios de prisiones y de las fuerzas de seguridad acusados de malos tratos cometidos en años anteriores. (...)

Durante el año se indultó a varios agentes que habían sido condenados por tortura y malos tratos. (...)

Durante el año, prosiguieron los atentados del grupo armado ETA contra miembros de las fuerzas de seguridad y civiles. Este grupo mató a 15 personas e hirió aproximadamente a 95. (...) Los grupos armados también siguieron secuestrando a personas, especialmente empresarios, con objeto de cobrar rescate por ellos.

HABEAS CORPUS:

Cualquier persona que se considere detenida ilegalmente, o un tercero en su nombre, puede recurrir a la Corte Suprema de Justicia, la cual expide un acta, auto de hábeas corpus, por el cual, quienes lo detienen deben presentar el cuerpo del detenido, para que el tribunal pueda decidir sobre la validez de la detención. La desobediencia a la orden del tribunal es sancionada duramente.

Como recurso se mantiene en muchos países. Es de notar que, debido a circunstancias políticas, su aplicación carece a veces de eficacia, principalmente cuando los Parlamentos no funcionan y las garantías constitucionales están suspendidas.

(Diccionario enciclopédico de Derecho Usual de Guillermo Cabanellas editado por Heliasta en 1989 en Argentina).

Galderak:

- Zein giza eskubideri buruz hitz egiten dute testu hauek? Aldarrikapen Unibertsalaren zein artikuluren barne daude?
- Azkeneko hogeit urteetan nola aldatu da Espainian giza eskubideen egoera?
- Mingarria iruditzen al zaizu arlo hau hobetzen jarraitzea? Azaldu zure erantzuna.
- Espainiar legeria giza eskubideei buruzko materialak hobetuz joan dela uste duzu?
- Nahikoa iruditzen al zaizu edo gehiago hobetu beharko zela uste duzu?
- Nola hobetuko zenuke giza eskubideen egoera gure herrialdean?

Güipilak

Arloa	Matematika
Maila	Batxilergoa
Helburua	Garapenaren aldeko laguntzari aplikatutako zenbaki konbinatorioekin lan egitea
Zehar-lerroa	Garapena
Materialak	Ariketa eta bere emaitza
Iraupena	30 minutu

Ikasle bakoitzari hurrengo ariketaren enuntziatua emango zaie.

Ikaslearentzat:

Ariketa:

Guatemalako herrixka txiki batean, garapenaren aldeko GKE bat tapiz eta güipilak (jantzi indigenak) fabrikatu ahal izateko antolatzen ari da. Horretarako herrixkan ehundegi batzuk jarri ditu.

Emakume maiak aspalditik ari dira ehunak tindatzen, kolore asko eta alaiak erabiliz: gorria, urdina, horia, berdea, beltza, arrosa, zuria eta laranja. Herrixka bakoitzak beste etnia eta herrixketatik desberdintzen dituen koloreak erabili ohi ditu.

GKEak ikasi du, koloreak aldatu arren, horiek berdin saltzen direla. Horregatik güipil desberdinak egin nahi ditu.

Zein dira güipilak egiteko aukerak, lau kolore jarri nahi baldin baditu?

Hala ere, tradizioak araututako zenbait jantzi behar ditu herrixkak. Güipilak lau kolore izan behar ditu,

baina ehun guztian zehar hurrenkera jarraia izan behar dute kolore horiek. Hau da, koloreek ondoko hauek izan behar dute: horia, zuria, gorria, laranja, beltza, urdina, arrosa eta berdea. Manta bat kolore zuriaz hasten bada, hurrengo kolorea gorria izango da ezinbestean, gero laranja eta azkenik beltza. Horiaz hasten bada, zuria, gorria eta laranjarekin jarraituko du. Zenbat manta desberdin egin daitezke?

Manta indigena bakoitzak 50 quetzal balio badu (Guatemalako moneta nazionala) eta 100 quetzal saltzen badute; eta güipilak 30 kostatzen bazaizkie eta 70etan saltzen badituzte, zenbat manta eta güipil saldu beharko dituzte komunitateko umeen eskolako materiala ordaintzeko, horrek guztiak 8.000 quetzal balio badu?

Erantzunak:

$$C_{8,4} = \frac{8!}{(8-4)!(4!)} = \frac{8 \cdot 7 \cdot 6 \cdot 5 \cdot 4 \cdot 3 \cdot 2 \cdot 1}{4! \cdot 4!} = 70 \text{ güipil mota desberdin}$$

Mantek beti kolore-hurrenkera bera dutenez gero, 8 manta mota desberdin bakarrik egin daitezke.

8.000 quetzal balio du eskolak / 50 quetzal manta bakoitzeko = 160 manta

8.000 quetzal balio du eskolak / 40 quetzal güipil bakoitzeko = 200 güipil

Pertsonen aurkako lehergailuak

Arloa	Fisika
Maila	Batxilergoa
Helburua	Pertsonen aurkako lehergailuek egiten duten minaz gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Garapena
Materialak	Honekin batera doan problemaren azalpena
Iraupena	20 minutu

Ikasleari hurrengo problema emango zaio:

Ariketa hau pertsonen aurkako lehergailuekin zerikusia duen Erljio eta Etikako beste batekin lot daiteke.

Informazio gehiago nahi izanez gero GKEetara jo: MANOS UNIDAS, MUGARIK GABEKO MEDIKUAK, GREENPEACE, INTERMON, CEAR, UNICEF etab. Gehienak HANDICAP INTERNACIONAL GKEren barnean daude, eta elkarte honi Bakearen Nobel saria eman zioten 1997an.

Euskadiko garapenaren aldeko GKE koordinadoran argibide gehiago emango dizute, izan ere, gehienak biltzen baititu bere barnean. Helbidea: Principe de Viana kalea, behea, 48007 Bilbo, eta bere telefonoa 94-4378042.

Ikaslearentzat:

“Pertsonen aurkako lehergailu bat zapaltzerakoan, bertatik 50 gramoko masa eta zentimetro bateko diametroa duen zati esferiko bat irteten da erauzita 1500m/s-ko abiaduraz. Nolako lodiera eduki behar du nekazari baten burdinezko zapataren zolak, zapaltzean minik har ez dezan?”

(Burdinaren gogortasuna: 4,2 kp/mm² Mohs-en eskalaren arabera. Jo ezazu marruskaduraren indarra iraunkorra dela, bero eran kanporatzen den energia kilokaloria batekoa da eta esfera ez da itxuragabetzen zola jotzean).

Galderak:

- Nola uste duzu izango litzatekeela eguneroko bizitza Kanbodia edo Bosnian bizi den pertsona batentzat, problemaren azaldutako zapatak eta arropa blindatuak eraman beharko balitu, lehergailu batekin topo egitean prest egoteko?
- Pertsonen aurkako lehergailu baten bizitza oso luzea izan daiteke. Denborarekin ez da hondatzen, eta guda bukatu eta urte askoren ondoren ere, horiekin topo egiten duten pertsonen soin-adarren mozketak edo heriotza eragiten dizkiete, orain Kanbodian gertatzen ari den bezala.
- Lehergailu batek 3 eta 75 \$ arteko gastua dakar, hau da, 500 eta 1.200 pta. artean sinpleenak, eta, aldiz, lehergailu bat indargabetzea, egitea baino ehun eta berrehun bider gehiago kostatzen da.
- Lehergailuen ekoizpena eta merkaturatzea ez desagerrarazteko gobernuak erabiltzen duten argudio baten arabera, horiek ekoizteari uzten baldin badiote, lantegi eta enpresa garrantzitsuak itxi egin beharko dituzte, horrek dakarren gizarte kostuarekin: lanpostuak galtzea, laneko segurtasun eza... Zer deritzozu?
- Euskadin mota honetako ze enpresa daude? (Estatu espainiarreko lehergailu enpresen %45a Euskadin dago kokatua).

Erantzuna:

$$Pr = 4,2 \text{ Kp/mm}^2 \quad \varnothing = 10 \text{ mm} \quad S = \pi \cdot 25 \text{ mm}^2$$

$$Fr = Pr \cdot S = 4,2 \text{ Kp/mm}^2 \cdot 25 \pi \text{ mm}^2 = 330 \text{ Kp} = 3300 \text{ N}$$

$$\Delta E_c = 1/2 m \cdot v_j^2 - 1/2 m \cdot v_0^2 = W_{fr} + Q$$

$$0 - 1/2 \cdot 0,005 \cdot (1.500)^2 = -3.300 d + 1.000 \cdot 0,24$$

$$d = 1,63 \text{ m}$$

Datu idealetan oinarritutako problema da. Lehergailu zatiaren benetako irteera-abiadura 1.500 eta 1.800 m/s-koa da. 50 gramo leherkari duen lehergailu batek 60 eta 90 KJ bitarteko energia aska dezake.

Oinarrizko eskubideak

Arloa	Gizarte zientziak, Geografia eta Historia. Etika. Tutoretza
Maila	DBH
Helburua	Eguneroko egoerak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalarekin erlazionatzea
Zehar-lerroa	Solidaritatea
Materialak	Honekin batera doan testua. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala
Iraupena	30 minutu

Ikasle bakoitzari, honekin batera doan galdeketeraren eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren kopia bana emango zaie. Lehendabizi, beren iritzia agertu beharko dute erantzunarekin batera, eta gero, egoera bakoitzarekin Aldarrikapenaren zein artikulua erlazionatzen den azaldu.

Ikaslearentzat:

- Egoera hauetan guztietan, zure ustez, bortxatzen al da oinarrizko eskubideren bat? Horrela baldin bada, zure ustez, Aldarrikapeneko zein eskubide bortxatzen da?
 - Demagun zure lagunik onena droga kontsumitzailea dela eta dirua eskatzen dizula droga erosi ahal izateko. Zer egingo zenuke? Laguntza eskatuko balizu, emango zenioke? Nola?
 - Zure bizilaguna arabiarra da eta ez daki espainieraz ondo hitz egiten, bere hizkuntzan bakarrik mintzatzen baita. Zuk hura bakarrik sentitzen dela eta jolasteko lagunak behar dituela ikusten duzu.
 - Zure gelako lagun bat ijitoa da eta ikasketekin arazoak ditu bere gurasoak saltzaile ibiltariak direlako, eta ezin delako horregatik klaseetara maiz etorri.
 - Kaletik zoazela gizon bat ikusi duzu lurrian belaunikaturik, janari eske. Hilabete batzuk lanik gabe daramatza eta lana behar du.
 - Ikastetxean mutilek bakarrik joka dezakete futbolean, baina badago futbol-jokoan oso ona den neska bat. Hala eta guztiz ere, ez diote jolasten uzten, neska delako.
 - Zure etxe azpian dagoen kutxa automatikoan bonba su-eragile bat jarri dute.
 - Poliziak gomazko pilota batez zure lagun bat zauritu du manifestazio bat sakabanatzean.
 - Emakume batek asilo politikoa eskatu du Euskadin, beldur baita bere herrialdera itzultzen baldin bada bere ideia politikoengatik gartzeleratuko ote duten.
 - Telebista piztean errefuxiatuen kanpamendu baten irudiak ikusi dituzu, eta bertan, jendea gosez eta gaixotasunez hiltzen ari da.
- Orain arreta jarri Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren fotokopian, eta esan kasu bakoitzean Aldarrikapenaren zein artikulua ez den betetzen.
- Hala ere, Giza Eskubideek ez dituzte eskubideak bakarrik jorratzen, gure betebeharrak eta eginbeharrak bete daitezela ere ezartzen baitute. Goian aipatutako egoera desberdin horietan ikusten al duzu baten bat, egoera konpontzeaz gain, pertsona horrek edo beste inork egoera hori berriro ez jasateko konpromisoa planteatzen duenik?

Gogoetak

Arloa	Euskal hizkuntza eta Literatura. Etika. Filosofia
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Iritzi askatasuna, kontzientziaren klausula ete legeei buruzko gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Garapena
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	Ordu bat

Ikasleei gai hauetako bat emango zaie, 25 minutu inguruko gogoetatxo bat egin dezaten.

Beste gelako ikaskideei lanak banatuko zaizkie, eta horrela, gainerako kideek idatzi dituzten ideia nagusiak aterako dituzte. 5-10 minutu.

Idea nagusi hauek guztiak elkarrekin erkatu eta arbelean jarri ondoren, emandako arrazonamenduak eztabaidatuko dira. 25 minutu.

Ikaslearentzat:

- Kartzela. Gizon batek delitu ikaragarri bat egin duenez, kartzelaratu egin dute. Uste dute agian delitu bera egin dezakeela berriro, baina heriotzaurreko gaixotasun bat du eta bere familiak aske uztea eskatu du. Zeu zara epailea eta erabaki bat hartu behar duzu. Bere askatasunaren agindua emango duzu ala ez?
- Genetika. Zure izeba-osabek beti nahi izan dute alaba bat, baina hiru seme dituzte. Jakin dute Estatu Batuetako klinika batean giza enbrioak manipulatu egiten dituztela umearen sexua aukeratzeko. Espainian manipulazio hori debekatua dago. Zure izeba-osabek zuri eta zure familiari aholku eskatu dizuete. Zer esango zenieke?
- Indarkeria Euskadin. Alderdi politiko bat arrazoi politikoengatik jendea hiltzen ari den talde terrorista baten alde dago. Alderdi hori galerazi egin beharko litzateke? Bere burukideak kartzelaratu egin behar dira terrorismoaren apologia egiteagatik, ala terrorismoaren apologia adierazpen askatasunaren oinarrizko eskubideetako bat da?
- Intsumisioa. Zerbitzu militarra egiteko orduan, beren borondatez ematen dute izena batzuek, eta beste batzuk, berriz, intsumisio egiteagatik kartzelaratu egiten dituzte, intsumisioa zigortua baitago Espainian. Bidezkoa dela uste duzu?
- HIESa. HIESa duen ume bat zure ikastetxera etorriko dela jakin duzu. Zure gurasoek zu kutsatzeko beldurra dute, eta ikastetxeko zuzendariari ume hori ez onartzeko eta HIESa duten umeentzat ikastetxe bat egiteko eskatu diote. Zer iruditzen zaizu?

Hizkera eta arrazismoa

Arloa	Euskal hizkuntza eta Literatura
Maila	Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ezagueran sakontzea
Zehar-lerroa	Arrazismoa
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	Ordu bat

Ikasle bakoitzari hiztegi bat bilatu beharko dituen hitzen zerrenda bat emango zaio. Horiek aurkitu ondoren, proposatutako galderari erantzun beharko diete.

Ikaslearentzat:

Modu arrazistan hitz egiten dugunean ondoko hitz hauek erabili ohi ditugu. Bila itzazu hiztegiak.

- arrazismoa
- arraza
- etnia
- xenofobia
- diskriminazioa
- bazterkeria
- bereizkeria
- errepresioa
- etnozentrismoa
- antisemitismoa
- inperialismoa
- ustiapena

Galderak:

1. Azaldu etnia eta arrazaren arteko ezberdintasuna. Xenofobia eta antisemitismoa.
2. Zure oroimena estutuz, deskriba ezazu beste arraza edo etniekiko arrazista edo baztertzailerik direnek bultzatutako gertaera historikoren bat.
3. Euskadin egoera arrazistatik sumatu al duzu?
4. Egin ezazu arrazismoari buruz dituzun gogoetetz idazlan bat. Erabil itzazu hitz berriak.

Irakaslearentzat:

Denys Prache-ren "Todos nacemos racistas" liburuko testuak erabil daitezke, "Como lo ves?" bildumatik. Edelvives-ek argitaratua, Zaragozan 1996.

Kultura desberdinak

Arloa	Oinarrizko Teknologia. Gizarte zientziak, Geografia eta Historia
Maila	DBH
Helburua	Kultura desberdinak dituzten pertsonak nola bizi diren ezagutzea
Zehar-lerroa	Garapena
Materialak	Honekin batera doan laukia
Iraupena	Ordu bat

Gela bost pertsonaz osatutako taldetan banatuko da. Talde bakoitzari bi herrialde izendatuko zaizkio eta horien inguruko ikerketa-lan bat egin beharko dute, hurrengo laukiari erantzun ahal izateko. Desberdintasunak biltzean, jar ezazu arreta herrialde bakoitzak dituen teknologia eta lehengaietan.

Taldeei izendatuko zaizkien herrialdeak oso desberdinak izango dira, desberdintasunak ondo ikusteko. Elikadura, etxebizitza... desberdinak dituzten inguruak izango dira. Adibidez, herrialde bikote bat Kuba-Australia izan liteke, beste bat Espainia-Indonesia edo Frantzia-Egipto.

Ikaslearentzat:

	zer?	zergatik?	nola lortzen dute?	bereizgarri erlijioso eta moralak	testuinguru artistikoa
Elikadura	zer jaten dute?		<ul style="list-style-type: none"> • nekazaritza • klima • eskura daukaten teknologia 	<ul style="list-style-type: none"> • janari debekatuak • festak • gizona-emakumea 	
Jantziak	nolako arropak jantzen dituzte?		<ul style="list-style-type: none"> • industrializazioa • klima • eskura daukaten teknologia 		<ul style="list-style-type: none"> • koloreak • formak
Etxebizitza	non bizi dira? nolakoak dira etxeak?		<ul style="list-style-type: none"> • klima • eskura daukaten materialak • eskura daukaten teknologia 	<ul style="list-style-type: none"> • bizitza pribatuaren kontzeptua • familien egitura 	<ul style="list-style-type: none"> • estiloak
Garraioak	zein garraiabide erabiltzen dituzte?		<ul style="list-style-type: none"> • orografia • eskura daukaten teknologia 		

Sor ezazu zure GKE

Arloa	Etika. Erljioa edo alternatiboa
Maila	Batxilergoa
Helburua	GKEek nola diharduten ikertzea
Zehar-lerroa	Garapenerako Hezkuntza: Solidaritatea
Materialak	
Iraupena	2 ordu (klase deberdinetan banatuz).

Gelan Gobernuz Kanpoko Erakunde bat antolatu behar da. Bost edo sei ikaslez osatutako taldeak egin daitezke, talde bakoitzak GKE bat osa dezan.

Ariketaren bigarren ordua, edo hautatutako beste ordu bat, GKE bateko kide bat gonbidatzeko erabil daiteke, ikasleek aukeratua eta beren lanarekin zerikusia duena, horrela benetan jakin ahal izango baitute nola egiten duten lan. Bide batez, ikasleek beren arazoez galdetuko diote, eta hark bere GKEn arazo horiek nola konpontzen dituzten azalduko die.

Ikaslearentzat:

Lehenengo orduan galdera hauei erantzun beharko diete:

1. Landu nahi duten Giza Eskubideen arloa aukeratu:

- Ingurugiroa
- Gizaldekotasun laguntza
- Garapenerako laguntza
- Giza Eskubideen bortxaketak
- Bazterkeria
- Drogazaletasuna
- Pobrezia
- Indarkeria Euskadin...

2. Adostasunez osatutako araudi bat sortu, zertan lan egin nahi den eta nola, eta zertan ez erabakitzeke.

- GKEn izen bat jarri.
- Zeren gainean egingo da lan? Zer baldintza bete behar dira horiei laguntzeko?
- Zein laguntza izango dute mesedegile eta zein ez?
- Zein dira GKEn mugak? Edozein prozedura erabil al liteke laguntzeko?
- Zein dira GKEn helburuak?
- Zer baldintza bete behar ditu pertsona batek GKEn partaide izateko?

3. Nola funtzionatuko duen.

- Nola aukeratuko duzue GKEn ordezkaria?
- Nola hartuko dira erabakiak: bilera batean "pertsona bat boto bat" sistemaren bidez ala aurrez zuek aukeratutako ordezkari eskudunen botoen bidez?

4. GKEren ekintzetarako behar den dirua nola lortuko duzuen.

- Zuen xedea zabaltzeko behar dituzuen fotokopiak egiteko.
- Konpondu nahi duzuenaren benetako egoeraren informazioa biltzeko, behar den informazioa dagokion pertsonari jakinarazteko.
- Beste kideei zuen lanari buruzko asmoak azaltzeko eta horrela laguntza gehiago lortzeko.

5. Kontzientziazio kanpaina bat sortu beste gela batzuetako ikaskideekin, zuek egindako lana ezagutu dezaten eta zuekin bat egin eta lagun diezazueten.

Bidegabekeriak

Arloa	Etika. Erlijioa edo alternatiboa. Tutoretza
Maila	DBH
Helburua	Bidegabekeriako egoerak konpontzeko konpromisoa bultzatzea
Zehar-lerroa	Garapenerako Hezkuntza: Solidaritatea
Materialak	
Iraupena	Ordu bat

Ikasle bakoitzari hurrengo aipamena emango zaio. Gomendagarria da lehenengo 15 minutuetan galderei bakarka erantzutea. Hurrengo 20 minutuetan, emaitzak erkatu beharko dira. Ondorengo ordu laurdena, ateratako ondorioei buruz bakoitzak gogoeta idatzia prestatzeko erabiliko da. Azkeneko 10 minutuak bidegabekeriako egoera horiek jasaten dituzten talde desberdinen erantzunez gogoeta egiteko erabiliko dira.

Ikaslearentzat:

“Ulertu behar dugu ezin diogula ihesik egin ohiko minari, eta justifikazio bakarra, baldin badago, ahal dugun bitartean hitz egitea dela ezin dutenen izenean”. Albert Camus.

Lehenengo ordu laurdenerako galderak:

1. Zure ustez, zer esan nahi du Albet Camusen aipamen honek? Benetan uste al duzu batzuetan bidegabekeriaren aurrean jendeak oro har pasibotasuna edo geldotasuna erakusten duela? Aipatu adibideren bat.
2. Gelako ikasle guztiak zigortuak izan zarete heziketa fisikoko gelatik berandu irten zaretelako eta 10 minutuko atzerapenez heldu zaretelako hurrengo klasera. Gelako delegatuak protesta egin du, beste irtenbiderik edo zereginik ez zenuela esanez, eta zigorra ez zaizuela bidezkoa iruditzen.
3. Zuen gela ikastetxeen arteko azken txapelketarako sailkatu da. Jo dezagun partiduan zehar arbitroak ez duela ikusi zuen aldeko penalti bat, eta horren ondorioz, zuen taldeak txapelketa galdu egin duela. Zer egingo duzu?
4. Zure lagun baten aita polizia zen, eta atentatu batean hil egin dute. Zer egingo duzu?
5. Zure lagun bat atxilotu egin dute “molotov” koktel bat bota duelako banketxe baten kontra. Zer iruditzen zaizu?
6. Gaez, zabor-biltzaileak pasatu baino lehen, familia bat zure atariko zaborretan dabil, eta trapuak eta bota dituzuen beste gauza batzuk hartzen dituela ikusi duzu. Zer pentsatzen duzu?
7. Telebistan Somalia edo Ruandako gosetearen irudiak ikusi ondoren, bururatzen al zaizu horiei laguntzeko modurik?
8. Telebistan bigarren mundu gerrari eta konzentrazio-eremu naziei buruzko dokumental bat ikusi duzu. Zergatik uste duzu egin zutela? Zergatik hil zuten hainbeste jende, inori ardura ez balitzaio bezala? Zuk zerbaite egingo al zenuke?

Bakarkako lanaren bigarren zatiko galderak:

Albert Camus-en aipamenera itzuliz, bidegabekeriako egoeraren bat ikusiko bazenu, uste al duzu zuk bakarrik zerbaite egin zenezakeela? Beste pertsona batzuekin bilduko al zinateke, denen artean zerbaite lortzen saiatzeko? Lortuko zenuketela uste al duzu?

Elkarte asko daude, gobernu kanpoko erakundeak nahiz bestelako taldeak, gure inguruan eta mundu osoan zehar gertatzen diren bidegabekeriako egoerak konpontzen saiatzen direnak. Baten bat gogoratzen al duzu? Zertan egiten dute lan?

Historia eta umeen eskubideak

Arloa	Gizarte zientziak, Geografia eta Historia. Historia garaikidea
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmenaren sorrera jorratzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak
Materialak	Umeen Eskubideak
Iraupena	Ordu bat

Ikasle bakoitzari, banaka edo, gehienez ere, hiru pertsonako taldetan, Umearen Eskubideen Aldarrikapena sortu beharraz lan bat egin dezan eskatu zaio. Honekin batera, Umearen Eskubideen Aldarrikapena doa, Unicef Espainiak Quino-ren ilustrazioekin argitaratua: Mafalda eta bere laguntxoak.

Umeen alde lan egiten duten erakundeei eskatu ahal izango zaie materiala: UNICEF, ACNUR, GURUTZE GORRIA, AMNESTY INTERNATIONAL.

Ikaslearentzat:

Jarrai daitezkeen urratsen eskema.

1. Umeen egoera historiaren garai desberdinetan: umeak antzinako Erroman (hiritarren umeak eta gatibu zeuden umeak).
Espainiako Urrezko Mendean (El Lazarillo de Tormes...), XIX. mendeko industri iraultzan (lan orduak, haurren lana), Ingalaterra viktoriarren garaian (Charles Dickens)... gure garaia heldu arte.
2. Umeen Eskubideen Hitzarmenaren aurrekariak: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. Zergatik da beharrezkoa umeen eskubideak bereziki zainduko dituen Aldarrikapen bat? Ez al da nahikoa Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala?
3. Umeen Eskubideen Hitzarmena. Noiz sinatu zen? Non? Zein herrialde elkartu ziren? Zein eskubide biltzen ditu?
4. Gaur egun umeen eskubideak ondoko alorretan bortxatzen dira.
 - Ume soldaduak
 - Kaleko umeentzako heriotza-eskuadroiak
 - Txinako umezurtz-etxeak
 - Sexu gehiegikeria umeekin
 - Gaizki elikatutako umeak
 - Komisaldegietan torturatutako umeak
 - Zure hiriko kaletan zehar diru eske dabiltzan umeak
 - Nagusiak bezala epaituak eta zigortuak diren umeak (Heriotza-zigorraren kasua Estatu Batuetan)
 - Pertsonen aurkako lehergailuen ondorioz beso-zangoak moztuak dituzten umeak.



DECLARACION DE LOS DERECHOS DEL NIÑO



comentados por Mafalda

¡Y DEL SIGNO DEL ZODIACO SE DIVIDIRON! ¿AQUÍ AHORA RESULTA QUE UN CUADRO NACIDO EN GEO SE CREERÁ IGUAL A QUE EN VAMOS LA LUZ EN ARIES! ¡JAJAJ! ¡SEPIAN QUE ESO DE LA IGUALDAD NO ESIA MAL, PERO HAY IGUALDADES E IGUALDADES!

¡EMPEZAMOS BIEN!

1 Derecho a la igualdad, sin distinción de raza, credo o nacionalidad.

Y SOBRE TODO PROTECCION ANTE CIERROS ANTIGUOS METODOS DE PROTECCION

¡NOBIS DE PROTECCION AL MENOR!

2 Derecho a una protección especial para su desarrollo físico, mental y social.

¡YO QUERÍA LLAMARME BATMAN!! ¡Y ADEMÁS SER SUIZO, PARA COMER CHOCOLATE TODO EL DIA!!

3 Derecho a un nombre y una nacionalidad.

VENIMOS POR LA VIRGENA CONTRA EL DESPREZIO, POR FAVOR

4 Derecho a una alimentación, vivienda y atención médica adecuadas para el niño y la madre.

¡A MI MAMA LOS NIÑOS MEJORES LA COMUEVEN BIEN! ¡LE DESPREZAN TAN PROFUNDO AMOR QUE SU DOLOR NO SUPERA EL DOLOR DE RECORDAR! ¡QUEBIA QUE EXISTEN! ¡PORQUE MAMA!

Y SI HAY MUEBOS SEITE AS BONAICONA

5 Derecho a una educación y cuidados especiales para el niño físico o mentalmente discapacitado.

DISEO YO... ¿Y POR HACERNO QUERER DE ESA MANERA NO NOS PAGAN NAD...?

6 Derecho a comprensión y amor por parte de los padres y la sociedad.

¡NUESTRO DERECHO A LA EDUCACION ES TAN INDISCUTIBLE...

¡QUE NO HAY LA MAS MINIMA ESPERANZA DE QUE ALGUN ALMA CARITATIVA NOS LO quite!

7 Derecho a recibir educación gratuita y a divertirse de los juegos.

Y ESTOS DERECHOS... ¿A RESPONDERLOS, CIA? ¡NO VAMOS A PAGAR COMO CON LOS DIEZ MANDAMIENTOS!

10 Derecho a formarse en un espíritu de solidaridad, comprensión, amistad y justicia entre los pueblos.



¿O SEA QUE EN CASO DE HAMBREUNA MIERDA, TODOS TODOS LOS HELADOS DE FRESA CON CREMA NOS LOS DARIAN PRIMERO A NOSOTROS?

8 Derecho a ser el primero en recibir ayuda en casos de desastre.

TOTAL, TODO ESO YA TENDREMOS TIEMPO DE SUFRIRLO CUANDO SEAMOS GRANDES

9 Derecho a ser protegido contra el abandono y la explotación en el trabajo.

Unicef ayuda a los que mañana arreglaremos todo.

Elaborada por el Comité Español del Unicef - Apartado 01. 100 - 28000 Madrid
©Copyright de las empresas patrocinadoras de Unicef España
Derechos legal: 01-040-0001 - Unicef, S. L.

Hondoratzea

Arloa	Etika. Erljioa edo alternatiboa. Filosofia
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Inor ez baztertearen printzipioari buruz gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Arrazismoa
Materialak	Ikasleei emandako rolak dituzten txartelak
Iraupena	Ordu bat

Gela bi taldetan banatuko da. Lehenengoa 10 ikaslek osatuko dute. Bakoitzak, halabehararen arabera, txartel bat jasoko du, antzeztea tokatuko zaion rolaekin. Taldearen aurrean horrela azaldu beharko du. Bere klaseko kideen aurrean, izen bat, adin bat eta bizi bat asmatu beharko ditu. Aurkezpen honek 10-15 minutu iraungo du.

Bigarren taldekoek, kide bakoitza bere rolaekin identifikatu beharko dute, eta horretarako, komenigarria izango da oharrak hartzea edo "aktoreek" kartulina bat edukitzea, bere pertsonaiaren ezaugarri garrantzitsuenekin. Pertsonaia guztiak aurkeztu ondoren, irakasleak gelaren aurrean ondoko egoera azalduko du: hamar pertsona doaz itsasontzi batean, eta gehiegizko pisuagatik itsasontzia hondoratzen hasi da. Pertsonaia horietako lauk uretara salto egin beharko dute, besteak salba daitezzen.

Nork eta zergatik egin behar duen salto adierazi beharko dute bigarren taldekoek. Pertsonaia bakoitzaren alde edo kontra azalduetako argudioak arbelean idatziko dira. Aktoreek arrazoiak eman ditzakete itsasontzian geratu ahal izateko, eta halaber, salto egin beharra besteen ardura izan dadin. Eztabaida honetarako 30-40 minutu erabiliko dira. Azken minutuetan, erabilitako argudioen bidez, hil behar dutenen eta geratuko direnen inguruko gogoeta bat egingo da.

Azkenean argi geratu beharko du heriotzaren aurrean nahiz bizitzako egoera guztien aurrean ezin dela desberdintasunik egin honako arrazoi hauengatik: sexua, arraza, erlijioa, adina, ekonomi egoera, etabarrengatik. Oinarri bezala Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala erabil daiteke. (Zein artikuluk bortxatzen dituzte argudio hauek?)

Erabil daitezkeen pertsonaiak:

- Umea
- Arlotea
- Homosexuala (emakumea nahiz gizona)
- HIESa duen gaixo bat
- Polizia
- Ijitoa
- Sendagile edo erizaina
- Toxikomanoa
- Lapurra
- Elbarria
- Arrazista
- Itsasontziko kapitaina

Elkarbizitza

Arloa	Etika. Erljioa edo alternatiboa. Tutoretza
Maila	DBH
Helburua	Taldearen elkarbizitzan gerta daitezkeen arazoez jabetzea
Zehar-lerroa	Elkarbizitza
Materialak	Talde bakoitzari emango zaizkion rolen txartelak
Iraupena	Ordu bat

Gela lau edo bost ikaslek osatutako taldetan banatuko da. Talde bakoitzari egoera berdina azaltzen duten txartelak emango zaizkio, eta egoera hori konpontzeko bost minutu izango dute. Hamar minututan, gela osoaren artean, arazo hori konpontzeko estrategia bat pentsatu beharko dute elkarrekin. Adostasuna lortu eta gero, beste egoera bat azaltzen duen fitxa emango zaie.

Ikaslearentzat:

Txarteletan ager daitezkeen argudioak.

1. Irakasleak igeltsu zati bat ikusi du gelaren alde batetik bestera zihoala. Ume bati errieta egin dio. Normalean horrelako gauzak bihurrienak egin ohi ditu, baina oraingoan ez da bera izan. Beste gelako ikaskideek...
2. Mutiko talde bat zuen gelako neska baten zain egoten da egunero klase bukaeran, batean koadernoak kentzeko, hurrengoan euritakoa, eta horrela egunero. Zuek...
3. Zuen gelara Mohamed izeneko lagun berri bat etorri da. Ez du oso ondo ulertzen ez gaztelera eta ez euskara ere, eta ikasketetan egunean jartzea izugarri kostatzen zaio.
4. Jonek ezin du zuekin baratzerara jaitsi, gurpildun aulkian etorri behar izaten baitu klasera, eta ezin du laguntzarik gabe eskailerarik igo, ezta jaitsi ere.
5. Ondoko gelan gaizki ulertze bat izan da. Luisek uste du Ikerrek lapurtu diola matematikako liburua. Ikerrek dio bera ez dela izan, eta Luisekin elkartzekoa da irteeran, arazoa borroka baten bidez konpontzeko. Bakoitzak bere lagunak eraman ditzake. Zurrumurrua gela guztietan zabaldu da, baina irakasleek ez dute ezertxo ere jakin.
6. Gelakide batek matematikako azken azterketa lortu du. Lagun guztiei eman beharrean, saldu egin du, eta gutxi batzuek dituzte kopiak, bere lagunak batez ere. Zuk derrigorrez gainditu behar duzu. Zer egingo duzu?
7. Ikastetxera HIESa duen ume bat etorri da. HIESa zein egoeratan kutsatzen den jakiteko ikastaro bat eman dizute, baina ume batzuek, neurriak hartu arren, ez dute harekin jolastu nahi, kutsatzeko beldurra dutelako.

GKEak

Arloa	Erljioa edo alternatiboa. Etika
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Aipatzen diren erakunde eta GKEak zertan egiten duten lan bereiztea
Zehar-lerroa	Garapenerako Hezkuntza: Solidaritatea
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	30 minutu

Burututako ekintza eta dagokion elkarte edo erakundea lotzea da helburua. GKEen erakunde eta elkarten zerrenda bat ematen da lehenik, eta horren ondoan beste bat, lantzen duten Giza Eskubideen arloena.

Ikaslearentzat:

Erakundeen zerrenda**Burutzen duten lana**

EMAKUNDE • a	1 • Errefuxiatuei laguntzea
ARARTEKOA • b	2 • Munduko elikadura
AMNESTY INTERNATIONAL • c	3 • Ingurugiroa
MUGARIK GABEKO MEDIKUAK • d	4 • Gizaldekoko laguntza
MEDICUS MUNDI • e	5 • Arrazismoaren kontra
MANOS UNIDAS • f	6 • Euskadin dagoen indarkeriaren aurka
CARITAS • g	7 • Emakumeen berdintasuna
MUGARIK GABE • h	8 • Garapenerako laguntza
HEGOA • i	9 • Gizaldekoko laguntza
GREENPEACE • j	10 • Umeentzako laguntza eta babesa
INTERMON • k	11 • Munduko osasuna
UNICEF • l	12 • HIESdun gaixoei laguntzea
GURUTZE GORRIA • m	13 • Drogazaletasunaren aurkako laguntza
OMS • n	14 • Giza Eskubideen alde
NBE • o	15 • Gizaldekoko laguntza
GIZAKIA HELBURU • p	16 • Garapenerako kooperazioa
GESTO POR LA PAZ • q	17 • Baztertuen alde eta pobreziaren aurka laguntzea
ACNUR • r	18 • Itsuei laguntzea
FAO • s	19 • Garapenerako laguntza
MEDICOS DEL MUNDO • t	20 • Munduko kultur ondasunak
SOS ARRAZAKERIA • u	21 • Errefuxiatuak, gudan zaurituak, pobrezia
ONCE • v	22 • Garapenerako kooperazioa
UNESCO • x	23 • Munduko bakea mantentzearen alde
COMISION ANTI-SIDA • y	24 • Giza Eskubideak gure gizartean
OIT • z	25 • Langileen eskubideen alde

Galderak:

- Ba al dakizu erakunde hauen guztien artean zeintzuk diren gobernuetik independenteak eta zeintzuk ez? Gobernuetik independenteak diren erakundeei gobernu kanpokoak esaten zaie, GKE, eta herrialde ezberdineko gobernuekin izenpetutako akordioez sortutako nazioarteko erakundeei gobernuarteko erakundeak deritzaie, GAE.
- Seguraski, hemen aipatu ez dugun erakunderen bat ezagutuko duzu. Aipa ezazu eta esan Giza Eskubideen zein arlotan egiten duen lan eta GKE bat edo GAE bat den.
- Ba al zenekien giza eskubideen alde lanean dabiltzan hainbeste erakunde zegoenik? Hala ere, eremu handia denez gero, pertsona askoren eskubideak bortxatzen dira era askotara, eta horregatik, erakunde hauetako bakoitzak giza eskubideen arlo zehatz bat jorratzen du. Adieraz ezazu lehen aipatu gabeko giza eskubideen lan-arloren bat.
- Gogoeta egin ezazu gehien interesatu zaizun erakundeari edo gehien ezagutzen duzunari buruz. Garrantzitsua iruditzen al zaizu horien eginkizuna?

Erantzuna:

(A7,B24,C14,D4,E15,F8,G17,H22,I16,J3,K19,L10,M21,N11,O23,P13,Q6,R1,S2,T9,U5,V18,X20,Y12,Z25)

Aurpegi unibertsala

Arloa	Plastika eta Ikus-hezkuntza. Etika
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Intolerantziari buruzko gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Arrazismoa
Materialak	Argazkiak, egunkaria, guraizeak, kola, kartulinak...
Iraupena	Ordu bat

Ariketa hau burutzeko, beharrezkoa da aurreko astean horretarako materiala biltzea. Ikasleek argazkiak jasoko dituzte aldizkari eta egunkarietatik. Argazki horiek erretratoak (kultura maila desberdineko edo gizarte maila desberdineko jendea) edo bazterkeriazko egoera desberdinak (droga, gosea, guda, arloak) nahiz ekintza sozialak (harrerak, inaugurazioak, festak, ezkontzak...) iruditartuko dituzte.

Berez, collage bat egin nahi da. Lau edo bost ikaslez osatutako taldetan banatuko da gela.

Talde bakoitzak bost argazki eta/edo hiru egoera izan beharko ditu gutxienez. Mozten hasi baino lehen, pertsonaia bakoitza pixka bat ezagutu beharko dute: pertsonaia mota, bere ezaugarriak: historia, bere aurpegian ikusten diren kezak, sentimenduak... Zergatik dago egoera horretan?

Gogoeta guztiak idatziz egingo dira.

Gero, argazki bakoitzetik begiak, ahoa eta ilea moztuko dituzte. Hori egin ondoren, dagozkien kartulinetan zenbait aurpegi sortuko dituzte. Aurpegiak beste batzuen aurpegikera ezberdinak izan beharko dituzte.

Egoera desberdinekin egindako collage bat litzateke, eta egoera berri bakoitza, beste egoera batzuetatik hartutako soslaietz egingo da.

Collagea bukatzean, ikasleek pertsonaia berrien inguruko historia bat asmatu beharko dute. Izen bat, nazionalitate bat eta ogibide bat emango diete. Kartulinetan hitzerdiko marrazkiak egin daitezke.

Ariketaren zati honek agian klaseko hiru ordu laurden beharko ditu.

Azkeneko hamar minutuak hurrengo galderari erantzuteko erabiliko dira (gelan denon artean erantzuteko galderak).

Ikaslearentzat:

1. Asmatu dituzuen pertsonaiak errealitatean existitu daitezkeela uste al duzu? Zergatik?
2. Zein uste duzu izango direla zoriotsuagoak, pertsonaia errealak, argazkietan lortutakoa edo asmatutakoak?
3. Pertsonaia erreal batek jasan al du inoiz nolabaiteko bazterkeria edo giza eskubideen aurkako bortxakeriazko egoeraren bat? Zergatik? Nola lagundu zenezake?
4. Sortutako pertsonaiak izango al du arazorik bizitza errealean? Arrazakeria kutsuko indarkeriarik jasango al luke, edo lana aurkitzeko arazorik izango al luke?
5. Zein jarrera izan beharko luke gure gizarteak pertsona guztiak berdin tratatzeko?

Non dago Ekialdeko Timor?

Arloa	Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Oso ezagunak ez diren herrietara lehen hurbilketa bat egitea
Zehar-lerroa	Bakea. Garapenerako Hezkuntza. Giza eskubideak
Materialak	Testuak. Munduko atlasa
Iraupena	Bi ordu

Nola egin:

Ariketa honen helburua zenbait herriren egoera ezagutarazi, eta hedabideetan inoiz agertzen ez diren herriekin lehenengo kontaktua bultzatzea da. Azken aldi honetan Amnesty Internazionalak egindako txostenak oso erabilgarriak izango lirarteke ariketa burutzeko. Beharrezkoa izango da, halaber, atlasa eta Peters munduko mapa.

Irakasleak testu hau emango die ikasleei:

«...Ekialdeko Timorren egindako sarraskiek ez daukate baliozkotasunik, guztiz alderantziz baizik. Gure bezero indonesiarrek burutu zituen, eta beraz, Estatu Batuek zerbait egin zezaketen sarraski haiek murriztu edo bukatzearen. Baina, Indonesiak egindako inbasioan parte hartzeak lagun fidela haserraraz zezakeen, eta Estatu Batuen benetako rola agerian utz zezakeen, triskantzarako laguntza militarra eta sustenguz diplomatikoa ematen baitzion Indonesiari.

Hitz batean esanda, Ekialdeko Timorri buruzko berriak ez ziren erabilgarriak izango, eta egia esan, etxeko talde boteretsuak harriturik geldituko ziren. Gauzak horrela, hedabideak -eta baita intelektualak ere- laguntza beste leku batera bideratu zuten: Kanbodiara eta ez Timorrera.»

Noam CHOMSKY & Edward S. HERMAN;
Los guardianes de la libertad. Grijalbo, 1990.

Ikaslearentzat:

1. Irakasleak hiruko taldetan bilduko dira eta hurrengo herrietatik ahalik eta gehienak bilatzen saiatuko dira atlasean. Tadjikistan, Ekialdeko Timor, Papua Ginea Berria, Togoko Errepublika, Maldivak, Barbados, Belize, Beningo Herri Errepublika, Buthango Erresuma, Txadoko Errepublika, Komoreak, Arabiar Emirerri Batuak, Eritrea, Gambiako Errepublika, Ginea Bissauko Errepublika, Guyanako Errepublika Kooperatiboa, Kazakhstan, Kirgizistan, Laosko Herri Errepublika Demokratikoa (lehen Ipar Korea), Lesothoko Erresuma, Liberiako Errepublika, Kaiman Irlak, Mazedonia, Malawiko Errepublika, Maliko Errepublika, Maurizio, Mauritaniako Islamiar Errepublika, Moldavia, Myanmako Batasuna/Birmania, Qatar, Saint Vicent eta Grenadinak, Sri Lankako Errepublika Sozialista Demokratikoa, Swazilandiako Erresuma, Trinidad eta Tobagoko Errepublika, Turkmenistan, Uzbekistan, Yemengo Errepublika, Djibutiko Errepublika, Zambiano Errepublika, Zimbabweko Errepublika... (Agian zerrendan agertzen diren herri asko erabat ezezagunak dira. Irakasleak aukera ditzake horien artetik ezagunenak, betiere taldearen arabera).
2. Herriak talde guztien artean banatuko dira.
Ikasleek herri horiei buruzko informazioa lortu beharko dute: errejimen politikoa, ekonomi egoera, ideologia edota erlijio nagusia, populazioa, hizkuntzak, historiari buruzko zerbait (esate baterako, noren menpeko kolonia izan zen), Giza Eskubideen egungo egoera...
3. Zergatik ematen dizkigute egunkarietan herri jakin batzuei buruzko berriak, eta ez digute beste batzuei buruz ezertxo ere esaten?
4. Talde bakoitzak bildutako informazio guztia laburbildu egingo du.
5. Talde bakoitzeko aurkezpenaren ondoren, halako debate bat egin daiteke ikasleek beren artean eztabaida dezaten. Zergatik ezagutzen ditugu herri batzuk eta beste batzuk ez?

Zer dago gaur bazkaltzeko?

Arloa	Matematika
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa
Helburua	Kontsumitzen ditugun gauzen balioari buruzko gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Garapena
Materialak	Ondorengo testua
Iraupena	Bi ordu

Nola egin:

Ikasleak bikoteka edo hirukoteka jarriko dira, eta egun baterako menu osoa prestatuko dute.

Elikagai bakoitzaren jatorria azalduko dute, eta ordaindu behar izan duten salneurria galdetuko dute. Gero beste balizko salneurri bat kalkulatzeko saiatuko dira. Ekoizleek hilabetero 100.000 pezetako soldata jasoko balute, zein izango litzateke kontsumitzen diren gauzen balioa? Hilabeteko soldata 100.000 pezetakoa bada, orduko zenbat irabaziko luke ekoizleak? Kalkulatu egin beharko dute, halaber, zenbat denbora behar duten kopuru jakin bat ekoizteko.

Adibidez, gosariaren ehun gramo kakao horiek Ertafrikatik datoz. Ekoizlearen hilabeteko soldata 100.000 pta.koa balitz, æbenetan hogeita hamar aldiz gutxiago daæ eta urtero 500 kg. ekoiztuko balira nekazari bakoitzeko, ekoizle batek zenbat irabazi beharko luke?

500 kg zati 12 hilabete = 41,6 kg. hilabeteko, eta hilabeteko 100.000 pta. Ondorioz, 100 gramo bakoitzeko 240 pta. atera beharko luke. Hau guztia, bitartekariak garraioagatik eta enpaktadoreek eta beste bitartekariak ere bere lanaren truke irabaziko luketen dirua kontuan hartu gabe.

Benetan gertatzen dena zera da: bitartekariak produktu guztien prezioa 30 aldiz biderkatzen dutela.

Kalkulu hauek gutxi gorabeherakoak dira, jakina. Gero, hori guztia munduan benetan horrela gertatzen ote den eztabaidatuko da.

Zer da *bidezko merkataritza* kontzeptua? Ezagutzen duzu bidezko merkataritzaren alde egiten duen dendarik?

Irakaslearentzat:

Irakasleren batek agian ez du bidezko merkataritzari buruz gauza handiegirik entzun. Gure definizioa ematen saiatuko gara.

Egun salerosketarako darabilgun sistema honek, hots, merkatuak, ariketa honetan ikusten den bezala, ekoizten diren gauzen etekina *modu batera* banatzen du. Gehienetan, garraiolari eta beste artekariak baino askoz etekin txikiagoa lortzen dute ekoizleak bere lanarekin. Bidezkoa den merkataritzaren helburua gauzen etekina *beste modu batera* banatzea da, etekina handiagoa izan dadin ekoizleentzat. Gure hirietan dauden bidezko merkataritzako dendetan eta GKE batzuek noizean behin antolatzen dituztenetan, ohiko salneurriak baino altuagoak agertzen dira gehienetan. Suposatzen da salneurri altu horiek ekoizleen lana behar bezala ordaintzeko ipintzen direla, baina jende askok kritikatu egin ditu denda hauek elkartasunaren aitzakiaz negozio arruntak egiten direla esanez.

Galdetu ikasleei ea zer uste duten. Horrelako dendaren bat edo GKEn bat ezagutzen badute, informazioa eska liteke.

Jokatzeke bi modu

Arloa	Gorputz hezkuntza
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Elkarrekiko lana bultzatzea
Zehar-lerroa	Solidaritatea
Materialak	Baloi bat
Iraupena	Ordu bat

HELBURUA: Lan-taldetan elkarlana ondo antolatzeak duen garrantzia frogatzea.

BEHARREZKOAK DIREN BITARTEKOAK: Taldeka egiten diren kiroltan beharrezkoak direnak. Talde-kirol gehienetan (futbola, saskibaloia...) baloi bat erabiltzen da; beraz, baloia, kirol arropa, kirola egiteko aretoa, eta abar.

DENBORA: Eskoletan egiten den saio bat hiru zatitan banatuko da. Lehenengo bi zatietan kirolean arituko dira ondoren azalduko dugun bi moduetan, eta azkeneko zatian, berriz, hitz egingo dugu, ondorioak aterako dira.

Nola egin:

Taldeka jokatzen den edozein kirol erabil daiteke ariketa honetarako: futbola, saskibaloia, hokkeya, eskubaloia... Kontua da ikasleak bi multzotan banatzea, eta neskak eta mutilak kopuru berdintsuan egongo dira banaturik.

Bi ikaskide-talde horiek elkarren kontra jolastuko dira, baina bakoitzak modu batean jokatuko du.

Lehenengo zatian, talde batekoek *elkarri lagunduz* jokatuko dute beste taldearen kontra, baina beste taldekoek, bakarka, *modu berekoian* eta elkarri lagundu gabe jokatuko dute.

Beraz, ikasleak bi taldetan ipini behar dira elkarren kontra lehiatzeko, eta talde batekoek elkarri lagunduz jokatu behar duten bitartean, beste taldekoek elkarri lagundu gabe jokatuko dute, norberak baloia lortzen duenean ahalik eta ondoen jokatuz, baina taldekideei pasatu gabe, beste erremediorik izan ezean bederen.

Bigarren zatian, bi taldeek jokatzeke modua trukatu dute, talde bakoitzak jokatzeke bi moduak ikus ditzan.

Irakasleak horrelako galderak egingo ditu:

- Zein talde izan da eraginkorragoa? Noiz?
- Zein da ikasleen iritzia modu batean eta bestean jokatu eta gero? Nola sentitu dira?
- Beste taldekoek noiz jokatu dute hobeto, lehen zatian ala bigarrean? Zergatik?
- Modu batean eta bestean jokatzeke alde onak eta txarrak komentatu.
- Bestelako ondorioak.

	A taldea	B taldea
Lehenengo zatia, 20 minutu	Modu berekoian jokatu.	Elkarri laguntzen jokatu.
Bigarren zatia, 20 minutu	Elkarri laguntzen jokatu.	Modu berekoian jokatu.
Hirugarren zatia, 10 minutu	Ondorioak	Ondorioak

Giza eskubideak ordenatzen

Arloa	Etika. Lehenengo hizkuntza. Bigarren hizkuntza
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalari buruzko lehen hurbilketa
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak oro har
Materialak	Ondoren doazen fitxak (fotokopiatu eta moztu)
Iraupena	Ordu bat

HELBURUA: 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko artikuluei buruzko lehen hurbilketa egitea. Baita artikuluei horiek modu errazago batean berridazten ikastea ere.

Nola egin:

- 1) Ikasleei artikuluekin batera datozen fitxak banatuko zaizkie. Ikasle bakoitzak fitxa guztiak eskuratu beharko ditu, eta beraz, artikuluei guztiak bere esku egon beharko dute. Fitxa bakoitzean artikulua bana izango dute. Ikasle bakoitzak, bakarkako lanean, fitxak eta artikuluek garrantzi gehien dutenetatik gutxien dutenetara sailkatu beharko ditu. (Sei minututan).
- Aldez aurretik, artikuluek modu errazagoan berridaztea eska dakieke ikasleei. Bakarka edo bikoteka. Iradokizun bezala, ikasleei esan diezaiekegu artikuluei bakoitzean hitzik garrantzitsuenak azpimarra ditzatela.
- 2) Ikasleak talde txikitik elkartuko dira (bikoteka edo hirukoteka). Lan-talde horietan eztabaidatu egingo dute ea zergatik egin duen bakoitzak egin duen sailkapena. Sailkapen berri bat antolatu beharko du lan-taldeak. (Hamabi minutu).
- 3) Bi talde handi egingo dira lan-talde txikiak elkartuta. Beste sailkapen bat egin beharko da. (Hamar minutu).
- 4) Bukatzeko, irakasleak moderatzaile lanak egingo ditu. Sailkapenei buruzko beste eztabaida bat sortuko da, benetako sailkapenak zein izan beharko lukeen erabakitzeko. Artikuluen benetako zenbakiak ezagutuko dira, baita Aldarrikapen Unibertsalaren hitzaurrea ere.

[Artikuluen zenbakiak ez dute beren garrantziaren inolako ordenik adierazten, jakina].

Nola motibatu:

Ikasleei UNOko batzorde batekoak direla esan diezaiekegu, eta egingo duten sailkapenak sekulako eragina izango duela munduan, zeren eta herrialde batzuetako agintariak gero esango baitute ezin dituztela Giza eskubideak bete eta garrantzitsuenak bakarrik beteko dituztela.

Nagusikeria

Arloa	Etika. Lehenengo hizkuntza. Bigarren hizkuntza
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Jokaera etikoei buruzko hausnarketak
Zehar-lerroa	Solidaritatea
Materialak	Arbela. (kopiatu ondorengo laukia)
Iraupena	Ordu bat

Ondoren proposatzen dugun jokoan ikasleei kontraesanak sortuko zaizkie beren printzipio etiko eta beren gurarien artean. Beren printzipioek nagusikeriaren kontra borrokatzea eskatuko diete, baina kartzelan ahalik eta urte gutxien egon nahi izango dute.

NOLA EGIN:

Rol-jokoa. Ikasleak bi taldetan banatuko dira. (Taldea batean mutilak eta bestean neskak ipin daitezke). Irakasleak TIRANOArene egingo du, hots, bere rola TIRANOA izatea izango da. Bi taldeetako partaideei, tiranoaren kontra borrokatzen duten bi oposizio taldekoak direla esango zaie. Talde biak tiranoaren aurkako borrokan dabilta, baina ez dira elkarrekin oso ondo konpontzen.

Tiranoak oposizioko bi taldekide harrapatu ditu. Bi taldeetako partaide guztiak, beraz, preso daude.

Tiranoari, -nazioarteko bere irudi ona gordetzearren- komeni zaio bi taldeetakoek beren buruak salatzea. Bi taldeetakoek, ordea, munduaren aurrean errugabe agertzea komeni zaie.

- Bi taldeko partaideek traizioagatik errugabe direla aitortzen badute, tiranoak eskuzabal jokatuko du. Espetxean bi urte besterik ez dute egon beharko.
- Taldeetariko batek bere burua errudun bezala agertzen badu, baina bestea errugabe agertzen bada, tiranoak aitormenak nahastu eta bere burua salatu duen taldea libre geratuko da, eta bestea, hamar urterako kartzelan sartuko dute.
- Biek onartzen badute errudun direla, guztiak sei urtez egon beharko dute kartzelan.

Tiranoaren helburua bi taldekoak errudun agertzea da. Baina bi taldeetako partaideek errugabe agertu nahi dute eta kartzelan ahalik eta urte gutxien egon. Bi taldekoek nahi dute beste taldekoak bere burua errugabe ager dezala.

Talde biek beren burua errugabe agertzeko, erabateko elkertasuna behar da.

- Ondorengo laukia arbelean kopiatu. (Edo fotokopietan banatu).

	A taldearen zigorra	B taldearen zigorra
Baldin eta bi taldeetakoek ERRUDUNTZAT jotzen badute beren burua.	2 urte	2 urte
Baldin eta bi taldeetakoek ERRUGABETZAT jotzen badute beren burua.	6 urte	6 urte
A taldekoek errudun direla aitortuz gero, eta B taldekoek, ordea, beren burua errugabe agertzen badute.	Aske geratuko lirateke	10 urte
B taldekoek errudun direla aitortuz gero, eta A taldekoek, ordea, beren burua errugabe agertzen badute.	10 urte	Aske geratuko lirateke

- 1) Hasieran tiranoak bi taldeak bakartu egingo ditu. Paper banatan jasoko du haien aitormena. Bi taldeetako ikasleek bi minutu izango dituzte irakasleari, tiranoari, aitormen bat emateko, eta bertan errudun edo errugabe diren aitortuko dute.

[Tiranoak maltzur jokatu du: bi taldeetako beste taldekoak bere burua erruduntzat jo duela esango die, baina argi gera dadila tiranoak gezurra ere esan dezakeela].

- 2) Tiranoak taldekoen aitormena jasoko du berriro, baina oraingoan taldekoen artean gutun bana igortzea onartuko da. Gutun horietan beste taldekoei errugabe agertzea eskatuko zaie. Guztiei interesatzen zaie tiranoaren aurrean errugabe agertzea.
- 3) Talde bakoitzak bozkatu egingo du zer aitormen egin erabakitzeko. Bozketaren ostean tiranoari paper bana emango zaio, errudun edo errugabe diren aitortuz.
- 4) Gutuna igorri eta gero, azkeneko papera emango zaio tiranoari. Balioa duen bakarra azkeneko papera izango da. Suposatzen da balio ofiziala duen paper bakarra azkenekoa izango dela, nazioarteko begiraleak egongo baitira papera jasotzerakoan.

Taldekideek ez dute benetan inoiz jakingo beste taldekoek nolako aitormenak egiten dituzten. Tiranoari galdetuz gero, honek besteek beti erruduntzat agertzen direla esango die.

Tiranoak taldeak elkarren kontra jokatzeari nahi du. Esango die, baldin eta ikasleek ondo ulertzen badute jokoa, hobe dela errudun agertzea...

Ondorioak:

Normalean tiranoak bere helburua lortzen du; hau da, bi taldeetako partaideek azkenean errudunak direla aitortzen dute. Zergatik? Bada, elkarrekin haserretzen direlako. Ez dute beste taldekoak baino inozoago agertu nahi izaten. Nor da errudun? Zergatik irabazten du tiranoak?

Ariketa honen xedea, zera ikustea da: batzuetan printzipio etiko eta beste gurari batzuen artean aukeratu behar izaten dela, eta gehienetan, norberaren erabakiek besteengan ere eragina izaten dutela.

Garapena. Hiztegia

Arloa	Ekonomia. Historia garaikidea
Maila	Batxilergoa
Helburua	Garapeneko oinarritzko hitzen hasierako ezagutza lortzea
Zehar-lerroa	Garapenerako Hezkuntza
Materialak	Laukia (Hitz batzuk eta hitzen definizioak). Hiztegiak. Entziklopediak
Iraupena	30 minutu

Nola egin:

Bi modutan egin daitezke, ikasleei hitz zerrenda eman dakieke haiek definizioak osatzeko edo hitzak eta definizioak, haiek loturak bilatzeko.

Bigarren bide hau aukeratuz gero, ikasleei ondorengo laukia emango zaie, edo antzeko bat, eta hitzak eta haien definizioak lotu beharko dituzte. [Irakasleak definizioetan ortografia akatsak-eta tarteka ditzake. Horrela bi ariketa batean egin daitezke].

Ikasleentzako laukia:

Hitzak	Lotu hitzak eta definizioak (geziez)	Definizioak
1. Baldintzatutako garapenerako laguntza		Herri baten hobekuntza koalatiboa arlo guztietan, (elikadura, osasuna, hezkuntza, zerbitzuak...), bertako herritarren bizitza-kalitatearen hobekuntza, baina ingurugiroa gero eta gehiago kaltetu gabe edo beste herriekin zorretan egon gabe.
2. Kolonialismoa		Ekonomia jakin baten eta bere funtzionamenduaren hobekuntza koalatibo eta egonkorra (industrializazioa, errenta nazionalaren maila, inbertsioak, etab.). (Elhuyar)
3. Garapena		Txirotasuna. Beharrezkoak diren ondasunen urritasuna.
4. Garapen ekonomikoa		Atzerriko estatu batek lurralde bat menperatzea, politikoki gobernatzea eta ekonomikoki ustiatzea bidezkotzat jotzen duen doktrina. (Elhuyar)
5. Garapen iraunkorra (desarrollo sostenible)		Bere beharrak bere ekoizpen ahalmen soilaz, atzerrira jo beharrik gabe, betetzen dituen herri edo estatuaren egoera.
6. Independentzia politikoa		Herri batek ## dauka, bere legeak egiteko eta betearazteko ahalmena daukanean.
7. Independentzia ekonomikoa		Herri baten hobekuntza arlo guztietan, (elikadura, osasuna, hezkuntza, zerbitzuak...), bertako herritarren bizitza-kalitatearen hobekuntza.
8. Autarkia		Askotan herri aberatsek laguntza ekonomikoa eskaintzen diete beste herri batzuei, baina laguntza hori modu jakin batean erabiltzeko exijituz. Laguntza horri ## deitzen zaio.
9. Pobrezia		Bere jarrera politikoa dela eta, espetxean sartu duten pertsona.
10. Kontzientzia-presoa		Bere ideiak defenditzeagatik kartzelan sartu duten pertsona. Indarkeria erabili gabe edo bultzatu gabe jokatu behar ## bezala nazioarteko erakundeek onartzeko.
11. Preso politikoa		Herri batek ## dauka, bere harreman ekonomikoa (barneko ekonomia eta beste herriekikoa) nahi duen modura antolatzeko ahalmena daukanean.

Irakaslearentzako laukia:

Hitzak	Loturak	Definizioak
1. Baldintzatutako garapenerako laguntza		1. Askotan herri aberatsek laguntza ekonomikoa eskaintzen diete beste herri batzuei, baina laguntza hori modu jakin batean erabiltzeko exijituz. Laguntza horri ## deitzen zaio.
2. Kolonialismoa		2. Atzerriko estatu batek lurralde bat menperatzea, politikoki gobernatzea eta ekonomikoki ustiatzea bidezkatat jotzen duen doktrina. (Elhuyar)
3. Garapena		3. Herri baten hobekuntza arlo guztietan, (elikadura, osasuna, hezkuntza, zerbitzuak...), bertako herritarren bizitza-kalitatearen hobekuntza.
4. Garapen ekonomikoa		4. Ekonomia jakin baten eta bere funtzionamenduaren hobekuntza koalatibo eta egonkorra (industrializazioa, errenta nazionalaren maila, inbertsioak, etab.). (Elhuyar)
5. Garapen iraunkorra (desarrollo sostenible)		5. Herri baten hobekuntza koalatiboa arlo guztietan, (elikadura, osasuna, hezkuntza, zerbitzuak...), bertako herritarren bizitza-kalitatearen hobekuntza, baina ingurugiroa gero eta gehiago kaltetu gabe edo beste herriekin zorretan egon gabe.
6. Independentzia politikoa		6. Herri batek ## dauka, bere legeak egiteko eta betearazteko ahalmena daukanean.
7. Independentzia ekonomikoa		7. Herri batek ## dauka, bere harreman ekonomikoak (barneko ekonomi antolaketa eta beste herriekikoa) nahi duen modura antolatzeke ahalmena daukanean.
8. Autarkia		8. Bere beharrak bere ekoizpen ahalmen soilaz, atzerrira jo beharrik gabe, betetzen dituen herri edo estatuaren egoera.
9. Pobrezia		9. Txirotasuna. Beharrezkoak diren ondasunen urritasuna.
10. Kontzientzia-presoa		10. Bere ideiak defenditzeagatik kartzelan sartu duten pertsona. Indarkeria erabili gabe edo bultzatu gabe jokatu behar ## bezala nazioarteko erakundeek onartzeko.
11. Preso politikoa		11. Bere jarrera politikoa dela eta, espetxean sartu duten pertsona.

Psikologia

Arloa	Etika. Gizarte zientziak, Geografia eta Historia. Bigarren hizkuntza
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa
Helburua	Giza-jokaerei buruzko hausnarketak
Zehar-lerroa	Bakea
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	30 minutu

Nola egin:

Ondorengo testua irakurriko da:

Ikasleentzako testua:

«Munduko bigarren gerraren ostean, psikologo iparramerikar batek erabaki zuen ikertzea ea zergatik egin zituzten alemaniarrek oinarrizko eskubideen erabateko zapalkuntzak. Alemaniar askok esan zuten agidutakoa betetzen ari zirela besterik gabe, bere burua zuritzeko.

Alemaniarrek agindutakoa zorrotzegi betetzea izan al zen astakeria horien guztien iturria? Oinarrizko printzipio etikoen kontrako aginduak betetzeko, alemaniarrek ba al zeukaten ezer berezirik?

Iparamerikako psikologo hark esperimentu edo entseiu mota bat asmatu zuen, eta Alemanian baino lehenago, bere herrialdean bertan egitea erabaki zuen, hain zuzen ere, bere Unibertsitatean.

Horretarako, ikasle batzuek berarekin lan egitea lortu zuen psikologo hark. Ikasleek psikologoarekin batera lan egiten zuten, baina esperimentuaren bidez ez zituen ikasleak neurtu, bertako irakasleak baizik. Psikologo hark unibertsitateko irakasle batzuei esan zien ikasketa

prozesua ari zela ikertzen, eta bereziki, prozesu horretan zigorrak zuten eragina.

Unibertsitateko irakasleen aurrean bere ikasle-laguntzaileei galdera batzuk egin zituzten psikologoak, eta irakasleek, ikasleek huts egiten zutenean, elektroshock baten bidez zigortu behar zituzten. Ikasleek ez zuten benetan argindarraren eragina pairatzen, baina horren itxurak egiten zituzten, oihuak-eta eginez.

Gainera, irakasleei adierazi zieten argindarraren intentsitatea geroz eta handiagoa izango zela, eta azkenean arrisku handiko mugaraino iritsiko zirela (ikasleek kalteren bat jasan zezaketen).

Esperimentuaren emaitza zera izan zen: irakasle askok gogo onez hartu zuten parte. Zigorrak gero eta gogorragoak ematen zituztela sinetsi zuten, eta irakasle asko arrisku-mugaraino iritsi ziren.

Saiakera bera munduko herrialde askotan egin zen. Emaitzak antzekoak izan ziren».

Galderak:

(Lehenengo talde txikitan, eta gero handiagoetan eztabaida daiteke). Eta amaitzeko, guztien artean, irakaslearekin batera, komenta dezakezue .

- Posible al da pertsona batek beste bati argindarraren bidez zigorrak ematea? Nola liteke?
- Zuek onartuko al zenukete egoera jakin batean horrelako zigorrak ematea? Ez al zenukete unibertsitateko irakasle horiek bezala jokatu? Inolaz ere ez?
- Irakasle bat entseiu zientifiko batean parte hartu eta horrelako zigorrak emateko gai baldin bada... Agindu militarrei jarraiki, zigor gogorak ezarri zituzten militarrek epaitu egin behar al dira? Eta zigortu? (Gogora dezagun militar horiek agindu horiek bete izan ez balituzte, ondorio latzak jasango zituzketela).
- Nola lor liteke, hogei urte barru, horrelako esperimentu baten emaitza oso bestelakoa izatea?

Demokraziarekin jolasean

Arloa	Etika. Natur zientziak. Gizarte zientziak
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Gutxiengoan eskubideak nola zaindu, gehiengoek erabakitzen badute?
Zehar-lerroa	Bakea. Ingurugiro-hezkuntza
Materialak	Honekin batera doan testua
Iraupena	Ordu bat

Nola egin:

Rol-jokoa. Ikasleak bi taldetan bereiziko dira. Talde batean ikasleen %75a geratuko da, eta bestean %25a. Oinarrizko arazoa zera da: nola desagertarazi gure ingurune hondakin toxikoak. Bi talde horietatik talde txikienekoek kalte larriagoak jasan dituzte, kutsaturiko errekatik hurbilago bizi baitira.

Guztien artean akordioak lortu behar dituzte, kutsadura maila jaitsi dadin:

- Zergak igo: lehenago, guztiek 10 euro ordaintzen zuten hileko. Orain, batez beste 15 euro ordaindu behar izango dute.
- Orain inork ez du auzolanik egiten. Hilero bost pertsona aukeratu beharko dira auzolanak egiteko. Dohainik lan egin beharko dute. Nortzuk? Nortzuk izango dira lehenengoak? Eta etorkizunean nola konponduko da auzia?
- Guztien artean erabaki beharko dute zerga gehiago ordaintzea eta auzolanak egitea, baina talde txikiok interes handiagoa izango dute eta talde handikoak konbentzitzen saiatu beharko dute.
- Ez ahaztu, zerbait erabakitzeko, bozkatu egin behar da lehenik. Erabakiek demokratikoak izan beharko dute beti.

Idatzizko iruzkinaren ostean, mahainguru bat antola daiteke.

* Iruzkina bat idatzi:

«Demokrazia dagoen lekuetan uste da gehiengoak gehienetan zuzen jokatzeko duela, arrazoi duela».

«Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala edozein konstituzioren gainetik dago».

«Naziek zilegitasun osoa zeukaten judutarrei egindakoa egiteko, Hitlerrek hauteskundeetan tranparik gabe irabazi zuelako».

«Edozein herrik, Aldarrikapen horri atxikimendua erakusteko gaitasuna duen bezala, Aldarrikapena kanpotartzat ere jo dezake. Edozein herrik bere legeak edukitzeko eskubidea du, Aldarrikapenari gehiegi begiratu gabe».

«Herri batean demokratikoki hartzen diren erabakien aurka, kanpoko inork ez luke inolako eskubiderik izan beharko; barrukoek demokratikoki erabakitzen dutena kanpokoek beti errespetatu beharko lukete».

«Aldarrikapen Unibertsalarekin herri askotako legeekin bezala gertatzen da: legeak egon badaude, baina inork ezin ditu betearazi».

Mundua ikasgela balitz

Arloa	Matematika. Gizarte zientziak
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Mundua nola dagoen banatuta jakitea
Zehar-lerroa	Garapena
Materialak	Taula
Iraupena	Ordu bat

Nola egin:

Ikasleei hurrengo taula emango zaie. Datuak asmatu egin beharko dituzte.

Binaka edo hirunaka taula osatu beharko dute. Lehenik, eskubiko zutabea osatu beharko dute, eta gero erdikoa, besteari lotua. Bukatzeko, irakasleak benetako datuetan oinarriturik dagoen taula banatuko die.

ZENBAT IKASLE?	30 IKASLEKO IKASGELAN	% MUNDUAN
Biziko lirateke 74 urte		
Biziko lirateke 50 urte baino gutxiago		
Biziko lirateke urtero 600 dolar baino gutxiagoko errenta per capita duen herri batean		
Elikatze txarraren ondorioz ez lukete gorputza behar bezala garatua		
Jasango lukete elikagai gabezia		
Jakingo lukete irakurtzen		
Ez lirateke inoiz eskolara joango		
Goi mailako hezkuntza lortuko lukete		
Etxe sendoetan biziko lirateke		
Edateko ur garbia edukiko lukete eskura		
Erabilgarriak diren lurren % 80a kontrolatuko lukete		
Izango lirateke iparamerikarrak		
Izango lirateke txinatarrak		
Izango lirateke afrikarrak		

Benetako datuetan oinarrituriko taula: IKASGELA MUNDUA BALITZ

ZENBAT IKASLE?	30 IKASLEKO IKASGELAN	% KOPURUA MUNDUAN
Biziko lirateke 74 urte	2	6
Biziko lirateke 50 urte baino gutxiago	9	29
Biziko lirateke urtero 600 dolar baino gutxiagoko errenta per capita duen herri batean	17	55
Eliketa txarraren ondorioz ez lukete gorputza behar bezala garatua	2	7
Jasango lukete elikagai gabezia	10	34
Jakingo lukete irakurtzen	9	30
Ez lirateke inoiz eskolara joango	6	20
Goi mailako hezkuntza lortuko lukete	0	1
Etxe sendoetan biziko lirateke	6	20
Edateko ur garbia edukiko lukete eskura	15	50
Erabilgarriak diren lurren % 80a kontrolatuko lukete	1	3
Izango lirateke ipamerikarrak	2	6
Izango lirateke txinatarrak	7	25
Izango lirateke afrikarrak	3	11

(Sonja Williams-en, «Cómo acabar con el mito del hambre», *Cuadernos de Pedagogía*, 174. zk., 1989ko urria, 84-89. orr.)

Heriotza-zigorra

Arloa	Bigarren hizkuntza
Maila	Bigarren Hezkuntza
Helburua	Heriotza-zigorrari eta oinarritzko giza eskubideei buruzko hausnarketak eragitea
Zehar-lerroa	Solidaritatea
Materialak	Irakasleentzako testuak (ikus beherago)
Iraupena	50'

HELBURUA: Historia heriotza-zigorrak gabe nola izan zitekeen pentsatu. Heriotza-zigorrari eta kartzela-zigorrari buruzko hausnarketa egitera bultzatu.

MATERIALAK: Entziklopediak. Historiako liburuak eta eskuliburuak (Ariketa hau hasi orduko, eskura eduki beharko dituzte). Ariketa egunaren bezperan aurkez daiteke gaia, lagungarri izan daitezkeen liburuak ikasgelara ekar ditzaten ikasleek. Ikastetxeko liburategia ere erabil daiteke ariketa hau egiteko.

Nola motibatu:

Testu bat oinarritzat harturik

Ariketa hau euskaraz egiten bada, «Mort pour la patrie» testua erabil daiteke. Pantxoa eta Peiok badute abesti bat izen horrekin, baina guk aipatu nahi dugun testua, «Mort pour la patrie», Xabier Arzelusek idatzi eta Euskaltzaindiak argitaratu duen *Ipuin Beltzak* liburuan dago.

Bideo bat oinarritzat harturik

Esaterako, *Pena de muerte*. Bideoklubetan erraz lor daiteke gaztelarazko bertsioa. Jatorrizko bertsioa, azpiko itzulpenak gaztelaraz dituen, *Speak Up* bilduman aurki daiteke. Susan Sarandon eta Sean Penn dira aktore nagusiak. Heriotza-zigorraren auzia azaltzen du hainbat ikuspegitik.

Bideoklubetan gaztelaraz erraz lor daiteke *Cadena perpetua* pelikula. Tim Robins eta Morgan Freeman dira bertako aktoreak.

Nola egin:

Idazlan laburra egin behar da, fikzioa eta historia nahastuz: *Zer gertatuko zatekeen baldin eta...*

Ikasleak hiruak ipiniko dira. Hirukote bakoitzak historiako hiru pertsonaia hautatuko ditu. Idazlan batean aukeraturiko pertsonaien gorabeherak azalduko dira, kartzela eta heriotza-zigorrarekin loturiko kontuei arreta berezia emanez. Heriotza-zigorrak gabeko historia asmatu behar da: zergatik zigortu zuten pertsonaia hori edo zergatik zigortzen zuten... Horrelako galderei erantzunez testu bat osatu beharko dute.

Honako pertsonaia hauek erabil daitezke: Sokrates, Seneka, Oscar Wilde, Hitako Artzapeza, Nazaretoko Jesus, apostoluak, Erromako hainbat enperadore, Pierre de Lancre, Torquemada, Galileo Galilei, Copernico, Robespierre, Marat, Rasputin, Trotsky, Cánovas del Castillo (eta bera hil zuena, gero Bergaran heriotza-zigorra pairatu zuena: Angiolillo), Lincoln, Hitler, Stalin, Mao, Deng Xiaoping, Franco, J.F. Kennedy, sutean erretako sorginak, García Lorca, Miguel Hernández, Ché Guevara, Gandhi, Miguel Servet, Thomas Moro, Joana d'Arc, Fray Luis de León, Cervantes, Salman Rushdie, Nelson Mandela, Stephen Biko, Malcolm X, Martin Luther King, Milosevich, ...

Guregandik hurbilago: Etxahun (Barkoxekoa), Iparragirre, Bernat Etchepare, Aitzol, Martin Lekuona, Koldo Mitxelena, Ibarrola, Lauaxeta, Galíndez, ...

Galderak:

Nortzuk izan ziren biktimak? Nortzuk borroeroak? Nor egon zen kartzelan? Zergatik? Nortzuk izan zeren erbesteratuak? Nori ezarri zioten heriotza-zigorra? Nori ezarri zuen heriotza-zigorra? Zein zen borroeroen motibazioa? Nortzuk izan ziren benetako borroeroak? Nori buruz esan daiteke kontzientzia-presoa izan zela? Zer irizpideren arabera¹?

Erabil daitekeen bibliografia:

- Edozein entziklopedia; ez da bakarrik goiko pertsonaiei buruzko artikuluetan begiratu behar. Halaber, azter daitezke heriotza-zigorra, kartzela eta erbestea bezalako sarrerak.

• Euskal testu batzuk datoz ondoren zerrenda batean, eta gai honi buruzko idazlana egiteko lagungarri izan daitezkeela uste dugu.

- Jean HIRIART-URRUTY. *Gontzetarik jalgiaziak*. Euskal Editoreen Elkarte. Klasikoak bilduma 67. (5. kap. «Gillotina») edo (3. kap. «Hil ala bizi»). Euskal kazetaritzaren hastapenak ikusteko. (Euskara maila oso altua eskatzen du edo irakaslearen laguntza handia).

- Malcolm X. *Autobiografia*.

- Gandhi. *Biografia*. Elkar, 1997.

• Goiko urratsetan idazlan monografiko luzeagoak ere egin daitezke: esaterako, *Espaniako Gerra Zibila eta heriotza-zigorra*.

Amnesty Internationalen urteroko txostenak ere erabil daitezke. Erakunde honek heriotza-zigorraren kontra eta presoek eskubideen alde jokatze du mundu osoan zehar.

² Amnesty Internationalek, esate baterako, oso argi dauzka bere irizpideak.

Hizkuntza primitiboak, hizkuntza berriak

Arloa	Euskara
Maila	DBH, Batxilergoa
Helburua	Arrazismoa eta etnozentrismoari buruz hausnarketa egitea. Hizkuntza ezberdinei buruz hausnarketa egitea
Zehar-lerroa	Arrazismoa
Materialak	Emandako testuak
Iraupena	Ordu bat

Nola egin:

Ikasleak binaka jarriko dira, pixka bat eztabaidatu ondoren erantzunak eman ditzaten. Erantzunak laburrak eta zehatzak izango dira. Era berean, astebete lehenago irakasleak galderak egin ditzake, ikasleek ikertu eta hausnartzeko denbora izan dezaten.

Zer egin:

Ikertea lana. E. SAPIRen *The language* liburuan agertzen diren arrazonamenduak bildu. Liburua erraz lor daiteke edozein liburutegitan, baina euskal itzulpenik ez dugu ezagutzen. Liburuak azaltzen du hizkuntza guztiak aberatsak direla beren egituraren aldetik, eta halaber, «hizkuntza primitiboak» eta «hizkuntza garatuagoak» kontzeptuen arteko aldeak ez daukala batere zehaztasun zientifikorik.

Ikertzeko galderak

1. Munduan dauden hizkuntzen artean, batzuk beste batzuk baino zaharragoak dira? Zergatik?
2. Zenbait hizkuntza beste batzuk baino zailagoak dira. Zergatik?
3. Zenbait hizkuntza garatuagoak dira eta beste batzuk, aldiz, primitiboagoak. Hala ote?
4. Erratu dira inoiz hizkuntzalariak etnozentrismoa dela-eta?

Gure erantzunak:

(Dogmak aparte utzi nahi genituzke, baina hauek dira E. Sapir eta beste hizkuntzalari askoren zenbait irizpide.

1. Hizkuntza primitibo edo antigoaleko hizkuntzez eta hizkuntza berriez jardutea, hizkuntzalaritza ez diren zenbait kontzeptu hizkuntzalaritza arlora ekartzea da. Kontzeptu hauek lotuagoak daude hiztunek daukaten teknologia gaitasunarekin, komunikatzeko gaitasunarekin baino. Egia bada ere ingelesa tagaloea baino aberatsagoa dela informatika arloan, tagaloak behar adina hitz sor dezake informatikako kontzeptuak deskribatzeko, bere garaian ingelesak egin zuen moduan. Inuiten hizkuntzak hitz anitz dauka elurra izendatzeko, eta era berean, tuaregen hizkuntzak gameluak beren adin eta sexuaren arabera bereizten ditu. Hainbat hitz izateak hizkuntza horiek beren inguruan ondo moldatu direla esan nahi du bakar-bakarrik. Azken finean, bizirik dauden hizkuntza guztiak jatorrizko gaitasun berbera daukate ingurura moldatzeko.

Hizkuntza guztiak era naturalean aldatzen dira etengabe. Baina hezkuntza, kultur edo erlijio mailako erakundeak ezartzearekin batera kohesio-indarrak ere sor daitezke hizkuntza literarioa sor dadin eta hizkuntzek ez dezaten azkarregi eboluzionatu. Erakunde horiek gabe ezerk ez luke eragotziko hizkuntzek azkar eboluzionatzea. Hizkuntza berbera bi leku ezberdinetan hitz egingo balute, leku horiek elkarrengandik urrun daudelarik, hizkuntza horren bilakaeraren ondorioz bi hizkuntza oso bestelakoak sortuko liriateke bi leku horietan, seguruenik. Latinaren eboluzioak erromantze desberdinak sortu zituen moduan.

Hizkuntzek elkarri eragiten diote.

Adibide moduan, euskara gaztelania baino zaharragoa dela esatea ez da batere zuzena. Egia bada ere orain dela 2.000 urte gaztelania ez zela existitzen eta euskara, ordea, existitzen zela, ziurrenik egungo euskarak Akitaniako hizkuntza zaharrarekin duen lotura gaztelera eta latinaren artean dagoen loturaren antzekoa izango da.

2. Zailtasunari buruz hitz egiterakoan kontuan hartu beharko genuke norentzat den zaila. Gaztelaraz hitz egiten duen bati katalana txinera baino errazagoa irudituko zaio, baina tibetar bati?

Hizkuntzek eboluzionatu egin dute bata bestearen ondoan, elkarren ondoan dauden herrien hizkuntzek egitura edo hiztegi berdina samarra eduki ohi dute, eta ondorioz hizkuntza bat jakinik, bestea ikastea askoz errazagoa da.

Egun, hizkuntzalariak uste dute munduko hizkuntza guztiek ezaugarri asko dauzkatela batean. Estralurtar bati oso zaila egingo litzaioke munduko hizkuntzarik zailena zein den esatea.

3. Hizkuntza garatuaren eta primitiboaren konzeptua etnozentrismoa da. Tximinoak eskorpioiak baino eboluzionatuagoak dira gurekiko antza handiagoa daukatelako. Hondamendi nuklearra izango balitz, eskorpioiek errazago biziraungo lukete, zalantzarik gabe.

Beste argudio mota bat itzulpenetik datorrena da; itzultzea beti da posible, baina argi dago Amazoniako indioen hiztegia gurea baino aberatsagoa dela botanika arloan. Hala ere, horrek ez du esan nahi gaztelaniak gutxiago eboluzionatu duenik. Gaztelaniak Amazonian aurkitutako landare berri bati izena emateko beharrezkoa duen hitza, sortu egin dezake edo maileguz har dezake. Orobat, Amazoniako hizkuntzak sortu edo maileguz har ditzake gure gizartearen erabiltzen ditugun beste hainbat hitz.

4. XX. mende arte ez dute akatsa konpondu.

Arlo honetan, E. Sapiren ekarpenak garrantzitsuak izan dira. Aurreko mendeetan mendebaldeko ustea nahiko etnozentrismoa izan da beti. Kultura ez ezik, mendebaldeko arraza ere gainerakoak baino nagusiago agertu da beti. Horren ondorioz, esklabutza bezalako bidegabekeriak justifikatu dira. Normaltzat hartu zituzten, naturalizat.

What's the difference?

Arloa	Ingelesa
Maila	Bigarren Hezkuntza
Helburua	Gizakien arteko desberdintasun fisikoak azalekoak direla gogoratzea
Zehar-lerroa	Arrazismoa
Materialak	Testua, hutsuneak bete ariketa
Iraupena	30'

Fill in with the correct tense

We have a lot in common: two ears, two eyes, a silly nose and roughly twenty square feet, and seven pounds of skin...

So, what's the difference?

BROWN SKIN?

Brown.....(BE) the colour of melanin, a pigment produced by a kind of cells called melanocytes, which are found a little under the surface of the skin. Everyone

.....(HAVE) the same number of melanocytes, but the amount of melanin they(PRODUCE) varies from person to person. More melanin(MEAN) darker skin.

BLACK SKIN?

Melanin.....(ABSORB) ultraviolet rays and therefore(ACT) as a natural sunscreen. This may be the reason black skin(BE) common among people from hotter climates. But there.....(BE) other theories. It's been argued that dark skin either..... (ACT) as protective coloration in the forest primeval or, because dark colors absorb heat, it..... (ALLOW) our African ancestors to quickly regain normal body temperature after(SLEEP) naked in the cool night air.

WHITE SKIN?

White people can(SYNTHESIZE) vitamin D from sunlight more easily than people with darker skin, but they.....(BE) much more likely to get skin cancer. Australia, a continent with strong equatorial sunlight that(BE) now largely settled by people of Northern European descent,(HAVE) the world's highest incidence of skin cancer. One in every 4.000 Australians(GET) it. Among Australia's Aboriginal population, skin cancer(BE) extremely rare.

ORANGE SKIN?

In England a 14-year-old girl whose hands and feet(TURN) yellow was found to be(DRINK) over four quarts a week of orange soda pop naturally colored with beta carotene. Similarly, an Ecuadorean toddler with orange skin was brought to doctors who.....(DISCOVER) that his favorite food.....(BE) beta carotene-rich mangoes. Beta carotene, the chemical that.....(COLOR) carrots, oranges and pumpskins,.....(BE) a popular ingredient in skin-bronzing lotions.

VERY WHITE SKIN?

It has been said that the entire Caucasian race..... (BE) a genetic mutation.....

(CAUSE) by interbreeding among people with albinism. In fact, albinism(BE) a hereditary disease resulting

from a failure of melanocyte cells to produce pigment. People with albinism(HAVE) extremely light-colored skin, hair and eyes. They often(HAVE) poor eyesight and also(HAVE) a very high risk of skin cancer. One of every 17,000 people on earth(HAVE) albinism.

ASIAN SKIN?

Earwax, which.....(PROTECT) and.....(LUBRICATE) the aural membranes, may be a more reliable racial indicator than skin color. The world can be(DIVIDE) into two kinds of people: those with sticky earwax and those with dry earwax. Most Africans and Europeans.....(HAVE) sticky earwax, while most Asians(HAVE) flacky earwax, as.....(DO) many Native Americans.

So, what's the difference?

Noses

After a lifetime spent measuring noses in India, British ethnographer Sir Herbert Hope Risley (inventor of the Risley Orbito-Nasal Index)(CONCLUDE), "a man's social status(VARY) in inverse ratio to the width of his nose". That(BE) in 1908. Since then we.....(LEARN) that nose width.....(BE) not a reflection of class or race. The shape and size of your nose.....(BE) an evolutionary response to climate. Noses.....(EXIST) to moisten and warm the air we.....(BREATHE), so people from arid lands often(HAVE) longer noses- with more mucous membranes- than people from rainy lands

Eyes

There.....(BE) no known evolutionary advantage to the distinctive shape of Asian eyes or their lack of a visible upper eyelid crease. In fact, the one theory we(CAN) find regarding eyes and race(BE) useful only because it.....(DEMONSTRATE) how eager some people.....(be) to prove the superiority of one race over another. According to Professor Arthur Jensen, an educational psychologist at the University of California, USA, nearsighted people.....(SEND) images to the brain faster than people with normal eyesight, and.....(BE) therefore more intelligent. He(SAY) that Asians and Jews.....(BE) more nearsighted than Caucasians, who(BE), in turn, more nearsighted than people of African descent. Maybe what he..... really(SAY) is that people who.....(WEAR) glasses.....(LOOK) smarter.

Craniums?

The size of the human cranium..... long(BE) a favorite gauge for racial theorists anxious to prove that one race or another.....(HAVE) the God-given advantage of a larger brain. In the 19th century, American doctor Samuel George Morton.....(COLLECT) human skulls of many races and.....(MEASURE) their volume by.....(FILL) them with mustard seeds. He.....(PROVE) that Caucasian skulls.....(HELD) more seeds than skulls of other races, but not much else.

Blood?

While the frequency of certain blood types among different population groups.....(VARY), blood.....(BE) pretty universal stuff: it.....(BE) always red. Diseases, on the other hand,.....(DISCRIMINATE). One in 2,500 Caucasians.....(BE BORN) with lung-destroying cystic fibrosis, but only one in 17,000 blacks.....(GET) it. Sickle-cell anemia, which can slow the flow of blood through the body, primarily.....(AFFECT) people of Africa origin. (But the sickle-cell gene also.....(ACT) as protection against malaria in tropical climates.) Porphyria, a metabolic disease that often.....(AFFECT) the central nervous system,.....(AFFLICT) South Africa whites of Dutch descent, but not South African blacks. It's also common in Sweden and Lapland.

And hair?

Blond. Black. Straight. Kinky. These hairs.....(REPRESENT) the major physical distinction between the races. So, what's the difference? To us it all adds up to **nothing**

Colors 4. zk., spring-summer 1993.

Eztabaida isila

Arloa	Euskara. Etika. Erljioa edo alternatiboa
Maila	Derrigorrezko, Bigarren Hezkuntza
Helburua	Giza Eskubideen Hezkuntzari buruzko hausnarketa egitea
Zehar-lerroa	Arrazismoa. Intolerantzia
Materialak	Kartulinak
Iraupena	Ordu bat

Nola egin:

Arrazakeria, ijitoekiko gorrotoa, tolerantziarik eza eta xenofobia, zer dira niretzat?

Ariketa honen oinarritzko araua hauxe da: ezin da hitzik egin.

Ikasleak lurrean eseriko dira, edo mahai baten inguruan, launaka. Ikasleen artean lau kartulina egongo dira, eta kartulina bakoitzean irakasleak honako hitz edo esaldi hauek idatziko ditu:

ARRAZAKERIA

IJITOEKIKO GORROTOA

TOLERANTZIARIK EZA

XENOFOBIA

Ikasleei bururatzten zaien edozein gauza idatzeko eskatuko zaie, betiere kartulinan idatzita dagoenari loturik. Hasierako hitzari buruz idatzi beharko dute hasieran, baina gero ikaskideek idatzitakoaz ere idatz daiteke. Galderak ere idatz daitezke, baina EZIN DA HITZIK EGIN.

Ikasleek ez dute zertan banan-banan idatzi. Batera ere idatz dezakete.

Eztabaida isila hamar minuturen buruan amaituko da, edo ikasle guztiak ezer idatzi gabe geratzen direnean.

Eztabaida isilaren ostean, ahozko eztabaida egin daiteke. Kartulinak guztiak ikusteko tokian ipiniko dira, horma batean-edo. Galderak egin daitezke edo idatzitakoaz eztabaitzeko eskatu.

Topikoak aztertu, isiltasunak eragin dituen sentimenduen gainean berba egin daiteke, eta abar.

Honelako saio batek jendaurrean beren iritziak azaltzeko zailtasuna daukatenei laguntzen die. Pertsona batzuentzat zaila da jende asko dagoen tokian eztabaidetan parte hartzea. Ariketa honek guztien partehartzea bultzatzen du.

Egin ezazu zeure eslogana

Arloa	Plastika eta Ikus-hezkuntza. Euskara. Ingelesa
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (1. Zikloa)
Helburua	Giza Eskubideei buruz eztabaidatzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubide eta Bakerako Hezkuntza
Materialak	Kamiseta. Arkatz markatzaileak. Kalko papera
Iraupena	Ordu bat

Nola egin:

Ikasle bakoitzak bere elastiko propioa egin beharko du. Marrazkiak eta esloganak sortu beharko dira eta kamisetan kalkatu.

Kamisetan marraztu baino lehenago, talde txikiak egingo dira eslogan eta marrazkiak sortzeko. Giza Eskubideen Aldarrikapena eskura izango dute bertatik ideiak ateratzeko.

Ikasle bakoitzak kamiseta soinean eraman beharko du, eta beraz, esloganarekin bat etorri beharko du.

Garrantzitsua da aukeratzten den eslogana gaur egungoa izatea. Irudiak ere oso garrantzitsuak dira. Irudiak huts-hutsik edo esaldi edo poema batekin erabil daitezke.

Testuen adibideak:

*The discovery of others is
the discovery of a relationship,
not of a barrier (Claude Lévi-Strauss)*

- Refugee go home! - He would if he could.

Make love, not war.

*All Human beings are born FREE
and EQUAL in dignity and rights*

Declaration of Human Rights, 1948

*Mundu guztia arrotza da ene herrian.
(Ruper Ordorika.)*

CL ER
OW
P N

Bakea da bidea eta bidezkoa da

Bakea da bidea, justizia helmuga

Eztabaidatu:

1. Kamisetetan zein hizkuntzatan agertzen dira esloganak? Zergatik?
2. Kotoi hutsezkoak diren kamiseten artean (%100 kotoi), ze alde egon daiteke salneurrietan? Nondik ote dator alde hori?
3. Markako kamisetak garestiagoak badira (%100 kotoidunekin alderatuz gero), zergatik izango da? Kalitate hobea ala publizitatearen eragina?
4. Publizitateak eragin handia al du guregan?

The colours

Arloa	Ingelesa
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (1. zikloa)
Helburua	Gizakien arteko desberdintasun fisikoak axalekoak direla gogoratzea
Zehar-lerroa	Giza eskubideak. Arrazismoa
Materialak	Testua, hutsuneak bete ariketa
Iraupena	10'

Nola egin:

Ariketa honen helburua, ikasleek koloreak ikastea da, eta aldi berean, gogoeta egitea hizkuntza batzuetan zenbaiteraino izan daitekeen arrazista. Horretarako, koloreen tokia zuriz duen testua emango zaie ikasleei. Ariketa egin ondoren, denen artean zuzenduko da.

Ikasleek koloreak ikasten dituzten bitartean, arrazakeriari buruzko gogoeta txiki bat egingo da.

Fill in the following sentences

When I am born, I am ___1___

When I grow up, I am ___1___

When I go out in the sun I am ___1___

When I am cold, I am ___1___

but you!

When you're born, you are ___2___

when you grow up you are ___3___

when you go on the sun, you are ___4___

when you are cold, you are ___5___

when you die, you are ___6___

and you have the guts to call me coloured!!!

1	2	3	4	5	6
					purple

Irakaslearentzat:

This is the answer:

When I am born, I am (black)

When I grow up, I am (black)

When I go out in the sun I am (black)

When I am cold, I am (black)

but you!

When you're born, you are (pink)

when you grow up you are (white)

when you go on the sun, you are (red)

when you are cold, you are (blue)

when you die, you are (purple)
and you have the *guts*
to call me coloured!!!

1	2	3	4	5	6
black	pink	white	red	blue	purple

(Domino)

Koloreak

Arloa	Frantsesa
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Gizakien arteko desberdintasun fisikoak axalekoak direla gogoratzea
Zehar-lerroa	Giza eskubideak. Arrazismoa
Materialak	Testua, hutsuneak bete ariketa
Iraupena	10'

Nola egin:

Ikasleek koloreak ikasten dituzten bitartean, arrazakeriari buruzko gogoeta txiki bat egingo da.

Ikasleentzako testua

*A ma naissance, je suis ____1____
 quand je grandis, je suis ____1____
 quand je suis au soleil, je suis ____1____
 quand j'ai froid, je suis ____1____
 mais toi!
 a ta naissance, tu es ____2____
 quand tu grandis, tu es ____3____
 quand tu vas au soleil, tu es ____4____
 quand tu as froid, tu es ____5____
 quand tu es mort, tu es ____6____
 et tu as le culot de m'appeler le colore!!!*

1	2	3	4	5	6
					violet

Irakasleentzako testua:

A ma naissance, je suis (noir)
 quand je grandis, je suis (noir)
 quand je suis au soleil, je suis (noir)
 quand j'ai froid, je suis (noir)
 mais toi!
 a ta naissance, tu es (rose)
 quand tu grandis, tu es (blanc)
 quand tu vas au soleil, tu es (rouge)
 quand tu as froid, tu es (blue)
 quand tu es mort, tu es (violet)
 et tu as le culot de m'appeler le colore!!!

1	2	3	4	5	6
noir	rose	blanc	rouge	blue	violet

Domino

Zorioneko itzulia

Arloa	Euskara. Etika. Gizarte zientziak, Geografia eta Historia
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 1. zikloa
Helburua	Giza Eskubideen Hezkuntzari buruzko gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Giza Eskubideak. Bakea. Intolerantzia. Arrazismoa...
Materialak	Aulkiak
Iraupena	Ordu bat

Nola egin:

Ikasleak bi multzotan eseriko dira, eta multzoak bi biribiletan antolatuko dira. Ikasle guztiek beste biribileko ikasle bana izango dute haien aurrean. Bikoteek ez dute elkarren ondoan hurbilegi egon behar, bestela beste bikoteen elkarrizketak ozenezi entzungo dituztelako.

Ikasleei esango zaie aulkiak lekuz aldatu egingo direla eta, beraz, ez dutela aurrean duten ikaslearekin beti hitz egingo. Bikote aldaketa bi minuturo egingo da.

Irakasleak ozenki egingo ditu galderak.

Galderak ikasgaiaren eta ikasleen mailaren arabera izango dira.

Honako galdera hauek iradokizunak besterik ez dira:

- Zer egingo zenuke zure lagun minak norbait jo duela esaten badizu?
- Lagun batek arrazakeria darion txistea kontatzen du. Zer esango zenioke?
- Zuen taldeak erabiltzen duen leku batean arrazakeria kutsuko graffiti bat agertu da. Zer egingo zenukete?
- Zer da arrazakeria?
- Zer esan nahi du «beltzak, utikan! Itzuli oihanera!» horma batean idatzita?
- Lagun talde batek junkie-ak auzotik botatzeko plan bortitza du. Zer egingo zenukete?
- Azken bolada honetan, lagun batzuk geroz eta gehiago erabiltzen ari dira arrazakeria eta sexu-bazterkeria kutsuko hitzak: "ijito", "sudaka", "beltzak", «atzelariak», «fokak» «maritxuak»... Zer egingo zenuke?
- Zer da estereotipatzea?
- Gutxiengoen gainean dauden estereotipoak aldatzeko, zer egin liteke?
- Nola apurtu honako gurpil zoroa: Ijitoa naizenez gero, ez didate lanik ematen. Ijitoak ez duzue lanik egin nahi.

Galdera bakoitzaren ostean, barruko biribileko ikasleek altxatu eta ezkerretara jo behar dute. Gero, beste galdera bati ekingo diote.

Bikote edo hirukoteren batek ez badauka zer esanik, galderak idatzi eta irakasleari emango dizkio.

Bukatzeko galderak idatzi, biribilean ikaskideei pasatu eta bikoteka mintzamenari helduko diote.

Bukatzeko, irakasleak ikasleei galdetuko die ea zer esan duten.

Nolakoak gara? Gu ere arrazistak al gara? Estereotipoetan sinesten dugu? Estereotipoak aldatu beharko genituzke?

Gauss-en kanpaia

Arloa	Matematika
Maila	Batxilergoa
Helburua	Arrazismoari buruzko gogoeta
Zehar-lerroa	Arrazismoa
Materialak	Testuak eta grafikoak
Iraupena	20'

Pasadizoa. Diotenez txiki-txikitatik Gauss-ek zenbait simetriari eta banaketa orekaturik erreparatu zien. Askotan kontatu izan da txikitan eskolakideekin batuketak egiten ikasten ari zirelarik, maisuak, ariketa gisa, lehen ehun zenbaki naturalen batuketa egiteko eskatu ziela Gauss eta bere kideei. Gainerako ikaskideak zenbaki txikien batuketa egiten ari zirelarik eman zuen Gauss-ek emaitza zuzena: 5.050. Maisuak, oso harriturik, Gauss-i galdetu zion ea nola lortu zuen emaitza zuzena hain azkar. Gauss-ek honelaxe erantzun omen zuen: «oso erraza da: 0 gehi 100, 1 gehi 99, 2 gehi 98, 3 gehi 97... horrela, 50 aldiz bider 100 = 5.000, eta erdian 50 geratu. Beraz, guztira = 5.050».

Nola egin:

Irakasleak *Gauss-en kanpaia* zer den azalduko du. A, B, C eta D datuekin ikasleei eskatuko zaie Gauss-en kanpaia marrazteko (datuak gutxi gorabehera Europako herrialdeetan agertzen direnak dira). Kanpaia gurea bezalakoxea izan beharko du.

A taldea. Arrazakeriaren arazoaz kezkatzen diren eta arazoa konpontzeko zerbait egiten duten pertsonen taldea litzateke (%10a).

B taldea. Arrazakeriaren arazoaz jabetu arren, (oraingoz) arazoa konpontzeko ezer gutxi egin duten pertsonen taldea (%40a).

C taldea. Arrazakeriarako joera daukatela ere, arrazakeria erakusten ez duten pertsonen taldea (%40a).

D taldea. Disimulurik gabe jokatzeko duten arrazisten taldea (%10a).

Gero, ikasleei honako galderak egingo zaizkie:

- Zuk zein taldetan ikusten duzu zeure burua?
- Ezagutzen duzun jende gehiena non kokatuko zenuke?
- Zure ustez, Gauss-en eskemak ondo islatzen al du errealitatea?
- Zure iritziz, talde bateko pertsonak beste talde batera igarotzeko zerbait egin al daiteke? Zer?

Estereotipoak

Arloa	Euskal hizkuntza eta Literaturara
Maila	Bigarren Hezkuntza
Helburua	Estereotipoei buruzko gogoetak sortzea. Mintzapraktika
Zehar-lerroa	Arrazismoa
Materialak	Ikasgelako aulkiak
Iraupena	30'

Nola egin:

Ikasleek aulkiak bi biribiletan jarriko dituzte, biribil bat bestearen barruan dagoela. Barruko biribilaren aulki bakoitzak kanpoko biribilaren aulki bat edukiko du aurrean.

Ikasleak aulkietan eseriko dira. Ikasle bakoitzak beste ikasle bat izango du aurrean. Aulkiak ez dira oso hurbil egongo, bikote bakoitzak ondoan daukan bikotearen elkarrizketa ez dezan entzun. Jendearen kopurua bakoitia bada, bikote batek hirukotea izan beharko du.

Irakasleak mugitu egingo direla esango die ikasleei; hartara, ez dute beti une horretan aurrean daukaten pertsona berberarekin hitz egingo.

Irakaslea esaldiak esaten hasiko da, eta ikasleek bukatu egin beharko dituzte.

Esaldi bakoitzaren ondoren, kanpoko biribilean dauden ikasleak altxatu egingo dira, eta eskuinaldean daukaten eserlekuan eseriko dira. Irakasleak beste esaldi bat hasiko du, eta ikasleek bukatu egin beharko dute. Bospasei esaldiren ondoren, barruko biribilean daudenak ezkeraldera mugituko dira. Irakasleak bospasei esaldi gehiago hasiko ditu, eta ikasleak berriro aldatuko dira eserlekuz.

Esaldiak mota honetakoak izango dira:

Amerikarrak/ek dira/ dute...
 Ingelesak/ek dira/ dute...
 Frantsesak/ek dira/ dute...
 Italiarrak/ek dira/ dute...
 Txinatarrak/ek dira/ dute...
 Ijitoak/ek dira/ dute...
 Alemaniarrak/ek dira/ dute...
 Kataluniarrak/ek dira/ dute...
 Galiziarrek/ek dira/ dute...
 Andaluziarrek/ek dira/ dute...
 Madrildarrak/ek dira/ dute...
 Euskaldunok gara/dugu.

Ondorioak:

Azkenean, esaldiak elkarrekin eztabaidatuko dituzte eta hoietariko zeintzuk errepikatzen diren ikusi eta zenbatuko dira.

Ikasle gehienek uste al dute ijito guztiak eta amerikar guztiak berdintsuak direla?

Estereotipoek inori laguntzen diote?

Zer bultzatzen dute estereotipoek?

Estereotipoek oinarri sendoak izaten al dituzte?

Aurreiritziak

Arloa	Plastika eta Ikus-hezkuntza. Euskal hizkuntza eta Literatura
Maila	Bigarren Hezkuntza
Helburua	Pertsonekin ditugun aurreiritziei buruz hausnartzea
Zehar-lerroa	Arrazismoa
Materialak	Argazkiak + argazkien benetako oin-oharrak
Iraupena	30'

Nola egin:

Informazio gutxirekin jendeari buruzko iritzia oso azkar egiten dugula erakustea da helburua.

Ikasleak bi taldetan banatuko dira. Irakasleak oin-oharrak gabeko bi argazkiren fotokopiak egingo ditu. Gero, talde bateko ikasleei fotokopia bana eta beste taldeko ikasleei beste argazkiaren fotokopia bana emango die. Ikasle bakoitzak orri batean idatziko du, bere iritziz, argazkietan gertatzen ari dena, zertan ari diren, zergatik, eta abar. Ikasleek ezin dute beren artean hitz egin, oso garrantzitsua baita une horretan, oraingoz, inork bere iritzia besteei ez ematea.

Talde bateko eta besteko ikasleak bikoteka jarriko dira. Elkarri kontatuko diote zer gertatzen ari den argazkietan. Ondoren, irakasleak ikasleei bikotekidearen oin-oharra emango die benetako gertaera azal diezaien.

Ondorioak:

Ikasleek beren artean hitz egingo dute, bai gertatu denari buruz eta bai ariketari esker ikasi dutenari buruz:

- Zer da gehien harritu dituen?
- Zertan oinarritu dira beren lehenengo iritzia ematerakoan?
- Zergatik uste izan dute gauza bat gertatzen ari zela eta ez bestea?
- Zer ikasi dute beren buruaz?

Argazkien oin-oharrak:

1. Argazkian agertzen diren pertsona guztiak gaizkileak dira. Japoniako Yakuzako 1.000 partaiderentzako festa bat da. Italiako mafiaren antzera, talde horrek prostituzioa, drogak eta jokia bultzatzen ditu. Ekitaldi honetan, ohiko partaide batzuk behe-mailako buru izendatzen ari dira.
2. Argazki honetan bi polizia agertzen dira, Batak uniformeak du soinean eta besteak, berriz, kaleko arropa. Biak susmagarri baten atzetik doaz. Susmagarria argazkitik kanpo geratu da. Argazki hau Londoneko Metropoliko Poliziaren posterretan erabili dute, gutxiengoaren artean polizi-agentek lortzeko.



Iturria: Colors aldizkaria, 4 zkia.1993



Nor hasi zen?

Arloa	Euskara. Gorputz hezkuntza. Etika. Gizarte zientziak. Tutoretza
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (1. zikloa)
Helburua	Gatazken konponketei buruz gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Bakea
Materialak	Ordularia edo kronometroa
Iraupena	15'

Gatazken erruduna aurkitzea lan erraza ez dela frogatzea da ariketa honen xedea. Gainera askotan alferrik izan ohi da erruduna aurkitzea, gatazkek ez baitira askotan horren bidez konpontzen. Irtenbideen bila ematen den denbora, errudunen bila ematen dena baino eraginkorragoa dela frogatzea da ariketa honen azken xedea.

Nola egin:

Boluntario bat gelatik irtengo da.

Beste ikasleak zutik eta talde biribilean jarrita egongo dira zain gelan.

Gelan daudenetik bat liderra izango da. Liderra zerbait egiten hasiko da (sudurra igurtzitzen, eskua mugitzen, makurtzen...) Beste guztiek liderrak egiten duen gauza bera egin beharko dute.

Liderrak etengabe aldatu beharko du bere jarduera.

Liderra nor izango den erabaki eta gero, gelatik kanpo dagoen boluntarioa gelan sartu eta multzo biribilaren erdian kokatuko da. Bere lana, liderra nor den asmatzea izango da. Hiru minutu eta hiru aukera izango du liderra nor den asmatzeko. Hori lortzen ez badu zerbait barregarria egin, abesti bat abestu edo horrelako zerbait egin beharko du prenda gisa.

Asmatuz gero, liderra zena orain kanpora irtengo den «boluntarioa» izango da.

Erdian dagoena zirikatzeke erabili beharko da denbora. Jolasean azkar mugitu behar da. Liderrak gauza asko egin beharko ditu, bestela «boluntario» bihurtuko baita zuzenean.

Pentsarazteko

Nola aukeratu dira liderrak eta boluntarioak? Erabili den metodoa erabat demokratikoa izan al da?

- Ipin dezagun ikasleengandik hurbil dagoen gatazkaren bat adibide bezala. Zenbat eta gertuago orduan eta aukera gehiago izango dute ikasleek hausnarketa egiteko.

Esaterako, ikasgela batean irakasle bat behin eta berriro kexu da bere ikasleen jarrera txarragatik. Zuzendariak ikasleekin hitz egin duenean, ikasleek aitortu dute ikastaldearen jarrera ez dela ona izan, baina ikasleek ez dute beren errua aitortu nahi. Errua elkarri edo irakasleari berari bota diote.

Horrelako gatazketan maiz gertatzen da antzeko zerbait; alde batetik erruduna bilatu nahia (zigortzeko), eta beste aldetik bere burua libre uztea, errudun ez dela frogatzea. Askotan, «benetako erruduna» topatzea ezinezkoa izaten denez, taldea zigortu egiten da.

Baina jokaera egokia al da errudunaren bila ibiltzea? (Batzuetan, lehenago aipatu dugun bezalako kasuetan, askok pentsatu izan dute irakaslea bera dela errudun, diziplina irakasten jakin ez duelako).

- Arazoen zergatiak bilatzeak arazoa ulertzen lagun dezake, baina ez da ahantzi behar helburua arazoa konpontzea dela, ez ulertzea.

Stories told by young people

Arloa	Ingelesa
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Gizaki batzuek jasan duten bazterkeriari buruz gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Arrazismoa
Materialak	Testua, hutsuneak bete ariketa
Iraupena	30'

Fill in with the correct tense:

Hello, my name (BE) Melanie and I..... (BE) 21 years old. The greatest difficulty for me (BE) that as a person of mixed origin (Half Ivory Coast and half Swiss) I (be) at home neither here nor there. Wherever I..... (be) I am regarded as foreigner, either "white" or "black". It..... (happen) to me when I..... (live) in my mother's country, in Switzerland, and it..... (happen) to me when I..... (live) in my father's country, Ivory Coast. When you..... (be) a small child you first (not feel) that you..... (be) different from the others. But soon the others (make) you feel different and children too can..... (be) very cruel.

Sometimes incredible incidents..... (happen). Some time ago I (ride) my bike somewhere in a little place in Switzerland nearby to where I..... (live). A car (drive) by, and the driver..... (open) the window and cried out: "Dirty nigger!". I..... (feel) unable to defend myself. When I (look) at the number plate, I..... (see) that it..... (be) a German number plate. This (mean) that the insulting person himself..... (be) a foreigner in this country!

Intolerance really (be) the thing that (bother) me most. I..... (think) that everybody..... (be) different and everybody..... (have) the right to be different, no matter what the mentality, the colour of skin or the religion..... (be). But this..... (not mean) that he or she must..... (be) a second class human being because of these differences. Tolerating something (not mean) that you..... (have to) agree with everything, it just..... (mean) that you accept it unconditionally.

I wish people..... (be) more open-minded to foreigners and their way of life.

My name..... (be) Nikola Bobann, I'm half Danish and half Bosnian. I..... (want) to write about an incident I..... (have) 3 years ago. I..... just..... (finish) business college and (be) applying for this job in a big, well respected company. I..... (have) all the necessary diplomas and qualifications and..... (be) self -confident. So I..... (deliver) my application personally just to make a good impression.

The company..... (tell) me that I..... (have) an answer within a month. I..... (wait) two months for a reply and then I..... (decide) to ask for my application. I..... (be) disappointed but at the same time I..... (have) to find out what (be) the reason for the silence.

I..... (go) to the company for the second time and..... (talk) with the manager. He..... (sit) behind a big table full of papers and he..... (ask) me for my name. I (tell) him my name and he (look) surprised and (ask) me where I..... (come) from. I (find out) that one of the piles..... (have) familiar Danish names and the other pile..... (have) only foreign names.

At that time I (understand) his astonished face-it (be) because of my blue eyes and blond hair-he (think) I was a Dane, but according to the application form I..... (be) a foreigner.

Hi, I..... (be) Anna from Poland and I..... (be) 20 years old. I..... (like) to tell you about a situation in which I (feel) really bad. It (happen) already one year ago, but I can still..... (remember) it very clearly. I (be) on a student exchange in Holland. I (live) with a very friendly family, whose daughter Sandra (visit) me later in Poland. Sandra and I..... (meet) a boy from Sandra's neighbourhood. He..... (not say) hello to me but only to her and..... (speak) only in Dutch. I..... (not understand) this language, but I..... (feel) that he..... (tell) her something about me. When he (go) I..... (ask) Sandra to tell me what he..... (talk) about. Let me..... (repeat) the short dialogue Sandra..... (have) with her neighbour:

Sandra: "Hi, how (be) you?"

He: "I..... (be) fine. I..... (not have) any Polish at home".

For me, this (be) really awful- I..... (not understand) why my friend..... (not tell) him off. Her mother..... (tell) me that he (be) probably jealous that he (not be able) to invite somebody from abroad to his home. I..... (not know). Maybe the mother..... (be) right.

Domino.

Describe a situation in which you have felt discriminated. (75 words).

Agurraren lezioa

Arloa	Euskal hizkuntza eta Literatura
Maila	Bigarren Hezkuntza
Helburua	Kultura batzuen aldeei buruzko gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Arrazismoa
Materialak	Testuaren fotokopia artaziez moztua
Iraupena	15'

Nola egin:

Ikasle batzuek paper bana jasoko dute. Paper horretan, beste kultura batzuetan nola agurtzen den irakurriko dute.

Papera daukan ikasleak paperean ipintzen duen bezala agurtuko ditu gainerako ikasleak. Ikasleak agurtzeko eta agurtuak izateko zutitu egingo dira. Agurtzarekin batera zerbait esan beharko dute.

Agurtu duen ikasleak nongoa den asmatzen lagun diezaieke gainerako ikaskideei, laguntza txikitxoan bitartez, mimikaz-
edo.

Girotzeko Ruper Ordorikaren «Agurraren lezioa» abestia entzun daiteke.

Fotokopiatu eta mozteko materiala:

✂

• Beste pertsona bat agurtu, bien artean metro bateko aldea utziz. Emaiozu bostekoa azkar, eskua estutu gabe ia. (Ingalaterra)

✂

• Beste pertsona bat agurtu, besarkatuz eta masailetan hiru aldiz muin egin. (Lehenengo ezkerreko masailean, gero eskuinekoan, eta berriro ezkerrekoan). (Holanda eta Belgika)

✂

• Beste pertsona bat agurtu, besarkatuz eta masailetan hiru aldiz musukatuz neska bada, eta bostekoa eman ez mutila bada (Penintsula Iberiarra).

✂

• Beste pertsona bat agurtu, besarkatuz eta masailetan lau aldiz muin eginez. (Paris)

✂

• Beste pertsona bat agurtu, eskuak sabelean elkartuz, otoitz egiteko egiten zen moduan, eta zure soina makurtuz. (Japonia).

✂

• Beste pertsona bat agurtu, bere sudurra zeure sudurraz igurtziz. (Eskimalak).

✂

• Beste pertsona bat agurtu, gogor besarkatuz eta besoekin estutuz. (Errusia eta Palestina) (Errusian gizonezkoek ahoan ematen diote musua elkarri, agur egiterakoan).

✂

• Beste pertsona bat agurtu, eskuineko eskua azkar eta indarrez estutuz. (Alemania)

✂

Galderak:

1. Alemaniar guztiek berdin agurtzen al dute?
2. Agur egiteko moduak aurreiritzi asko sortzen al du?
3. Inoiz deseroso sentitu al zara, agurra dela eta?
4. Berdin agurtzen al da ume bat, gizon bat, emakume bat, gazte bat, zahar bat, lagun bat, ezezagun bat...?
5. Norbaitek modu «bitxian» agurtzen bagaitu, zer pentsatzen dugu?
6. Agurtzeko beste modurik ezagutzen al duzu? Egin zerrendatxoa.
7. Norbaitek ez badu agurrik egiten, zer pentsatzen dute besteek?

Mirentxoren balentriak mundu miresgarrian

Arloa	Euskal hizkuntza eta Literatura
Maila	Bigarren Hezkuntza
Helburua	Giza Eskubideen Hezkuntzari buruzko hausnarketa egitea
Zehar-lerroa	Arrazismoa, sexismoa
Materialak	Testua
Iraupena	20'

Nola egin:

Eredutzat ematen dugun ipuina zati ezberdinetan banatu, ikasleek zatiak ordena ditzaten.

Gero, mintzamina lantzeko eztabaidarako gaiak erabil daitezke: Eskaleei dirua eman behar al zaie? Ijitoentzat lana topatzea zailagoa al da? Eta emakumeentzat? Zergatik? Nor dago baztertua gure gizartean? Zergatik? Noren errua da? Zein izan daitezke irtenbideak?

Ipuina arrazistatzen jo al daiteke? Zergatik? Ipuineko zein pertsonaia da arrazista? Zergatik? Eta sexista?

Ipuina:

Mirentxoren balentriak mundu miresgarrian.

Lehenengo atala.

Egun hartan, Mirentxo, aurreko goiz guztietan bezain muturbeltz esnatu zen. Hainbeste urte ikasten eman eta gero, beste egun bat igaro behar langabezia gorrian. Eta gurasoen etxean gainera. Eta aurreko gauean amari azaldu behar nondik zetorren hain berandu, eta lan eskaintzarena aipatu zionean, adoretu beharrean: Eta horretarako ordaindu dizkizugu ikasketak? Horrelako lana onartu nahi baduzu, zoaz Alemaniara, gutxienez beste hizkuntza berri bat ikasiko zenuke!

Bai zera! Pentsatu zuen Mirentxok, falta zitzaidana, lanik ez eta gainera atzerrian. Nork ordainduko lizkidake bidaiak, ostatuak eta abar? Jon ere gozoa ipiniko litzateke Alemaniara noala esaten badiot. Gainera nola ikasi alemaniera egunero zortzi-hamar orduz platerak garbitzen eman behar badut.

Baina goiz hark oso bestelakoa izan behar zuen. Egun hartan bai, lana topatuko zuen. Goiz altxatu zen, aspaldi horretan harturiko ohitura ona, eta liburutegira

joan zen El Correo irakurtzera. Lanik ez eta gainera etsaien egunkaria erosi behar, bai zera!

Komeriak egoten ziren egunkaria harrapatzeko orduan. Horretan ere entxufismoa nagusi. Liburutegiko langileek bazekiten egunkaria nori lehenago eman.

Egunkaria, azkenean, lortu eta zuzen-zuzen jo zuen lan eskaintza sailera. Eskaintza publikoa... Ez, horretarako ere karneta eta entxuferen bat beharko da. Vendedores... Betikoa, ezta disimulatzeko ere ez dute vendedores/as ipini. Neska bat behar da pub batean... Ipin dezatela prostituta, kontxo! Neska bat behar da aurkezpen publikoak egiteko. Esperientzia ez da beharrezkoa. Trebakuntza akademikoa eta hizkuntzak jakitea baloratuko da. Interesatuok joan zaitezte gaur bertan honako helbide honetara: XX. mendea kalea, 13-Behea, eta deitu ahalik eta azkarren 908-8880888 telefonora.

Bigarren atala.

Ostras! Pentsatu zuen Mirentxok iragarkiari behin eta berriro begiratu, hau agian neuretzat izan daiteke! Izan liteke neska entxufatu bat gaixorik ipintzea, ETTetara¹ deitu dutela eta horrelako ETT batek iragarkia ipini duela, agian bihar bertan lanean hasteko. Bostehun pela orduko izango da, baina lanak benetakoa dirudi. Beharbada aukeraren bat izan dezaket. Saiatzea da langabetuon lana.

Etxera joan beharko ilea garbitzera eta pijoz mozarrotzera! (Lan egiteko premia daukazula ikusten bada, jai duzu, Jonek esana,...). Eta arrazoia du. Pijoz jantzita joan beharko, eta aurpegia margotu beharko, apatxete! Jon ikusi nahi nuke horrelako batean! Zirikatzen bai, zirikatzen iaioa da!

Zer egingo dut? Etxera joan eta ilea garbitu eta zuzenean jo helbide horretara ala zer? Gutxienez etxean telefonoa erabiltzen utziko balidate, baina bai zera! Amak ez dakit zer egin zuen, eta orain deiak jasotzeko besterik ez du balio. Eta agian hori ere kenduko duela esan, gainera. Egun osoa telefonoari itsatsita ematen

dudala... Lana bilatzen ari naiz! Nola bilatu inorekin telefonoz hitz egiterik ez badut? Amak kritikatu bai, baina bera ezer gutxi mugitu da niri entxufe bat bilatzeko. Ereduak eta ereduak. Horrek lana duela eta ez-dakit-zer besterik ez zuen ikasi,... besteak ere berdintsu, ez-dakit-nora joan eta hortxe, lana aurkitu zuela... Eta zu, ordea, beti etxe zuloan sartuta, lelokeria horiek irakurtzen...

Eta entxufeak, zer? Bai, lan egiten duten guztiak ez dira entxufatuak izango, baina zorte handia izango zuten bere garaian. Zorte pittin bat da neuk behar dudana. Jo beharko telefono batera, ez dut leloarena egin nahi: dotore-dotore jantzi, haraino joan eta neskame edo prostituta bat besterik ez zutela nahi bertan ikusi. Bai zera! Telefonoz deitu beharko.

Hantxe hurbiltzen da Mirentxo liburutegitik gertuen dagoen telefono publikora, beti prest dauzkan txanponetatik hiruzpalau hartu eta betiko hasarrea. Makina txanponjale azpijalea! Ea gaurkoan ez didazun gehiegi lapurtzen!

Hirugarren atala.

Hortxe sartzen ditu hogerekoak eta betikoa, lehenengo hogeita bostekoa sartu behar, bestela ez dago hitz egiterik. Ezin amari azaldu horrelakoak. Orain telefonoz etxe horretan lehen baino diru gehiago gastatzen dela. Ez. Orain, bakar-bakarrik behar-beharrezkoa denean deituko duzu. Bai zera! Lehen ere bai! Orain bai Telefonicak negozio borobila gurekin. Deitzen dudan bakoitzean eskupekota utzi behar.

Markatzen du zenbakia eta inork erantzun gabe telefonoak txanponak jan eta deia beste telefono batera desbideratzen dela entzuten da. Zentralita madarikatu horiek! Azkenean, luze itxaron ondoren,... Sí,.. ¡dígá-me! Betikoa; ondo ikasitako leloa: iragarkia ikusi duela eta behar duten pertsona dela uste duela,.. eta... Hortxe hurbildu zaio bat-batean ijito bat Mirentxori otarteko bat erosteko laguntza bat eskatuz!

Laugarren atala.

Mirentxo urduri. Telefonoaren mikrofonoa estali, beste hogereko pareta zulora, eta ijitoa gero eta astunago bokataren kontuarekin, eta telefonoaren beste aldean jende asko ari dela deika eta lana bihar hastekoa izango litzatekeela, eta ijitoak laguntza bat arren, otoi, bere ama ospitalean eta bere ahizpa oso gaixorik dagoela,... eta Mirentxok ingurura begira ea nork esaten dion ijitoari bakean, Bake Santuan uzteko telefonoz deitzen ari den neska gaixo hori, eta telefonoko beste aldekoari baietz,

ez dagoela problemarik, eta ijitoari ezetz, bakean uzteko, telefonoz hitz egiten ari dela, bakean uzteko arren!, oihuka, telefonoa estaliz edo erdiestaliz eta telefonoko beste aldetik datu pertsonalak eskatuz, eta demontre, pentsatzen du Mirentxok, datu pertsonalak kontratuan ipintzen direnak eta kito, ijitoari ere telefono zenbakia emango diot, eta ijitoak goseari buruzko hitzaldia, eta Mirentxok pijo itxura gorde behar duela, eta bat-batean telefono deia moztu egiten da.

¹ETT= Empresa de Trabajo Temporal. Behin-behineko Lanen Enpresa.

Bosgarren atala.

Mirentxok ez zekien hain arrazista zenik. Jfjto hori gorroto zuen, benetan. Ez ijfjtoa izateagatik, aprobetxategi izateagatik. Aprobetxategi handiez jositako mundu batean betidanik bizitzen eta orain ijfjto horrek ere telefonoz hitz egiten ari zela aprobetxatu behar, Telefonicak egiten zuen gauza bera egiteko, txanponak lapurtzeko! Jonekin askotan komentatutako gaia oraintxe bertan, begiz begi, aurrez aurre. Eskaleei dirua eman behar zaie, bai ala ez? Jonek ezezkoan temati. Beti bezala. Azkenean, konbentzitu eta guzti lortzen du. Eskale bati txanpon bat ematen badiozu, lagundu beharrean, bere egoeran segitzeko esaten diozu. Badaude laguntzeko bide hobekak. Erakundeak, udal eta aldundietako zerbitzuak... Bai teoria politikak, Jonek.

Mirentxo ijfjtoarekin kokoteraino erdi oihuka esaten dio telefonoz hitz egiten ari zela eta joan dadila antzarrak ferratzera, baina ijfjtoa ez da mugitzen, munduan Mirentxo besterik ez balego jarraitzen du, oihuek animatu dutela dirudi, eta begiak erdi estalita dituela triste aurpegia ipiniz berriro errepikatzen dio ama oso gaixorik dagoela eta ahizpa ospitalean eta bera oso gose, eta otarte baterako besterik ez duela eskatzen...

Mirentxok, orduan, Jonek egingo lukeen bezala egitea erabakitzen du. Jfjtoari esaten dio lana bilatzeko. Bera ere horretan saiatzen dela. Edo joan dadila udaletxera lana

bilatzera edo laguntza eskatzera. Eta orduan ijfjtoak berriro ezin duela, ea nora joan behar duen, berak ez dakiela ezer, inork ez liokeela lanik emango ijfjtoa delako, erraz esaten dela hori, ea zergatik ez dion berak lana ematen hain erraza bada, oso gose dela,... Mirentxok azkeneko hori aprobetxatzen du nahiko ondo elikatuta dagoela ematen duela esateko, ez dagoela batera argal... Hortxe hasten da ijfjtoa bere jertseak eta kamisetak erdi eranzen zein argal dagoen erakusteko, Mirentxori sabela erakutsi nahian edo. Mirentxok ez duela ezer ikusi nahi, eta ijfjtoak arropa asko behar duela, ez duelako jaten eta kalean bizi delako eta daukan guztia soinean eraman behar duela,... eta orduan Mirentxok gogoratzen du Jonen beste argudio bat, eta esaten dio nola jakingo duen berak benetan otarteko bat erosiko duen, eta orduan ijfjtoak mahukak erdiska igo eta bera garbi dagoela esan eta ez duela drogarik hartzen, eta Mirentxok orduan lan egiteko, eta ijfjtoak inork ez lukeela hartuko ijfjtoa izateagatik, eta Mirentxok bera ere emakumea dela eta gainera itsusia, baina hala eta guztiz ere saiatzen dela, eta ijfjtoak ezetz, oso polita dela, eta suerte handia daukala kalean ez dagoelako, eta Mirentxok bere amarekin izandako azken sesioak gogoratu eta etxetik oraindik joan ez bada agian ijfjtoak arrazoi duelako izango dela, eta kokoteraino dago eta hogeiturokoa luzatzen dio ijfjtoari eta Zuk-jakingo-duzu-zertarako-nahi-duzun! haserre bat botatzen dio.

Seigarren atala.

Mirentxo, hortxe geratzen da kale erdian, bakarrik, orain inork ez dio begiratzen. Eskerrak! Lehen bazirudien ijfjtoari biluzteko-edo eskatu ziola, hortxe, kale erdian. Jfjtoa ez da urrutiegi joan. Telefonoz egiten ari zen deia, ia-ia ahazturik. Mirentxo oinez hasten da. Pentsatzeko premia du. Ezin du denbora gehiegi galdu zeren jende askok deitu du, normala, ni bezalako neska gaixo asko zegon! Ilea garbitu, pijoz mozturatu eta banoa. Baina

joder, ez diot ezta galdetu ere zertarako zen. Jfjto demonio horrekin ez zegoen hitz egiterik!

Benoa, Mirentxok, bere baitan, pasatu dira bi minutu-edo, itzuliko naiz telefono horretara, eta beste hogeita hamar pezeta inbertituko dut. Bestela agian alferrikako bidaiak egingo dut...

Jfjtoa orain ez zait hurbilduko, azkenean neuk ere neure zerga ordaindu diot. Jon enteratzen bada...

Zazpigarren atala.

Txanponak zulora, Telefonoko hotsak, —Sí,... ¿dígame? —Esto... —Uy! Ia botatzen diot lehen deitu duena naizela —llamaba por lo del anuncio,... Mirentxo berriro betiko leloarekin,... Eta hara non ikusten duen berriro ijfjtoa zuzen zuzen beregana doala. Hori da: Jonek esaten zuena; dirua ematen badiozu, bere lanbidea topatu duela pentsatuko du eta ez du besterik bilatuko... Eta hortxe dago berriro hemen gizona! Berriro matraka bera. Ospitala, otartekoa, gosea, kalean bizi dela,... Oraingoan ez! Hortxe moztu du Mirentxok telefonoko deia. Eta ijfjtoari garrasika hasi zaio, kalearen erdian, berriro jende guztia berari begira, ea bera tontoa-edo den pentsatu duen, ala Espainiako Bankua dela pentsatu duen, joan dadila pikutara, telefonoaren premia duten pertsonen lapurtzeko beste modu bat asma dezala,... Ozenki, garrasika.

Horrela dabilela hortxe hurbiltzen da bat-batean hirugarren bat, yonki itxurako bat, ijfjtoa defendatzera, oso tipo legala dela esanez eta berak ere ahal duenean laguntzen duela, zeren drogaren susmoa baldin badu, kale egin du, zeren ijfjto horrek beste arazo batzuk dauzka, ez drogarena, eta ea zer moduz bikiak galdetzen dio ijfjtoari, eta berak ere ume bat baduela, haur txiki bat, ijfjtoari aurrekoan kontatu zion bezala,...

Mirentxok ezin du gehiago jasan. Biak popatik hartzera bidali nahi ditu eta yonkiari esaten dio ijfjto horri lehen dirua eman diola eta berriro joan zaiola eskatzera. Eta berak ere bere arazoak dituela, eta BA-KE-AN uzteko. Joan daitezela pikutara yonkiak, ijfjtoak, ETTak, entxyfatuak eta lan ziztrinak!

Idazten (aurrekoari lotua)

Arloa	Euskal hizkuntza eta Literatura
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Giza Eskubideen Hezkuntzari buruz hausnartzea
Zehar-lerroa	Arrazismoa, sexismoa
Materialak	Testua
Iraupena	Ordu bat

Nola egin:

1. Proposamena. Idazmena lantzeko

Hiztegitik bat-batean ateratako hiru hitzez, ipuin edo istorio labur bat asmatu. Adibidez:

- *telefonoa, ilea eta langabezia.*
- *ijitoa, neska, enplegatzailea* (aurreko ariketako testuaren jarraipena).

Oharrak: Gutxienez 300 hitz.

Edukiak, zuzentasuna, aberastasuna eta jatortasuna zaindu.

Letra txukuna egin. Puntuazio markak eta ortografia zaindu.

(Eredu bat nahi izatekotan, hortxe dago "Mirentxoren balentriak..." testua).

2. Beste proposamen bat. Idazmena lantzeko.

(Bide batez, binaka egingo denez, mintzamena ere landuko da).

Ikasleak taldeka, biribilean ipiniko ditugu. Ikasleei ipuin baten lehenengo atala emango diegu. Haiiek, binaka, ipuinaren jarraipena asmatu eta idatzi egin beharko dute.

Bost minutu geroago, eskuinean daukaten bikoteari idatzitakoa emango diote eta ezkerretan daukaten bikotearena jaso, eta hori irakurri, zuzendu eta aurrekoek asmatutakoari jarraipena eman beharko diote. Bost minuturo paperen aldaketa egingo da.

Irakasleak, jarraian ematen dugun ipuinaren hasiera banatu dezake, edo antzeko beste bat.

Ikasle guztiak idatzi beharko dute; ez du balio batek diktatzea eta besteek idaztea. Horrela, hurrengo bikoteak bi kopia izango dituzte, errazago ulertzeko.

Ipuinen hasierak:

Lehenengo haisera: Herri hartara oso urrunetik etorri zen, lan egiteko gogoz...

Bigarren haisera: Ez zuen inor ezagutzen, eta tren geltokira iritsi zenean, bakar-bakarrik sentitzen zen. Hizkuntza ezagutzea gustatuko litzaioke baina...

Hirugarren hasiera: Neska izanagatik ezin izango zuela lan hura behar bezala bete! Bai eta zera ere! gozo ipini zen Mirentxo...

Laugarrena: Bere azalaren koloreak ez zuela zerikusirik esan zioten, baina egunkarian agertzen zen eskaintza, tamalez, dagoeneko beteta zegoela... Betikoa!

Idatzi gutun bat

Arloa	Euskal hizkuntza eta Literatura
Maila	DBH eta Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Hezkuntzari buruzko hausnarketa egitea
Zehar-lerroa	Arrazismoa, sexismoa
Materialak	Testua (gutuna)
Iraupena	20'

Nola egin:

Teknika: Eskutitza. (Formala)

1. Proposamena. Gaiari eutsiz, gutun bat idatzi.

Gaia:

Zure semearen edo alabaren eskolan hiru ikasle berri sartu dira. Hirurak ijitoak dira. Umeari, eskolan zer moduz galdetu diozunean, orain ezer gutxi ikasten dutela esan dizu, maisua hiru berriei behin eta berriro ixiltzeko eta ixiltzeko esaten aritzen delako.

Beste gurasoeekin hitz egin duzu, eta eskolako zuzendariari gutun bana idaztea erabaki duzue.

Oharrak:

- Gutxienez 300 hitz.
- X minutu.
- Edukiak, zuzentasuna, aberastasuna eta jatortasuna zaindu.
- Letra txukuna egin.
- Puntuazio markak eta ortografia zaindu.

2. Proposamena.

Ikasleak irakasle lanetan ipiniko ditugu, (binaka, mintzamena ere lan dezaten). Guk emandako gutuna zuzendu beharko dute. Zuzenketa ez da zertan kanpoko itxuran geratu behar. Edukiak ere kritika daitezke.

Zuzentze lanetarako, lagungarri izan daitezke honako hiru parrafo hauek:

Ikaslearentzat:

Kontuan hartu beharrekoak: ortografia, parrafoen eraketa, puntuazio markak, lokailuen erabilera, argitasuna, zuzentasuna eta edukia bera. Esate baterako, ikasleak idazten badu "ijito guztiak beltzaranak dira" itxura aldetik esaldi zuzena izango da, baina eduki aldetik ez.

Testuko esaldiek ulerterrazak izan behar dute, eta euskal moldeari itsatsiak. "Ilea hartu" esate baterako zuzendu egin beharko litzateke eta adarra jo-edo ipini.

*Hitzen errepikapenak-eta, estilo aldetik itsusiak direnez gero, zuzendu beharrekoak izango dira. Esaldien ordenari ere arreta berezia ipini behar zaio, galdegaia eta mintzagaia behar bezala erabiliz. (*Ea noiz etorri den? Goizean amarekin etorri da, jakina!)*

Koherentzia eta kohesioa ere zaindu behar dira. Ez dago goiko parrafoan gauzak zuriak direla eta beheko parrafoan beltzak direla esaterik. Argudioek, arrazoiek lotuta egon behar dute modu logiko batean.

Edukiari lotuta, gero, arrazakeriaren gaia jorratzea ere badago. Gaiaren planteamendua, hau da ariketa bera, arrazista al da? Euskaltegiko ikasle horrek egindako eskutitzean jarrera arrazistak antzematen al dira? Zergatik?

3. Proposamena.

Mintzamena lantzeko **eztabaidarako gaia**. Eskolak edo irakasle batek, ba al du ijito horiei haientzat arrotza den kultura bat irakasteko eskubiderik? Gazte horien gogoz kontra izanda ere bai? Eta bere gurasoen gogoz kontra? Zergatik gailendu behar da kultura bat beste baten gainetik? Zilegi al da? Ijitoena zer da, kultura ala kulturgabekeria?

Frantzian neskato magrebiar batzuen inguruan ere polemika sortu zen. Neskei, eskolan, burua estaltzeko zapia ez erabiltzeko esaten zitzaaien, eta beren gurasoen kultura matxista hutsa zela irakasten zitzaaien. Horrelako gauzak ikasteko, guraso magrebiar askok nahiago zuten beren alabak etxean geratzea eskolara joatea baino... Guraso horiek derrigortu egin beharko al lituzkete alabak eskolara bidaltzera? Bai ala ez? Zergatik?

Ikaslearentzat:

Zuzen ezazu honako idazlan hau.

Euskaltegi bateko ikasle batek egindako idazlana:

Bilbon, 1999.ko urtarrillaren 26. an

Zuzendari jauna txit agurgarria:

Gutun honen bidez eskolan sortutako arazoren bat zuen ezagutza ipintzea nahi izango genizuke. Azken bolada hontan ijitoak eskolara sartu direnetik, konkretuki, gure semeak egunero etortzen dira etxera kexaka. Dirudienez ijitoak eskolara heldu direnetik honera, klasean ez dago modurik ikasgaiak jarraitzeko ijitoak denbora guztia ohiuka eta ohiuka egoten direlako. Maixuak beti ixiltzeko eta ixiltzeko agintzen die etengabe eta hola egunak eta orduak pasa dira ezer ere ez egin gabe. Baina hau ez da guztia, denboralditxo hontan gure klaseko bost umeez zoriak harrapatu eta dauzkate, eta guk ez dakigu hiru ume ijito hauek zoriak dauzkaten ala ez, baina eskola hontan inoiz ere ez da gertatzen gauza horrela eta beste ume batzu askotan ijitoak jotzen dietela esaten etortzen dira etxera, eta guraso batzu honetas kopeteraino daude, eta guk,

benetan, ijitoen integrazioa sinisten dugu, baina eskola batean egoteko ikasteko gogoak haundiak erakutzi behar dituzte, beste era batera ez daukagu zer egin. Guk ez dugu nahi bere kultura uko egin baina ikastetxe batean arau oinarri batzu egon behar da eta guztiak haien mempean egon behar gara ondo moldatzeko, gero eskolatik irtetean bakoitzak bere ohiturak jarrai ditzakegu. Onena izan daiteke irakasle berezi bat ipintzea ijitorentzat edo eta psikologo berezi bat, gazte konfliktiboak ezin direlako beste ikasle normalekin nahastu. Hori da behintzat guk uste dugula.

Gu uste dugu ijitoen gurasoekin hitz egin behar dala guztion artean aukeraren bat aurkitzeko, bestela arazoa haundituko da. Gure eskakizuna kontutuan hartuko duzulakoan, ezkerrek aurretik emanaz

begirunez agurtzen dizugu. Adeitasunez: Agur t' erdi.

Izptua: Martin Martínez Martirikorena.

Ikaslearentzat (Orri hau, ariketaren bukaeran eskuratzea da):

Honako testu hau aurrekoarekin alderatu.

Euskaltegiko irakasle batek eskutitza zuzendu eta gero, horrela geratu zen:

Bilbon, 1999ko urtarrillaren 26an.

Zuzendari hori:

Gutun honen bidez, eskolan sortutako arazo baten berri eman nahi dizugu.

Azken bolada honetan, ijito batzuk eskolara sartu direnetik hona hain zuzen ere, gure seme-alabak egunero etorri izan dira etxera kexuka. Dirudienez, ijito horiek eskolara heldu direnetik, ikasgelan ez dago ikasgai jarraitzeko modurik, ijitoak oihuka aritzen direlako sarri. Maisuak isiltzeko agintzen die etengabe, eta horrela egunak joan eta egunak etorri, inolako konponbiderik aurkitu gabe.

Baina hau ez da dena; aspaldi honetan gure klaseko bost ume zorriz bete dira, eta guk ez dakigu hiru ume ijito horiek zoriak dauzkaten ala ez, baina eskola honetan inoiz ez da horrelakorik gertatu. Bestalde, ume batzuk, askotan, ijitoek jotzen dituztela esanez etortzen zaizkigu etxera, eta gurasook honetaz kokoteraino

gaude, eta guk, benetan, ijitoen integrazioan sinisten dugu, baina eskola batean egoteko, ikasteko gogo handia erakutsi beharko lukete, bestela ez dago zer eginik.

Guk ez dugu haien bere kulturari uko egiterik nahi, baina ikastetxe batean oinarriko arau batzuk izan beharko lirake eta ikasle guztiek haien menpe egon beharko lukete. Gero, eskolatik at, bakoitza bere ohiturei jarrai lekieke.

Beraz, ijitoentzat, irakasle berezi edota psikologo bat ipintzea izan liteke onena, ezin direlako gazte konfliktiboak beste ikasle normalekin¹ nahastu. Hori da behintzat guk uste duguna.

Gure ustez, ijitoen gurasoekin hitz egin beharko litzateke, guztion artean irtenbideren bat aurkitzeko, bestela arazoa larriagoa bihur liteke.

Gure eskakizuna kontutan hartuko duzulakoan, eskerrak aurretik emanaz, begirunez agurtzen zaitugu. Agur t' erdi.

Martin Martínez Martirikorena.

¹ Beraz, zure ustez ikasle ijitoak anormalak dira, ezta? (!!!).

Erokeria?

Arloa	Euskara. Natur zientziak. Gizarte zientziak, Geografia eta Historia
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Gaurko kontsumitzeko ohituren ondorioez gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Ingurugiro-hezkuntza
Materialak	Ondorengo testuak
Iraupena	Ordu bat

Nola egin:

Girotzeko irakasleak honako asmakizuna azalduko du:

Asmakizuna

Herri hartako biztanleei jainkoek honako tratu hau eskaini zieten: aurrerantzean, bizitzeko denbora gehiago emango zieten, leku batetik bestera joateko behar izango zuten denbora laburragoa izango zelako. Gainera, askatasun gehiago izango zuten biztanleek. Tratua onartzen zutenek libreago, autonomoago eta dotoreago sentituko ziren.

Baina tratua onartzen zuten biztanleek urtebeteko lanaren etekina eman beharko zieten jainkoei hamar urtean behin. Horretaz gain, jainkoek eguratsaren zati

bat eramango zuten urtero. Bukatzeko, jainkoek zozketa egingo zuten tratua onartzen zuten artean, eta urtero, zazpi mila biztanletik bat eramango zuten osorik, eta beste bosti gorputzeko zatiren bat kenduko zieten. Zozketetan gehienetan gazteen gorputzak eramateko asmoa zuten jainkoek.

Herri hartako biztanle gehienek pozik onartu zuten tratua.

Zer da jainko haiek eskaini zutena?

Planetako biztanleentzat tratua alde ona	Tratua alde txarra
Askatasuna irabaziko zuten.	Irabazten zutenaren hamarrena jainkoei eman beharra (bere lanaren etekinaren hamarrena).
Denbora irabaziko zuten.	Eguratsaren zati bat jainkoei eman beharra.
Dotorezia irabaziko zuten.	Zazpi mila biztanletik baten gorputz osoa, eta beste bosten zatiak edo atalak.

Beste galdera batzuk:

1. Asmakizuna; zer da jainko haiek eskaini zutena?
2. Gure munduan zenbat biztanlek onartu dute «tratu»? «Lehen munduan? «Hirugarrenean?»
3. Zein dira zure ustez autoen alde onak eta txarrak?
4. Gauzak dauden bezalatsu jarraituz gero, noiz arte eutsi geniezaioke «beribilaren kulturari».
5. Munduko biztanle guztiek «parraldean» beste beribil izango balute, zer gertatuko litzateke?
6. Zein da gazteen artean heriotza gehien sortzen duen gaitza edo «eritasuna»?
7. Zer deritzozu beribil gabeko egunari? (Urtean behin beribil pribaturik ez erabiltzeko eskatzen da).
8. Etorkizunean zer gertatuko da garraioekin petrolioa agortzen bada, edo izugarri garestitzen bada?
9. Apurtu al daiteke gupil zoroa?

Garraio publikoak kaskarrak dira jende gutxik erabiltzen dituelako, eta jendeak ez ditu erabiltzen kaskarrak direlako.

Diru publikoa errepideak eta autobideak egiten xahutzen da, trenbideak edo tranbien bideak egiten baino ugariago. Jendeak nahiago omen ditu beribil pribatuak trenak baino, eta beraz, zergekin errepideak egiten dira. Errepideak onak badira eta trenak txarrak, jendeak beribila erosteko beharra sentitzen du.

Zenbait kalkulu:

Espainia bezalako estatu batean (gutxi gorabehera 40.000.000 biztanle), ia-ia beribil bat dago lau biztanleko (8.000.000 inguru beribil omen dago). Geroz eta kotxe gehiago dago biztanleko, eta batez besteko potentzia eta zilindrada ere geroz eta handiagoa da.

Urtero bost mila lagun baino askoz gehiagok galtzen du bizitza Espainiako errepideetan.

Gure gizartean gazteentzat bizitza edo osasuna galtzeko arriskurik handiena errepideak sortzen omen du. Gazteen artean heriotzen lehen kausa trafikoko istripuak omen dira.

Kotxe berri baten salneurria, gehi aseguruak, gehi mantemimendua (olioa aldatu behar 15.000 km-ko, gurpilak 35.000 kilometroko...), gehi erregaia, gehi zergak... Gure gizartean pertsona gehienek irabazten dutenaren hamarrena izango al da? Gehiago? Gutxiago? Ikasleek beren gurasoei eska diezaiekete kalkulua egiteko, ea hamarren hori betetzen ote den.

Irakaslearentzat:

Asmakizunaren erantzuna: beribila.

Petrolioa

Arloa	Natur zientziak. Kimika
Maila	DBH, Batxilergoa
Helburua	Gaurko kontsumitzeko ohituren ondorioei buruz gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Ingurugiroa
Materialak	Honako galdera hauek
Iraupena	30'

Nola egin:

Honako galderen erantzunak bilatzen saiatu beharko dute ikasleek. Binaka edo hirunaka. Erantzuna nonbait bilatzen edo, errazago, dakitenarekin asmatzen saiatuko dira ikasleak.

1. Egunero erabiltzen ditugun gauzetatik, zeintzuk dira petroliotik sortuak? Egin zerrenda bat, ahalik eta osoena.
2. Kontsumo erritmo horri bere horretan eutsiz gero, noiz arte izango dugu petrolioa munduan?
3. Petrolioa bukatuko balitz, nola beteko litzateke hutsune hori?
4. Aztertu ea ondorengo gauzek petroliorik duten ala ez (edo petroliotik eratorritako produkturik duten).

Glizerina, parafina, nyloa, belkroa, daramazun arropa (ehun sintetikoak, botoiak ...), arropa garbitzeko xaboia, eskuak garbitzeko xaboia, txanpua, dutxako xaboia (gela), hortzorea, bizkar-zakua, liburuak, moldeko ogia, supermerkatuko txorizoa, supermerkatuko pastelak (madalena eta), harrikoa egiteko xaboia, etxea garbitzeko xaboia, eguzkitarako krema, garbigailu automatikoa, zurgagailua, PVC-zko leihoak, gainean duzun lanpara, darabilzun erlojua, telebista, ordenadorea...

5. Noren eskuetan dago petrolioaren negozioa? Non dago petrolioa? Nork ateratzen du etekina?
6. Ingurugiroa gaur zaintzea, datozen belaunaldien giza eskubideak zaintzea al da?

Irakaslearentzat:

Gure asmoa hausnarketa txiki bat bultzatzea besterik ez da. Beraz, ez gara gehiegi luzatuko, eta agian ez gara zehatzegiak izango honako zerrenda honekin:

1. **Plastikoz** egindako gauza guztiak petroliotik eratorriak dira. Beraz, merkatu batean eros daitezkeen ia gauza guztiek petrolio pixka bat behar izan dute (erosten dugun zerk ez dauka plastikoa, estalkian edo barnean?)
2. **Labaingarriak (lubrifikatzaileak)** petrolioarekin egiten dira. Eta, jakina, makina mekaniko guztietan beharrezkoa da labaingarriren bat erabiltzea.
3. **Erregaiak:** gasolina, gasolioa, butanoa, propanoa, hiri-gasa...
4. Janari askotan, kosmetiko askotan, petroliotik ateratako **koipeak**, glizeridoak-eta agertzen dira, baina nekez aurkituko duzue informazio hori eroslearentzat ekoizleek ipintzen dituzten oharretan. Janari batean, esaterako, itsusia da «petrolio kontsumigarria» sartu dela aitortzea. Gauza bera gertatzen da kosmetikoekin, inork ez du «petrolioa» bere labelean ipini nahi. Beraz, saltzaileek osagaien zerrendetan petroliotik eratorritzen diren ekoizkinen izenak aipatu bai, baina inork ez du petrolioa bera zuzenean aipatzen.

Ikasleei galde diezaiekegu zein hutsune den betetzen zailena: plastikoena, erregaiena ala labaingarriena.

Emakumezkoek oraindik lan gehiago egiten dute etxean

Arloa	Euskara. Etika. Matematika. Gizarte zientziak, Geografia eta Historia
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Gaurko gizarteko ohituren ondorioei buruz gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Sexu-berdintasunerako hezkuntza
Materialak	Ondorengo testuak eta taulak
Iraupena	10' + 30' (bi saiotan)

Nola egin:

Bi saiotan. Lehengo saioan honako etxeko lana bidali beharko zaie ikasleei.

Etxean kalkulatu egin beharko dute zenbat denbora behar den, astean zehar, ezinbestekoak izaten diren etxeko lan horiek egiteko. Gurasoei laguntza eska diezaiekete kalkulua egiteko.

Ikaslearentzat:

<i>Etxeko lanak</i>	<i>Behar den denbora (astebetean)</i>
<i>Harrikoa egin</i>	_____
<i>Ohea egin</i>	_____
<i>Arropa garbitu</i>	_____
<i>Komuna garbitu</i>	_____
<i>Sukaldea garbitu</i>	_____
<i>Egongela garbitu</i>	_____
<i>Logelak garbitu</i>	_____
<i>Gosaria prestatu</i>	_____
<i>Bazkaria prestatu</i>	_____
<i>Askaria prestatu</i>	_____
<i>Afaria prestatu</i>	_____
<i>Arropa lisatu</i>	_____
<i>Erosketak egin</i>	_____
<i>Etxeko konponketak</i>	_____
<i>Bestelakoak</i>	_____
<i>Guztira</i>	_____

Bigarren saioa. Ikasleek ikasgelan kalkulatu beharko dute beren etxean etxeko lanak nola banatzen diren. Aitak zer egiten duen, amak zer egiten duen, semeek, alabek...

Bukatzeko, denbora horiekin batuketak egin eta kalkulatu etxeko lanak nola banatzen diren gizonezko eta emakumezkoen artean.

Ikaslearentzat:

<i>Etxeko lanak</i>	<i>Behar den denbora (astebetean)</i>	<i>Gizonezkoek ematen duten denbora</i>	<i>Emakumeek ematen duten denbora</i>	<i>Gizonezkoek egiten duten %a</i>	<i>Emakumeek egiten duten %a</i>
<i>Harrikoa egin</i>	_____				
<i>Ohea egin</i>	_____				
<i>Arropa garbitu</i>	_____				
<i>Komuna garbitu</i>	_____				
<i>Sukaldea garbitu</i>	_____				
<i>Egongela garbitu</i>	_____				
<i>Logelak garbitu</i>	_____				
<i>Gosaria prestatu</i>	_____				
<i>Bazkaria prestatu</i>	_____				
<i>Askaria prestatu</i>	_____				
<i>Afaria prestatu</i>	_____				
<i>Arropa lisatu</i>	_____				
<i>Erosketak egin</i>	_____				
<i>Etxeko konponketak</i>	_____				
<i>Bestelakoak</i>	_____				
GUZTIRA					

Ondorioak:

EUSTATEN azken ikerketen arabera emakumezkoek batez beste gizonezkoek baino hiru aldiz gehiago lan egiten dute beren etxeetan. Gizonezkoek, ordea, denbora libre gehiago izaten dute. (Ikusi *Euskaldunon Egunkaria*, 1999ko maiatzak 5, 22. or.).

1. Gure ikasgelan agertu diren emaitzak oso bestelakoak al dira?
2. Zergatik ez dira etxeko lanak erdibana egiten, gizonezko eta emakumezkoen artean eta guraso eta seme-alaben artean?
3. Egun daukagun egoera bidezkoa al da? Zergatik?
4. Nola konpon liteke?

Gure turista

Arloa	Euskara. Etika. Gizarte zientziak, Geografia eta Historia. Historia garaikidea. Ekonomia
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa
Helburua	Gaurko gizarteko ohituren ondorioei buruz gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Garapenerako Hezkuntza
Materialak	Ondorengo testuak eta galderak
Iraupena	30'

Nola egin:

Girotzeko *Les Mecaniciens* taldearen «Gure turista» abestia entzun daiteke.

Ikasleei honako testu hauek emango zaizkie, irakur ditzaten. Binaka ipiniko dira ikasleak, eta ikasle bakoitzak testu bat irakurri eta bere bikotekideari laburtuko dio.

A ikaslea

Azpiagaraturik dauden herrialdeentzat irtenbiderik errazena turismoa da. Lehen sektorean murgilduta dauden herrialdeetan industrializazioa askotan helburu zailegia da. Industriak jende teknikoki ondo prestatua eta azpiegitura garestiak behar ditu. Behar den kapitala ere, inbertsioa, ez da txantxetako izaten. Lehenengo sektoretik bigarreneira dagoen jauzia, hirugarrenearaino dagoena baino askoz handiagoa da.

Herrialde txiroetako agintaririk azkarrenak horretaz aspaldi jabetu ziren. Lehen mundura gauzak saltzera

joatea baino askoz errazagoa da lehen mundukoak erakartzea eta gauzak herrian bertan saltzea.

... / ...

Turismoa da txiroek asmatu duten gauzarik hobena. Hirugarren munduko nekazari batek 100 \$ irabazteko bi hilabete behar du. Turisten gidari bihurtuz gero, ordea, astebete. Eta gainera, turistek beti pentsatzen dute bertakoak ustiatzen ari direla.

Donald G. Richman. The sun is shining for you. McGrewUp Hall. Los Angeles. 2000.

B ikaslea

Turismoa kolonialismoaren azken helmuga da. Lehenengo munduarentzat, egun, ez da nahikoa armak garesti saltzea, lehengaiak ia doan erosten diren bitartean. Lehenengo mundukoentzat ez da nahikoa pobreak betiko pobre mantendu eta aberatsak gero eta aberatsago bihurtuko duen sistema hau modu zikinenean iraunaraztea. Horretaz gain, lehenengo mundukoek txiroak jopu izatea, morroi izatea, nahi dute. Aberatsen zerbitzuan egotea.

... / ...

Hirugarren mundura joaten bazara, hortxe ikusiko dituzu turista tipiko horiek, alkandora koloretsuak

jantzita, argazki kamera edo bideo kamera daramatela... Hirugarren munduko herrietara turismoa egitera joan, eta erdi aroko handikiek bezala jokatzen dute. Haientzat guztiak dira jopu. Edozein zerbitzu oso merke eros dezakete...

Bertakoen lana erosi baino, bertakoen dignitatea erosten dute...

Norman Trotmsky. Askatasuna esportatzen. (Internetetik kopiatua, dohaineko webgune berdea, www.trust_me@free-dom.com)

Galderak:

1.- Zein dira herri txiroetan egiten den turismoaren alde onak eta alde txarrak?

Turismoaren alde onak	Turismoaren alde txarrak

2.- Turistek kontuan hartzen al dute giza eskubideen egoera turismoa egitera doazenean? Hau da, herri batean giza eskubideekin begirunerik ez badago, turistek boikota egiten al diote?

3.- Nortzuk egokitzen dira besteen ohituretara, turistak bisitatzen dituzten herrien ohituretara ala bertakoak turisten ohituretara?

Giza Eskubideen Hezkuntza: Zertarako?

Arloa	Euskara. Etika. Gizarte zientziak, Geografia eta Historia
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa
Helburua	Giza Eskubideen Hezkuntzari buruzko hausnarketa egitea
Zehar-lerroa	Giza Eskubide eta Bakerako Hezkuntza
Materialak	Ondorengo testuak eta galderak
Iraupena	Ordu bat

Nola egin:

Ikasleei honako galdera eta erantzunak banatuko zaizkie:

Galderak:

- 1.- Zure ustez, Giza Eskubideak eskoletan irakatsi eta landu egin behar al dira?*
- 2.- Nola?*

Ikasleak binaka ipiniko dira. Orri bana irakurriko dute. Ikaskideari irakurritakoaren berri emango diete, eta gero, bakoitzak bere erantzunak idatzi beharko ditu. Bukatzeko, mahaingurua egin daiteke.

A Ikaslearentzat**Aitor Argoitia. Ikaslea.**

EZ. Nahikoa matraka ematen digute Mate, Fisika, Lite eta horrelakoekin. Falta zitzaiguna: orain beste matraka bat giza eskubideekin.

Ainhara Pereda. Ikaslea.

BAI. Eskoletan agian ezertarako balio ez duten txorakeria asko ikasi behar izaten ditugu, baina giza eskubideak munduko eskola guztietan ondo irakatsiz gero, mundua hobea litzateke. Ez litzateke hainbeste gatazka egongo, edo gatazkak konpontzeko ez litzateke hainbeste astakeria egingo.

Hasier Hormazabal. Udaleko langilea.

Ez dakit. Ez dakit zer izango litzatekeen Giza Eskubideen hezkuntza hori. Nik badakit horrelako dokumentu bat badagoela, Aldarrikapen Unibertsala delakoa edo, guztiok berdina izan behar dugula, eta hori guztia... arrazakeria eta sexismoa saihestu behar direla, eta abar. Baina hiritar arruntentzat, zer? Agian polizia izan nahi dutenentzat horrelako ikastaro bereziak eman beharko lirarteke atxilotuen eskubideak errespetatzeko...

Alberto Vaquero. Kale-garbitzailea.

Ez dakit. Nik ez dakit Giza Eskubideen hezkuntza zertan datzan, baina badakit eskoletan zer irakatsi behar den: jendea hain zikina ez izaten. Herri honetan jendea zikina baino zikinagoa da, batez ere jaietan edo asteburuetan. Ikusi beharko zenuke kaleetako zikinkeria... Eta gainera esaten dizute horrela lana ematen dizutela... Zigarro-muturrak, paperak, plastikoak, txizak, zaborra... Jendeak herri honetan pentsatzen du garbitzaileak egonik kale guztiak zabortege direla, eta denetarik edonon bota dezaketela...

Nerea Brouard. Udaltzaina.

BAI. Guk, herri honetako udaltzainok, behin Giza Eskubideei buruzko ikastaro bat izan genuen eta oso interesgarria izan zen. Eta guztiok ezagutu beharko genituzke giza eskubideak besteen eskubideak errespetatzeko eta geureak ere bete daitezen eskatu ahal izateko.

Ainhua Martin. Langabetua.

Ez dakit. Teorian ondo dago, baina ikastea, ezagutzea eta horrek guzti horrek ez du ezertarako balio. Legeak, Konstituzioak ere esaten du guztiok etxe duina eta lan duina edukitzeko eskubidea daukagula, eta gero, kaka zaharra... Giza Eskubideekin ere, berdin, gauza bat da ikastea eta beste bat gero bizitzan gertatzen dena.

Arantza Telleria. Irakaslea.

BAI. Gaur egun gutxi lantzen bada ere, etorkizunean gero eta gehiago landu beharko dugu alor hau, eta ikasgai guztietan gainera. Ezinbestekoa iruditzen zait eskoletan jokaerari buruzko hausnarketa egitea. Eskola ez da edukiak buruz ikasteko bakarrik, nik uste; eskolan trebetasun asko landu behar dira. Eta besteen eskubideak zein diren ikastea eta besteekiko begirune osoa izatea eskolan landu daitekeen trebetasunik interesgarriena izan daiteke.

Galderak:

Zer deritozu egiten diren bi galderei? Nola erantzun zaio lehenengo galderari? Eta bigarrenari? Jaso diren erantzunak galderari lotu zaizkio ala inguru-minguru ibili dira? Zeintzuk dira gehien gustatu zaizkizun erantzunak? Eta gutxien gustatu zaizkizunak? Zuk zeuk, nola erantzungo zenuke? (Eztabaidatu ikaskidearekin)

B Ikaslearentzat**Jon Arluzea. Saltzailea.**

EZ. Eskola modaz pasaturiko erakunde zaharkitua da. Egun ez du ezertarako balio. Ikasleek gehiago ikasten dute telebistaren aurrean edo lagunekin, irakasleekin baino. Ni eskolan aspertu besterik ez nintzen egin.

Josepa Santxo. Bus gidaria.

BAI. Giza Eskubideak eta batez ere errespetua erakutsi behar zaie gaurko gaztetxoei. Ikusi beharko zenituzke: beti oihuka, batzuetan elkar joka... Badakite autobusean ezin dela jan, eta kakahueteak, pipita-azalak, txikle lehortuak, papertxoak... edonon aurkitzen ditut gero kotxean. Zergatik? Bada inork ez dielako errespeturik irakatsi. Gurasoek irakasleen lana dela eta irakasleek gurasoen lana dela diote. Eta bitartean ume hauek gero eta basatiago. Giza Eskubideak... Errespetua! Horixe da irakatsi behar zaienta gaztetxo hauet!

Joxe Mari Alkain. Iturgina.

Ez zakiat bada. Guk horrelakorik ikasi gabe ere, beti ikasten ibili diren horiek baino pertsona gaiztoagoak ez gaituk, ezta?

Txema Cuesta. Abokatua.

BAI horixe. Giza Eskubideak zein diren ikasi behar dute, GGEE lege guztien gainetik baitaude. Ikastetxean elkartasuna, tolerantzia eta horrelako gauzak erakutsi behar dira, eta ez bakarrik matematika eta geografia.

Javier Etxabe. Langabetua.

Giza Eskubideak. BAI. Horrelako gauza gehiago eta orain irakasten diren moduko gauza gutxiago irakatsi beharko lirateke eskoletan. Esaterako, orain langileria 35 orduko lan astearen borrokan ari da. Eskolan arazo horiek aztertu beharko lirateke, ez hainbeste matematika eta hainbeste ez-dakit-zer. Langileok gure artean lana banatu beharko genuke, eta lanen etekinek nagusientzat izan beharrean langileontzat ere izan beharko lukete... Lana banatu bai, baina etekinak banatu? Noizko?

Xabier Arenaza. Enpresaria.

BAI horixe. Eskoletan ematen den hezkuntzak alde batetik teknikoagoa izan beharko luke, baina beste aldetik, humanismoa, giza zientziak-eta, landu beharko lirateke.

Zertarako balio du, esaterako, fisikari ona izateak, gero bonba atomikoak egiten jarduteko asmoa baduzu?

Nekane Landeta. Langilea.

EZ. Nahikoa baino gehiago ikasten da dagoeneko eskoletan. Umeek behar dutena ikasketa gutxiago eta aisialdi gehiago da. Gaurko umeak beti ikasten ari dira gizarajoak: eskolatik ingelesera, gero judoa, gero pianoa, gero ez dakit zer. Etxeratzera leher eginda egoten dira eta ez daukate telebista ikusteko astirik ere. Gazteek behar dutena, jolasteko eta lagunekin ibiltzeko denbora da, ez eskoletan lan gehiago.

Roberta Pastor. Medikua.

BAI. Modu batean edo bestean ikasi egin beharko litzateke eskolan bertan. Etikaren ikasgaian edo... Zertarako balio du hainbeste eduki ikasteak, gero, besteak laguntzeko izan beharrean, norbera aberasteko eta besteen kalterako erabiltzen badira eduki horiek?

Galderak:

Zer deritzozu egiten diren bi galderei? Nola erantzun zaio lehengo galderari? Eta bigarrenari? Jaso diren erantzunak galderari lotu al zaizkio ala inguru-minguru ibili dira? Zeintzuk dira gehien gustatu zaizkizun erantzunak? Eta gutxien gustatu zaizkizunak? Zuk zeuk, nola erantzungo zenuke? (Eztabaidatu ikaskidearekin)

Hiru bertso: "Atzerritar batek Euskal Herria bisitatu du"

Arloa	Euskara. Musika. Etika. Gizarte zientziak, Geografia eta Historia
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
Helburua	Geure buruaren autokritika lantzea
Zehar-lerroa	Ingurugiro-hezkuntza
Materialak	Ondoren doazen hiru bertsoak eta galderak
Iraupena	Ordu bat

Ikasleentzat:

Gai jartzailerak: "Zu atzerritik etorri zaren turista zaitugu. Kontatuko diguzu hiru bertsoan zer iruditu zaizun geure herria?"

Jon Eizmendik:

*Aurtengo udan oportetara
joana naiz Euskal Herrira,
nire begiak gozatu ditut
gauza askori begira,
azken finean bi gauza datoz
orain nire memorira:
egun luzeen pilpira,
gau magiaren distira.
Ai zer-nolako aldaketa den
herri txikitik hirira,
egia esan euskaldun hauek
arraro samarrak dira.*

*Atzerritarrak aurki ditzake
gauza onik bezain txarrik,
hiriburuko trafikoko hotsa
ez daukat aipa beharrik,
jendea dabil haruntz-honuntza
iparra galdu samarrrik;
bada bai eskale zaharrik
esku-luzatzen alferrik.
Hortaz aparte, leku askotan
ez dute biltzen zakarrik,
paperontziak badaude baina
adornatzeko bakarrik.*

*Argazki asko ateratzeko
izan dut aurten aukera,
museotatik maiz joaten nintzen
pintxo ederrak jatera,
txikiteroen ohitura hortan
parte hartuaz gainera,
handik berriz gaualdera
diskotekan dantzatzera.
Asteburuko joan-etorriak
ez zaizkit merke atera;
diru mordo bat aurrezten badut
itzuliko naiz ostera.*

1. Inork ezagutzen al du zuzen puntuko bertso horiek abesteko doinu egokirik? Ea nor ausartzen den bertsoak abesten. (Letra etzanaz dagoena birritan abestu behar da).
2. Zer gustatu zaio atzerritarri Euskal Herrian? Zer ez zaio gustatu?
3. Galdetu al diozu inoiz kanpotar bati nola ikusten gaituzten? Gutaz daukaten irudia zuzena al da? Zergatik?
4. Guk kanpotarrei buruz dauzkagun iritziak haiek gutaz daukatenak baino zehatzagoak al dira?
5. Benetan pentsatzen al dute atzerritarrek euskaldunok nahiko zikinak garela eta ez dakigula paperontziak erabiltzen? Ikusi al duzu inoiz zarama behar ez den tokian botatzen?
6. Demagun kalean zoazela eta zure ondok pasatzen den norbaitek plastikozko zerbait botatzen duela lurrera. Zer esango zenioke?
7. Eztabaidatu. Zerbait esaten badiozu nor da zakarra? Zu berari zer egin behar duen esateagatik, ala hura behar ez den tokian zaborra botatzeagatik?
8. Eztabaidatu. Bertsolariak eskaleak aipatu ditu. Eskaleei diruz lagundu behar al zaie? Batzuek ezetz diote, eskaleari eskua luzatzeagatik dirua ematen badiogu betiko eskale izango dela; besteek baietz, behartsuari nola edo hala, eskupekoekin besterik ezean, baina lagundu egin behar zaiola.
9. Eztabaidatu. Bertsolariak aipatu dituen euskaldunen denborapasak osasungarriak al dira? Zergatik?

Ezetz!

Arloa	Etika. Euskal hizkuntza eta Literatura
Maila	Bigarren Hezkuntza
Helburua	Baloreei buruz gogoeta egitea
Zehar-lerroa	Sexismoa, arrazismoa
Materialak	Argazki bat. DIN A3-an fotokopiaturik
Iraupena	30'

Nola egin:

Irakasleak hemen ematen dugun argazkiaren fotokopia handiago batzuk egingo ditu. Ikasleak hiruak edo lauak ipiniko dira. Talde bakoitzari fotokopia bana emango zaio, eta honako egoera azalduko zaie:

Zuek, udaleku batean begirale zaudete. Berrogei bat umerekin hamabostaldia egingo duzue. Zuen umeen artean denetarik dago, baina zuen artean eztabaida sortu da bi ume direla eta:

- Neska batek ez du igerilekura joan nahi eta ez du zenbait kiroletan parte hartu nahi. Gainera ez ditu hainbat jaki jan nahi, txerriak dutela pentsatzen duelako, edo susmo txarra hartzen dielako. Eta ez du inolaz ere bere jarrera aldatu nahi. Haren jarrera aldatzen modu guztietara saiatu bazarete ere, ez du inolaz ere aldatu nahi. Neska horrek txadorra janzten du beti, ilea ez erakusteko. (Neska musulmana da).
- Udaleku hauetan umeek lan batzuk egin behar dituzte: gelak garbitu, oheak egin, harrikoa egin, komunak garbitu... Mutil batek ez ditu inolaz ere lan horiek egin nahi, bere ustez «emakumezkoen lanak» direlako. Berak esaten du bere inguruan gizonezkoek ez dutela horrelakorik egiten, eta bere familiakoek edo lagunek horrelako «maritxukerietan» ibili dela jakinez gero, erabat barregarri geratuko dela. Berak esaten du egurra moztuko duela, sua piztu eta horrelakoak, baina harrikoa egin-eta, ez! Inolaz ere ez! Zuok, begiraleok, saiatu zarete mutila modu onean gogatzten, baina alferrik. (Mutila, ijitoa da).

Ikasleei esango zaie, hasteko, banaturiko fotokopian, argazkiaren ondoko bazter zurietan **idatz ditzatela** egoera konpontzeko beren proposamenak. Ikasle guztiek batera idatziko dute orrialdean, elkarrekin **hitzik egin gabe**.

Gero, taldekideek idatzitakoa irakurri eta taldean komentatuko dituzte besteen iritzia.

Bukatzeko, ikasgelako guztiek, irakaslearekin batera egoera konpontzeko azaldu diren proposamenak erkatuko dituzte.

Galderak:

- Bi ume horiek behartu egin behar al dituzte? Hau da, neskari txadorra kendu behar al diogu eta txerriak janarazi, ikus dezan ez dela ezer txarrik gertatzen, eta mutila «emakumezkoen lanak» egitera behartuko al dugu, hain matxista ez izaten ikas dezan?
- Kontua da begiraleek balore batzuk dauzkatela eta bi ume horiek beste batzuk. Irakasleek edo begiraleek ba al dute eskubiderik ikasleei beren baloreen arabera heziketa bat emateko? Zergatik?

Autoebaluazioa

Arloa	Tutoretza
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Autoebaluazioa
Zehar-lerroa	Barneko gatazkak konpontzea
Materialak	Testa
Iraupena	30'

«Neurtzen ez duguna nekez hobetuko dugu».

Lord KELVIN.

Testa:

Erabat ados nago = 5.

Neuk kontrakoa esango nuke = 0.

- | | |
|--|--------------|
| 1. Eskoletan primeran pasatzen dugu. | 0 1 2 3 4 5. |
| 2. Puntualitatea falta zaigu; eskolak beranduegi hasten dira. | 0 1 2 3 4 5. |
| 3. Ikasleok gure artean ondo konpontzen gara; giro ona dago. | 0 1 2 3 4 5. |
| 4. Eskola orduetan ikasleok gure artean hitz egin eta ez diogu irakasleari jaramonik egiten. | 0 1 2 3 4 5. |
| 5. Irakasleek ez digute gure artean eskola orduetan txintik ere esaten uzten. | 0 1 2 3 4 5. |
| 6. Egiten ditugun ariketak astunegiak dira. | 0 1 2 3 4 5. |
| 7. Ikasgeletan ikasleok besteen aurrean hitz egiteko ohitura landu beharko genuke. | 0 1 2 3 4 5. |
| 8. Eskoletan irakasleei entzuteaz gain, ezer gutxi egiten dugu. | 0 1 2 3 4 5. |
| 9. Eskoletan idazlan gehiegi agintzen digute. | 0 1 2 3 4 5. |
| 10. Etxerako lan gehiegi agintzen digute eskola honetan. | 0 1 2 3 4 5. |
| 11. Eskola honetan ez zaigu nahikoa bultzatzen irakurtzera. | 0 1 2 3 4 5. |
| 12. Eskola honetan gehiegi irakurtarazten digute. Obsesionaturik dirudite. | 0 1 2 3 4 5. |
| 13. Irakurtzen ditugun artikuluak eta liburuak ez dira batere egokiak. | 0 1 2 3 4 5. |
| 14. Taldeka lan egiteak alferkeriara bultzatzen gaitu. Edozeri buruz hitz egitera, edonola. | 0 1 2 3 4 5. |
| 15. Talde txikietan ipintzen garenean, ez dugu gehiegi ikasten inork ez gaituelako behartzen. | 0 1 2 3 4 5. |
| 16. Egunero, orduko 13 minutu baino gehiago galtzen dugu (berandu hasten garelako, eta abar). | 0 1 2 3 4 5. |
| 17. Irakasleak ez gaitu batere animatzen ikastera. | 0 1 2 3 4 5. |
| 18. Irakasle honek ez daki gu motibatzen; bere burua ere aspertzen du. | 0 1 2 3 4 5. |
| 19. Idazteko eskatzen zaigunean, aspertu besterik ez gara egiten; ikasi, gutxi ikas daiteke horrela. | 0 1 2 3 4 5. |
| 20. Ikasgelan bertan idazlan gehiago egin beharko genuke. | 0 1 2 3 4 5. |
| 21. Idazlanen zuzenketei garrantzi handiagoa eman beharko genieke. | 0 1 2 3 4 5. |
| 22. Idatzitakoa ikaskideen aurrean ahoz azaltzea ariketa ona da | 0 1 2 3 4 5. |
| 23. Agindutako guztia irakurtzen dut. Dena. | 0 1 2 3 4 5. |
| 24. Eskolarako irakurtzen dudana gain, beste zerbait ere irakurtzen dut. | 0 1 2 3 4 5. |
| 25. Eskoletan, jolas gehiago egin beharko genuke, ondo pasatzen dudalako. | 0 1 2 3 4 5. |

26. Jolas gehiago egin beharko genuke, horrelaxe asko ikasten delako.	0 1 2 3 4 5.
27. Bideo gehiago ikusi beharko genuke, ondo pasatzen dudalako.	0 1 2 3 4 5.
28. Bideo gehiago ikusi beharko genuke, horrelaxe asko ikasten delako.	0 1 2 3 4 5.
29. Abesten eta dantzatzen ikasi beharko genuke eskoletan.	0 1 2 3 4 5.
30. Liburu gehiegi agintzen zaigu hemen irakurtzeko.	0 1 2 3 4 5.
31. Irakasleak arbela gehiago erabili beharko luke; laukiak egin, eskemak, esaldiak idatzi,...	0 1 2 3 4 5.
32. Inork inoiz erabiliko ez dituen gauzak ikastarazten dizkigute.	0 1 2 3 4 5.
33. Nota hobeak ateratzea izan beharko luke gure helburua, ez ikastea.	0 1 2 3 4 5.
34. Ikasgai batzuetan ez da ezer ikasten. Ikasgai horiek kendu egin beharko lituzkete.	0 1 2 3 4 5.
35. Hemengo irakasle batzuek beste lan bat bilatu beharko lukete, ikasle onerako.	0 1 2 3 4 5.

Gure eskolak hobetzeko proposamenak:

Gramatika, jolasak, bideoa, entzuketak, ahozko ariketak, taldeak, irakurlanak, idazlanak, zuzenketak, ebaluazioak, irakaslearen jokaera, ikaslearen jokaera, materialak, eskolatik kanpoko ekitaldiak, irakasleentzako aholkuak, ikaskideentzako aholkuak, egitasmoak...

Armak

Arloa	Gizarte zientziak, Geografia eta Historia
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Armamentuaren funtzioei buruzko gogoeta eragitea
Zehar-lerroa	Bakerako Hezkuntza
Materialak	Ondoren datorren testua
Iraupena	Ordu bat

Ipuina:

Herri hartako gizonik aberatsenak arma fabrika bat eraikitzea erabaki zuen. Bere dirua inbertitzeaz gain, kredito mordoa eskatu eta eskuratu zuen. Isilean eraiki zituzten fabrika batzuk, baina fabrika horiek industria handiago baten estalkia besterik ez ziren. Herri hartako fabrika guztiei lana eman zien gizon hark. Fabrika bakoitzari bere armen zati bat edo beste egiteko esaten zien. Gero, bere fabriketan armen atal guztiak uztartu, kartoizko kutxetan sartu, eta munduko lurralde guztietara saldu zituzten supertop armak. Gizon hark bere herriko langabezia desagertzea lortu zuen. Gainera, armen salmentei esker, bere herria gero eta aberatsagoa zen.

Nazioarteko legediak, herri jakin batzuei armak saltzea debekatzen zuen. Gizon haren erkideak artetsu ibiltzen ziren nazioarteko legeekin. Herri jakin bati armak saltzea debekaturik baldin bazegoen, ez zioten inolaz ere inolako armarik saltzen. Zera egiten zuten: saltzaile on bat atzerrira bidaltzen zuten, eta saltzaile honek atzerritik edozein herritara sal zitzakeen armak, hori bai, beti atzerriko herri horren izenean.

Urte batzuen buruan, gizon haren herria munduko arma saltzailerik handiena bilakatu zen. Pixkanaka-pixkanaka, lehiakiderik gabe geratu zen... Azkenean, munduko arma guztiak, supertop izan ziren.

Botere militarra, beraz, bere esanetara zegoen, eta zera erabaki zuen, hots, supertop ez ziren beste arma guztiak debekatzea. Gero, negozioa oraindik gehiago handitzeko asmoz, urtero armak berriztatu behar zirela erabaki zuen, urtero birziklatu. Moda desfileak ere egiten hasi ziren, udazkeneko armak pasareletan erakutsiz, udaberriko armak... Urtero moda aldaketak egoten ziren. Urte batean arma luzeak, hurrengoan laburrak, udazkenean arre kolorekoak, udaberrian esmeralda kolorekoak...

Garai hartan, gero eta militar gehiago zegoen, telebistako saio guztietan ere militarrek agertzen ziren, edonon militarrek eta militarrek. Konturatu zirenerako munduan bi industria mota ziren nagusi: armak ekoizten zituen industria (ekoiztu eta saldu), eta armak birziklatzen zituen industria.

Guda olinpikoak aherrelaxe deitzen ziren orain ere gero eta maizago egiten ziren.

Baina gizon hura, urteak joan eta urteak etorri, zahartu egin zen. Industria inperio osoa bere semeari utzi zion ondare gisa.

Honek zera egin zuen...

1. Bukatu ipuina.
2. Zer da sinesgarria istorio horretan?
3. Zerk dauka errealitatearekin antza? Zergatik?
4. Armen industriaren alde ona ala alde txarra agertzen da ipuinean? Zergatik?
5. Zertarako balio dute armek? (Ondo zehaztu, hainbeste saltzen bada, baliogarritasun gehiago egongo da...)
6. Zer deritoxu esaldi honi: «Benetako demokrazian, herriak armak erabiltzeko eskubide osoa izan beharko luke, EEBBetan bezala».
7. "Armen alde onak" esaten denean, norentzat dira onak?
8. "Armen alde txarrak" esaten denean, norentzat dira txarrak?
9. Gizon hark zera esaten zuen, «guk ez baditugu saltzen, beste batzuek salduko dituzte. Guk ez badizkiegu saltzen, azkenean, haiek guri salduko dizkigute».

Giza Eskubideak eta indarra

Arloa	Gizarte zientziak, Geografia eta Historia
Maila	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Helburua	Giza Eskubideak bermatzeko behar diren baliabideei buruz pentsatzea
Zehar-lerroa	Giza Eskubide eta Bakerako Hezkuntza
Materialak	Bi testu (A eta B)
Iraupena	Ordu bat

Nola egin:

Ikasleak binaka ipiniko dira. Bakoitzak testu bat irakurriko du, eta bere bikoteari laburtuko dio. Gero, launaka erantzungo zaie galderei.

A testua

NAZIOARTEKO ZIGOR KODE BATEN BEHARRA
(ETA LEGEAK BETEARAZIKO DUEN
NAZIOARTEKO AUZITEGI BATEN BEHARRA)

*Justizia, amarauna bezalakoa da,
zomorro txikiak harrapatzeko balio du,
zomorro handiak harrapatzeko, ordea, ez.
(Herrikoia.)*

Giza eskubideen alorrean lan egiten duten pertsonen zera ikusi dute: alde batetik posible dela munduko gehienak bat etortzea giza eskubideak definitzeko orduan. 1948ko aldarrikapen unibertetsala da horren lekuko. Baina munduko herri gehienek horrelako agiria sinatzea zailegia gertatu ez bazen ere, batez ere mundu-gerra baten ostean, giza eskubideak ez dira horregatik munduan babesturik geratu.

Arazoa, sinatutakoa betetzea izan da.

Pixka bat pentsatuz gero, begibistakoa da elkarrekin bizitzeko arauak behar direla. Gizakiok elkarrekin bizitzeko beti izan dugu arautegi bat. Etengabe aldatu dira arauak, hori bai, batzuetan azkarrago eta beste batzuetan motelago, baina beti egon da araudi bat gizarte bakoitzean.

Azkenean, munduko herrialde gehienetan arau horiek idatzi egin ziren, lege bilakatu ziren.

Idazkera ezagutzen duten kultura gehienetan agertu dira lege idatziak, lehentxeago edo beranduxeago, baina legeak bete daitezten bizpahiru gauza behar dira.

- Ezagupena.** Jendeak legeak ezagutzea.
- Adostasuna.** Jendea, oro har, ados egotea lege horiekin (azken batean guztien onerako direla pentsatzea edo).

3. Indarra. Legeak betearaziko dituen boterea (beti egongo da maltzurren bat, legeak bere onerako hautsi nahi dituen norbait, edo agian borondate onez, lege horiek bidezkoak ez direla pentsatzen duenen bat).

Beraz,

- Legeak zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta hobeto beteko dira, edo aldatuko dira.*
- Jendea ez badago ados bere inguruko legeekin, nekez beteko ditu. Sistemak bilatu behar dira legeak jendearen gustokoak izan daitezen.*
- eta 3. Jendea zenbat eta adosago egon legeekin, orduan eta zigor gutxiago beharko du botere betearazleak legeak betearazteko.*
Indarrak handiena adostasuna da.

B testua

NAZIOARTEKO EGUNGO EGOERA.

Egun munduan badaukagu, nolabait esateko, oinarritzko lege bat: 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertetsala. Batzuek Munduko Lehen Konstituzioa deitzen diote. Idatzia dago, munduko hizkuntza gehienetara itzulia. Sinatua dago. Munduko

goi erakunde politiko gehienetako ordezkariak sinatu zuten. Beraz, munduko estatu guztiek «konstituzio» hori bete eta betearazi behar dute. Teorian.

Teorian. Tamalez, guztiok dakigun bezala, giza eskubideak ez dira betetzen munduko hainbat tokitan. Zergatik? Zer falta da?

1. Ezagupena. *Jendeak, gobernuek, ez dakite zein diren giza eskubideak. Horrexegatik ez dituzte behar bezala betetzen.*

Hipotesi honek nahiko sinesgaitza dirudi; dena den, giza eskubideak zer diren hobeto ezagutaraztea ez bide da batere ideia txarra. Horretara dedikatzen dira hainbat Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE), irakasle, kazetari... Beharrezkoa da, agi denez.

1. Ba al dakizu zeintzuk diren giza eskubideak?
2. Begirunez betetzen dituzu?
3. Zure giza eskubideak eta besteenak berdinak al dira?
4. Zenbat giza eskubide mota dago?
5. Norbaitek zure giza eskubideak beteko ez balitu, nora joko zenuke?
6. Ikusiko bazenu norbaitek ez dituela beste norbaiten giza eskubideak betetzen, zer egingo zenuke?

7. Horrelakoetan zerbait egin al daiteke?

2. Adostasuna. *Munduan ez dira giza eskubideak behar bezala betetzen adostasunik ez dagoelako. Herri bakoitzak, pertsona bakoitzak bere iritziak dauzka giza eskubideen auzian, eta iritzi horiek bateraezinak dira.*

Berriro ere, hipotesi honek ez dirudi egiazkoa denik. Munduko estatu gehienek onartzen dute Giza Eskubideen Aldarrikapena. Onartua eta sinatua dago. Beraz, bakarrik geratzen zaigu...

3. Indarra. *Geratzen zaigun azken aukera: giza eskubideak ez dira behar bezala betetzen indar betearazlerik ez dagoelako munduan: hots, norbaitek giza eskubideen kontrako ekintzaren bat egingo balu, horrek ez lekarkiokeelako ondoriorik.*

Aztertu egin beharko da hipotesi hau.

Galderak:

1. Zer gertatuko litzateke pertsona batek giza eskubideen kontrako zerbait egingo balu?
2. Eta gobernu baten kontra borrokan ari den talde batek?
3. Eta estatu bateko gobernu, armada edo talde boteretsu batek?

Erantzunak:

1. Pertsona batek, normalean bere herriko legeak bete behar ditu. Inor gutxi dago, gaur egun, bere herriko legeen gaineratik, baina... Herrietako legeek behar bezala babesten al dituzte giza eskubideak? Tamalez, ez.
2. Gobernu baten kontra borrokan ari den talde batek giza eskubideen kontra jokatzeko badu, gobernuari beste aitzakia bat ematen dio taldearen kontra aritzeko. Beraz, talde hauen kontra, gutxienez indar bat badago, aurka duten gobernuarena. Gobernuek, batzuetan, aurrez aurre dauzkaten taldeen giza eskubideen kontrako ekintzak gelditzea lortzen dute, baina beste batzuetan borrokak laztu egiten dira, giza eskubideen kalterako.
3. Estatu bat giza eskubideen kontra aritzen bada, barruko herritarrek, kanpoko herritarrek eta beste estatuek salatu egingo dituzte egindako bidegabekeriak.

Salatu bai, baina zigortu?

Batzuetan bai, nazioarteko armadak bidaltzen dira, salerosketak galerazten dituzten blokeoak egiten dira...

Baina nor zigortzen ari dira? Giza eskubideen kontra aritu direnak ala estatu horretako herritar guztiak?

anexos

eranskinak



MATERIALES PARA LA EDUCACIÓN EN DERECHOS HUMANOS
GIZA ESKUBIDEEN HEZKUNTZARI BURUZKO BALIABIDEAK

EDUCACIÓN SECUNDARIA: ESO Y BACHILLERATO
BIGARREN HEZKUNTZA: DBH ETA BATXILERGOA



Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

1948ko abenduaren 10ekoa. (Bertsioa: Ararteko, 1998.)

Hitzaurrea

Kontuan izanik giza familiako kide guztiak berezko duintasuna eta eskubide berdin eta utziezinak dituztela onartzea dela munduko askatasunaren, justiziaren eta bakearen oinarria;

Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxiestearen ondorioz, gizakien kontzientziari iraingarri zaizkion basakeriak gertatu izan direla; eta beldurretik eta miseriatik aske, gizon-emakumeei hitz egiteko askatasuna eta sineste-askatasuna ekarriko dizkien munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusi;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakiak agintekeriaren eta zapalketaren kontrako matxinadara -hori baita azken irtenbidea- jo bear izan ez dezan;

Kontuan izanik nazioen arteko harreman lagunkoiak bultzatzea ere ezinbestekoa dela;

Kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek Kartan berretsi dutela gizakiaren oinarritzko eskubideetan, pertsonaren duintasunean eta balioan eta gizon-emakumeen eskubide-berdintasunean duten fedea; eta askatasunaren ikuspegi zabalago batetik, gizarte-aurrerakuntza sustatzeko eta bizi-mila hobetzeko erabakia adierazi dutela;

Kontuan izanik estatu kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarritzko eskubide-askatasunak oro har eta modu eraginkorrean errespetatuko direla ziurtatzeko hitza eman dutela; eta

Kontuan izanik emandako hitza osorik beteko bada, oso garrantzitsua dela denek eskubide eta askatasun horiek berdin ulertzea;

Batzar Nagusiak

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsal hau egiten du

herri eta nazio guztiak lortzen ahalegindu behar duten helburu gisa, pertsonak nahiz erakundeek, beti aldarrikapen honetan oinarrituz, eskubide eta askatasun hauei zor zaien errespetua bultzatzen irakaskuntzaren eta heziketaren bidez, eta nazio nahiz nazioarte mailan pixkanaka neurriak hartuz, oro har eta modu eraginkorrean aitortu eta betearaziko direla ziurta dezaten, bai Nazio Batuetako kide diren estatuak herrietan, bai horien jurisdikziopean dauden lurraldeetakoetan.

1. Artikulua

Gizon-emakume guztiak libre jaiotzen dira, duintasun eta eskubide bereberekin, eta, arrazoimenez eta kontzientziaz jantzirik daudenez gero, elkarrekin senide moduan jokatu behar dute.

2. Artikulua

1. Pertsona orok ditu Aldarrikapen honetan asdierazitako eskubide eta askatasun guztiak, eta ez da inolako bereizketarik egingo arraza, larru-kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politikako edo bestelako iritzi, jaioterri edo gizarte-jatorri, ekonomi maila, jaiotze edo beste ezein gorabeheragatik.

2. Gainera, ez da inolako bereizketarik egingo pertsona jurisdikziopean daukan herri edo lurraldearen egoera politiko, juridiko edo nazioartekoagatik, eta berdin dio herri burujabea den edo besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo burujabetza mugatukoa.

3. Artikulua

Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea.

4. Artikulua

Inork ez du besteren esklabo edo jopu izan behar; debekatuta dago esklabotasuna eta esklabo salerosketa oro.

5. Artikulua

Ezin da inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

6. Artikulua

Gizon-emakume guztiek dute, nonahi, nortasun juridikoduntzat hartuak izateko eskubidea.

7. Artikulua

Denak berdina dira legearen aurrean, eta denek dute, bereizketarik gabe, legezko babes bera izateko eskubidea. Guztiek dute Aldarrikapen hau urratzen duen bereizkeria eta bereizkeria-eragile ororen kontra babes berbera izateko eskubidea.

8. Artikulua

Pertsona orok du bere herriko auzitegi eskudunei errekurso eraginkorra aurkezteko eskubidea, Konstituzioak edo legeek aitortzen dizkieten oinarriko eskubideak urratzen dituzten ekintzetatik babesteko.

9. Artikulua

Inor ezingo dute arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

10. Artikulua

Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikierarik gabeak zuzentasunez eta jendaurrean entzun diezaion, bere eskubideak eta betebeharrak erabakitzeko edo bere kontrako salaketa penalak aztertzeko.

11. Artikulua

1. Delituz salatutako pertsona orok eskubidea du erugabetzat jo dezaten, harik eta, legeari jarraiki, eta bere burua defendatzeko berme guztiak ziurtatuko dizkion epaiketa batean, errudun dela frogatzen ez den arte.
2. Inor ez dute zigortuko egite edo ez-egiteengatik, baldin eta horiek burutu ziren unean, nazioko edo nazioarteko legeriaren arabera, delitu ez baziren. Orobat, inori ez zaio ezarriko delitua egindako garaian ezar zekiokkeen baino zigor astunagorik.

12. Artikulua

Ezin da arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskua sartu, ezta inoren ospe edo izen onaren kontra aritu ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien kontra legezko babesa izateko eskubidea.

13. Artikulua

1. Pertsona orok du batetik bestera libre ibiltzeko eskubidea, eta Estatu baten lurraldean bere bizilekua aukeratzekoa.
2. Pertsona orok du edozein herritatik, bai beretik ere, alde egiteko eskubidea, eta bere herrira itzultzekoa ere bai.

14. Artikulua

1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du babesa bilatzeko eta hartaz gozatzeko eskubidea, edozein herritan dagoela ere.
2. Ezingo da eskubide hori argudiotzat erabili delitu arruntek edo Nazio Batuen helburu eta irizpideen kontrako egintzek egiaz eragindako akzio judizial baten aurka.

15. Artikulua

1. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.
2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ez herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu.

16. Artikulua

1. Gizonek eta emakumeek, gaztarotik aurrera, ezkontzeko eta familia osatzeko eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatik inolako murrizketarik gabe; eta ezkontzari dagokionez, eskubide berberak izango dituzte, hala ezkontzak dirauren bitartean, nola ezkontza desegitean.
2. Ezkongaien baimen libre eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.
3. Familia gizartearen berezko eta funtsezko osagaia da, eta gizartearen eta estatuaren babes izateko eskubidea du.

17. Artikulua

1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.
2. Inori ez zaio arrazoirik gabe bere jabetza kenduko.

18. Artikulua

Pertsona orok du pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea. Eskubide horrek bere baitan biltzen du erlijioz edo sinestez aldatzeko askatasuna, baita ere bakarka zein taldean, jendaurrean nahiz pribatuan, nor bere erlijioa edo sinestea azaltzeko askatasuna, irakatsiz, praktikatuz, gurtuz edo arauak betez.

19. Artikulua

Gizaki orok du iritzi- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea. Horrek bere barnean biltzen du norberaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, informazioa eta iritziak ikertu eta jasotzekoa, eta horiek mugarik gabe eta edozein adierazpidez zabaltzekoa.

20. Artikulua

1. Pertsona orok du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea.
2. Inor ezingo dute behartu elkarte bateko kide izatera.

21. Artikulua

1. Pertsona orok du bere herriko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean edo askatasun osoz aukeratutako ordezkarien bidez.
2. Pertsona orok du berdintasunez bere herriko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.
3. Herriaren borondatea da agintaritza publikoaren agintearen oinarri; borondate hori aldizka egingo diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeotako bozketak orokorrak eta berdintasunezkoak izango dira, eta isileko botoz edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez egingo dira.

22. Artikulua

Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantz izateko eskubidea; baita ere duintasunez bizitzeko eta nortasuna libre garatzeko ezinbestekoak diren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak lortzekoa, bere herriaren ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, betiere kontuan harturik estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak.

23. Artikulua

1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lan-baldintza onak eta bidezkoak izatekoa, eta lanik ezaren kontrako laguntza izatekoa.
2. Pertsona orok du, inolako bereizkeriarik gabe, lan berdinagatik soldata berdina jasotzeko eskubidea.
3. Lanean diharduen pertsona orok du lansari ona eta bidezkoa jasotzeko eskubidea, bera eta bere familia giza duintasunari dagokion moduan bizi daitezen. Lansaria horretarako nahikoa ez bada, beste edonolako gizarte-laguntzez osatuko da.
4. Pertsona orok du sindikatuak sortzeko eta sindikatuko kide izarteko eskubidea, bere interesen alde egitearren.

24. Artikulua

Pertsona orok du atsedean hartzeko eskubidea, aisialdiaz gozatzekoa, lanaldi mugatua izatekoa, eta, aldizka, ordaindutako oporrak izatekoa.

25. Artikulua

1. Pertsona orok du bizimodu aproposa izateko eskubidea, bai berak eta bai bere familiak ziurtatuak izan ditzaten osasuna eta ongi-izatea eta, batez ere, janaria, jantziak, bizitokia, mediku-laguntza eta beharrezko gizarte-zerbitzuak. Orobat, aseguruak izateko eskubidea du lanik ez, gaixotasun, elbarritasun, alarguntasun, zahartzaro, edo bere nahiaz bestelako gorabehera batengatik, bizimodua ateratzerik ez badauka.

2. Amek eta haurrek babes eta laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiok, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.

26. Artikulua

1. Pertsona orok du hezkuntzarako eskubidea. Hezkuntzak doakoa behar du izan, oinarriko ikasketak bai behintzat. Oinarriko ikasketak nahitaekoak izango dira; heziketa tekniko eta lanbiderakoa, berriz, orokorra; eta denek izango dute goi mailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.

2. Hezkuntzaren helburua pertsonaren nortasuna erabat garatzea izango da, eta giza eskubideei nahiz funtsezko askatasunei zor zaien errespetua sendotzea; hezkuntzak nazio, arraza eta erlijio guztien arteko ulermena, tolerantzia eta adiskidetasuna erraztuko ditu; eta Nazio Batuen ekintzen garapena bultzatuko du, bakeak iraun dezan.

3. Gurasoek lehenetsuneko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko.

27. Artikulua

1. Pertsona orok du eskubidea komunitatearen kultur ekitaldietan libre parte hartzeko, arteez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta honen ondoriozko ondasunetan parte hartzeko.

2. Pertsona orok du eskubidea, zientzi, literatur edo arte produkzioen egile izateagatik, dagozkion interes moral eta materialak babes dakizkion.

28. Artikulua

Pertsona orok du eskubidea gizarteko eta nazioarteko antolabidea ezar dadin, Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak guztiz gauzatzeko.

29. Artikulua

1. Pertsona orok ditu komunitatearekiko betebeharrak, komunitatea baita bere nortasuna libre eta erabat garatzeko toki bakarra.

2. Pertsona orok, bere eskubideak erabiltzean eta horiek askatasunez gozatean, legeak ezarritako mugak baino ez ditu izango, bai gainontzeko herritarren eskubide-askatasunak errespetatuko direla ziurtatzeko, bai gizarte demokratiko batean, moralaren, ordena publikoaren eta guztien ongizatearen bidezko eskakizunak betetzeko.

3. Eskubide eta askatasun hauek ezingo dira, inolaz ere, Nazio Batuen helburu eta irizpideen kontra erabili.

30. Artikulua

Aldarrikapen honetako ezerk ez du ulertaraziko Estatuari, talde bati edo pertsona bati eskubidea ematen zaionik Aldarrikapen honetan bertan adierazitako eskubide-askatasunak kentzeko jarduerak edo ekintzak hasi eta burutzeko.

Ariketetan erabilitako iturriak

Ariketa askotan: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. 1948ko abenduaren 10ekoa. Ararteko, 1998.

41. ariketa. Noam Chomsky & Edward S. Herman; *Los guardianes de la libertad*. Grijalbo, 1990. (Itzulpena)

49. ariketa. Sonja Williams; "Cómo acabar con el mito del hombre", *Cuadernos de Pedagogía*, 174 zk., 1989ko urria, 84-89 orr.

52. ariketa. *Colors* 4. zk. Spring-Summer 1993.

55. ariketa. *Domino*

62. ariketa. *Domino*

60. ariketa. *Colors aldizkaria*, 4 zk. Spring-Summer 1993.

68. ariketa. *Amnistía Internacional* aldizkaria 33 zk. 1998 urria. (Itzulpena).

69. ariketa Maixux Rekalde: "Emakumea eta lana", Olatz Osa: "Emakume" (*Euskaldunon egunkaria*, 1999, maiatzak 5)

70. ariketa. Aipatzen den Donald G. Richman-en liburua ez da benetan inoiz argitaratu. Guk geuk sortu dugu 70. airketan agertzen den testua. Gauza bera esan behar dugu Noam Trotmskyren artikuluari buruz.

Materialak ebaluatzeko irizpideak:

Irakasle batek giza eskubideen hezkuntzari buruzko materialekin lan egitean aurkitzen duen arazo handienetarikoa bat hau da: ikasleek praktika egiterakoan emandako erantzunak nola ebaluatu.

Atal honen bidez, urrats posible batzuk azaldu nahi ditugu, praktikaren ebaluaketa egiteko.

Ebaluaketarako hiru atal sortu dira: ariketaren eragingarritasuna, ezarritako helburuarekiko egokitasuna eta ikasleengan izandako eragina. Hauetako bakoitza gai zehatzetan banatuta egongo da.

A) Ariketaren eragingarritasuna.

- Praktika *ondo/gaizki* diseinatuta dago.
- Praktikaren funtzionamendua ulertu da. *Ondo/gaizki* azalduta dago.
- Praktika erabilgarria da giza eskubideen heziketarako: *bai/ez*.
- Honen garapenerako iraupena *laburra/zuzena/gehiegizkoa* da
- Erabilitako baliabideak (iraupen eta materialak) ongi erabili dira: *bai/ez*.

B) Ezarritako helburuarekiko egokitasuna.

- Ariketa arlo edo irakasgai baterako diseinatu zen. Arlo horri ondo egokitzen zaio: *bai/ez*
- Ariketa, ezarritako mailarako *sinplea/egokia/zaila* izan da.
- Ikaslegoaren arreta lortu du: *bai/ez*.
- Gelak parte hartu du: *bai/ez*.
- Ariketa nork garatu du, batez ere? *irakasleak/ikasleak/gelak oro har*

C) Ikasleengan izandako eragina

- Ikasleak jabetu dira ariketaren helburuaz: *bai/ez*.
- Ariketa garatzen parte hartu dute: *bai/ez*.
- Baloreak ulertu dituzte: *bai/ez*.
- Ariketaren helburuari buruzko gogoetak eragin ditu: *bai/ez*.
- Eguneroko inguruari aplikatu dakiokela ikusi dute (inguruan gertatzen denarekiko interesa) *bai/ez*.
- Iritzi ezberdinak errespetatu dira *bai/ez*.

Listado de algunas Organizaciones No Gubernamentales y Asociaciones

A continuación se proporciona un pequeño listado de ONG que consideramos representativas de los distintos aspectos del trabajo sobre los derechos humanos que ellas mismas desarrollan.

Aunque el listado sería muy extenso, ya que hay muchas ONG y asociaciones que trabajan en este campo, desde el ámbito local de un pueblo, o incluso de una parroquia, hasta las que tienen representación en las Naciones Unidas, hemos escogido sólo unas pocas a modo de ejemplo de los distintos campos de trabajo en el área de los derechos humanos.

Hemos intentado que las ONG señaladas tengan sede en los tres territorios históricos. Aunque alguna de ella no tiene sede en Euskadi, o la tiene en una sólo provincia hemos considerado que es lo bastante conocida como para incluirla. Hemos dejado fuera numerosas y reconocidas ONG, al considerar que están incluidas en la Coordinadora de ONG, de Desarrollo, y ser ésta quien puede dar noticias de ellas.

Nos gustaría incluirlas a todas, pero es imposible. Si están interesados en alguna en concreto, existen diversas guías donde pueden localizarlas. Dos de esas guías son: '*La guía de la solidaridad*' de Ana de Felipe y Lilo Rodríguez de Rivas, editada por ediciones temas de hoy en 1995 y '*La guía del Voluntariado de la Comunidad Autónoma Vasca*' editada por el Gobierno Vasco en 1996.

Las ONG y asociaciones que hemos seleccionado son:

Gobernuz kanpoko erakundeak. Zerrenda labur bat

Giza eskubideen alorrean lanean diharduten GKE batzuen helbideak emango ditugu jarraian. Zerrenda honek laburra izan behar du; hori osatu nahi izanez gero, Eusko Jaurlaritzak 1996an argitaratutako *EAEko boluntarioen gida* erabil daiteke.

GKEen zerrendak hainbat gidatan aurkitzen dira. Gaztelaniaz, Ana de Felipe eta Lilo Rodríguez de Rivasen *La guía de la solidaridad* daukagu, Temas de Hoy-k 1995ean argitaratua.

GKEak ezin dira osotara hemen zerrendatu, izan ere, horietako batzuk oso txikiak dira, batzuek luze irauten dute eta beste batzuk, aldiz, berehala desagertzen dira. Beraz, alde handia dago auzo txiki bateko gazte-talde batek sorturiko GKE baten eta nazioarteko GKEen artean.

Labur beharrean, GKE ezagunen izen eta helbideak bakarrik aipatuko ditugu, nahiz horietakoren batek EAEn egoitzarik ez izan.

Hona hemen hautatu ditugunak:

• ACNUR

- Cedaceros, 9 - 3º dcha.
28014 MADRID
Tfno.: 91 369 06 70

• Amnistía Internacional

- Apdo. 334
01080 VITORIA-GASTEIZ
Tfno.: 945 25 94 38
- Apdo. 830
48080 BILBAO
Tfno.: 94 423 35 77
- Apdo. 465
20080 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Tfno.: 943 46 30 91

• Cáritas

- Olaguibel, 2
01001 VITORIA-GASTEIZ
Tfno.: 945 23 28 50
- Ribera, 8
48002 BILBAO
Tfno.: 94 422 11 28
- Pº Salamanca, 2
20003 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Tfno.: 943 42 16 61

• Comisión Anti-Sida

- San Francisco, 2 - 1º
01001 VITORIA-GASTEIZ
Tfno.: 945 25 77 66
- Bailén, 6 - lonja
48003 BILBAO
Tfno.: 94 416 00 55
- Easo, 53 - 1º dcha.
20006 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Tfno.: 943 47 20 36

• Coordinadora de ONG de Desarrollo de Euskadi

- Iparraguirre, 73 - lonja
48012 BILBAO
Tfno.: 94 443 61 48

• Elkarri

- Avda. Ntra. Sra. de Estíbaliz, 2 - 1º of. 5
01003 VITORIA-GASTEIZ
Tfno.: 945 25 61 76

- Arenal, 5 of. 209
48005 BILBAO
Tfno.: 94 479 07 24
- Avda. Madrid, 5 - esc. dcha.
20011 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Tfno.: 943 45 93 75

• Equipo de Comunicación Educativa

- Javier de Miguel, 92 - 1 posterior
28018 MADRID
Tfno.: 91 380 58 56

• Greenpeace

- San Bernardo, 107
28015 MADRID
Tfno.: 91 44 14 00

• Hegoa

- Manuel Iradier, 6 - bajo
01005 VITORIA-GASTEIZ
Tfno.: 945 13 15 87
- Avda. Lehendakari Agirre, 83
48015 BILBAO
Tfno.: 94 447 35 12

• SOS Racismo

- Zapatería, 59 - bajo
01001 VITORIA-GASTEIZ
Tfno.: 945 26 59 09
- Apdo. Correos 10.166
48080 BILBAO
Tfno.: 94 479 03 10
- Pº Zarategi, 100
Edificio Txara 1
20015 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
TFNO.: 943 48 26 02

• UNICEF

- Fueros, 24 - bajo
01005 VITORIA-GASTEIZ
Tfno.: 945 14 55 48
- Ledesma, 18
48001 BILBAO
Tfno.: 94 424 11 55
- Peña y Goñi, 5
20002 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Tfno.: 943 27 11 61

Bibliografía por temas

Se han desglosado por temas los distintos aspectos que sobre los derechos humanos hemos ido recopilando en nuestra búsqueda de documentación. Creemos que puede servir de base para un estudio más amplio sobre el esbozo que hemos trazado. Esta clasificación se ha realizado de la siguiente manera:

1. Derechos Humanos.
2. Economía.
3. Cooperación al Desarrollo.
4. Mujer y Desarrollo.
5. Ecología, Medio Ambiente, Geografía.
6. Educación en Derechos Humanos.
7. Guías de recursos.
8. Cómic.
9. Revistas.
10. Información y documentación.

Sin embargo hemos hecho hincapié en los distintos materiales que aparecen en los apartados destinados a Educación en Derechos Humanos y a las Guías de recursos. Esto es debido a que hemos creído fundamental describir someramente dichos materiales para que el educador o la educadora que quiera profundizar sobre estos aspectos tenga una referencia sobre lo que puede encontrar en cada uno de los distintos materiales que comentamos.

Bibliografía

Gaien arabera banakatu ditugu giza eskubideei buruz pixkanaka bildu ditugun agiriak. Gure ustez, zirriborro hau oinarritzat har daiteke azterketa zabalago bat egiteko. Sailkapen hau honako moduan egin da:

1. Giza Eskubideak.
2. Ekonomia.
3. Garapenerako Kooperazioa.
4. Emakumea eta Garapena.
5. Ekologia, Ingurugiroa, Geografia.
6. Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntza.
7. Baliabideen Gida.
8. Komikia.
9. Aldizkariak.
10. Informazioa eta Dokumentazioa.

Derechos Humanos/Giza Eskubideak

- ABAD, Luis V; CUCO, Alfons; IZQUIERDO, Antonio. *Inmigración, pluralismo y tolerancia*. Popular; Jóvenes contra la intolerancia, Madrid, 1993; 127 pp.
- ACNUR. *Recopilación de instrumentos internacionales relativos al asilo y a los refugiados*. ACNUR, Ginebra, 1984; 134 pp.
- ALONSO OLLACARIZQUETA, Lucía. *Enemigos invisibles, campos de la muerte: las minas antipersonales*. Centro de Investigación para la Paz; Seminario de Investigación para la Paz, Madrid, 1995; 26 pp.
- ALTO COMISIONADO DE LAS NACIONES UNIDAS PARA LOS REFUGIADOS. ACNUR. La situación de los refugiados en el mundo: en busca de soluciones. Alianza; ACNUR, Madrid.
- ALVITE, Juan Pedro; SUTCLIFFE, Bob; BLANCO, M^a Cristina; SABAR, Kebir; BALIBAR, Etienne; TAGUIEFF, Pierre-André; WIEVIORKA, Michel. Racismo, antirracismo e inmigración. Tercera Prensa, Donostia, 1995; 223 pp.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL. Crímenes sin castigo: homicidios políticos y desapariciones forzadas. EDAI, Madrid, 1993; 102 pp.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL. Códigos de ética profesional. Manual para grupos médicos. Códigos de ética y declaraciones aplicables a la profesión médica. EDAI; Amnistía Internacional, Madrid, 1984.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL. Defensores de los derechos humanos en primera línea. América Central y México. EDAI, Madrid, 1996; 48 pp.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL. Desapariciones forzadas y homicidios políticos. La crisis de los derechos humanos en los noventa. Manual para la acción. EDAI, Madrid, 1994; 303 pp.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL. Guía de la Carta Africana de los Derechos Humanos y de los Pueblos. EDAI, Madrid, 1991; 66 pp.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL. Informe anual. EDAI; Amnistía Internacional, Madrid.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL. La Pena de Muerte y su abolición en España. Los libros de la catarata; Amnistía Internacional, Madrid, 1995; 189 pp.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL. Programa para la protección y promoción de los DDHH. España. EDAI, Madrid, 1998; 31 pp.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL. Refugiados. Los derechos humanos no tienen fronteras. EDAI, Madrid, 1997; 111 pp.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL. Rompamos el silencio. Violaciones de derechos humanos basadas en la orientación sexual. EDAI, Madrid. 1995; 108 pp.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL. Tribunales Penales Internacionales. Manual sobre cooperación de los gobiernos. EDAI, Madrid, 1996; 78 pp.
- ARA PINILLA, Ignacio. Las transformaciones de los derechos humanos. Tecnos, Madrid. 1990; 165 pp.
- ARTÉS, Matilde, "Sacha". Crónica de una desaparición. La lucha de una abuela de Plaza de Mayo. Espasa, Madrid, 1997.
- ARTOLA, Miguel. Los derechos del hombre; Madrid, Ediciones del Prado, 1986; 196 pp.
- ASOCIACIÓN PRO DERECHOS HUMANOS DE ESPAÑA, (APDHE). Informe anual de los derechos humanos en España. APDHE, Madrid.
- BERTRAND, Maurice. La ONU. Acento Editorial (colección Flash), Madrid, 1995; 109 pp.
- CALVO BUEZAS, Tomás. Los racistas son los otros. Gitanos, minorías y derechos humanos en los textos escolares. Popular, Madrid, 1989; 221 pp.
- CALVO BUEZAS, Tomás. ¿España racista? Voces payas sobre los gitanos. Anthropos, Barcelona, 1990; 405 pp.
- CENTRO DE INVESTIGACIONES SOBRE LA REALIDAD SOCIAL (CIRES). Actitudes hacia los inmigrantes. CIRES, Madrid, 1994; 101 pp.
- COHN, Ilene y Guy GOODWIN-GILL. Los niños soldados. Editorial Fundamentos/ Cruz Roja Juventud, Madrid, 1997; 238 pp.
- COLECTIVO ICE. Discursos de los españoles sobre extranjeros: paradojas de la alteridad. Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 1995; 119 pp.
- CULTURAL SURVIVAL. El Estado de los Pueblos. Informe sobre los DDHH en las sociedades en peligro. Ediciones Bellaterra, Barcelona, 1996; 327 pp.

- DÍAZ - PLAJA, Fernando. A la sombra de la guillotina. Planeta DeAgostini, Madrid, 1988; 186 pp.
- DUPLA, Antonio; FRIAS, Piedad; ZALDUA, Iban. Occidente y el otro: una historia de miedo y rechazo. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Vitoria-Gasteiz, 1996; 247 pp.
- ETXEBERRIA, Xabier. Ética de la diferencia. Universidad de Deusto, Bilbao, 1997; 289 pp.
- FERRATER MORA J.; COHN, P. *Ética aplicada*. Alianza, Madrid, 1988; 237 pp.
- FEDERACIÓN INTERNACIONAL DE SOCIEDADES DE LA CRUZ ROJA Y DE LA MEDIA LUNA ROJA. Informe mundial sobre desastres.
- FISAS, Vicenç. Las migraciones: el olvido de nuestra historia. Seminario de Investigación para la paz, Zaragoza, 1994; 112 pp.
- GACTO, Enrique. La pena de muerte. Cuadernos de Historia 16, Madrid, 1985.
- GONZÁLEZ OCHOA, José M^o; MONTES PASCUAL, Ana Isabel. Las guerras olvidadas. Acento Editorial (colección Flash), Madrid, 1997; 96 pp.
- KANE, Hal. La hora de la partida. Fuerzas que generan refugiados y emigrantes. Bakeaz, Bilbao, 1996. 64 pp.
- HEGOA. Guerra y hambruna en África. Consideraciones sobre la Ayuda Humanitaria. (Lan-Koadernoak, Cuadernos de trabajo nº 15) Hegoa, Vitoria-Gasteiz, 1996; 36 pp.
- HEGOA. Refugio y conflicto en el mundo. Hegoa Dossier; Hegoa, Bilbao, 1995; 164 pp.
- INNERARITY, Daniel; VAZ, Aires. Información y Derechos Humanos. Actas de las I Jornadas de Ciencias de la Información. EUNSA, Pamplona, 1987; 408 pp.
- INSTITUTO INTERAMERICANO DE DERECHOS HUMANOS. Declaración universal de derechos humanos: edición conmemorativa del 40º aniversario. Instituto Interamericano de Derechos Humanos, San José de Costa.Rica, 1988; 85 pp.
- MÉDICOS SIN FRONTERAS. Escenarios de crisis. Acento Editorial, Madrid, 1993; 192 pp.
- MÉDICOS SIN FRONTERAS. El mundo en crisis. Acento Editorial, Madrid, 1996; 285 pp.
- MELGOSA, Leire; HENRY, Garbiñe. Estudio sobre la situación del inmigrante en Bilbao. Asociación Afrovasca, Bilbao, 1995.
- LEGUINECHE, Manuel. Los ángeles perdidos. Espasa-Calpe, Madrid, 1998; 430 pp.
- MENCHÚ, Rigoberta. Rigoberta: la nieta de los mayas. El País-Aguilar, Madrid, 1998. 348 pp.
- OFICINA DE DDHH DEL ARZOBISPADO DE GUATEMALA. Guatemala: Nunca más. Informe proyecto interdiocesano de recuperación de la memoria histórica. Gakoa, Donostia, 1998; 408 pp.
- PAINE, Thomas. Los derechos del hombre. Ed. Orbis, Barcelona, 1985; 220 pp.
- RAMÍREZ GOICOECHEA, Eugenia. Inmigrantes en España: vidas y experiencias. Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 1996; 611 pp.
- RAOUL, Marion. Declaración Universal de DDHH y realidades surafricanas. Serbal-UNESCO, Barcelona, 1984; 294 pp.
- RICART, Josep; SENILLOSA, Ignacio de. El largo exilio de los refugiados y desplazados. Intermón, Barcelona, 1994; 48 pp.
- SACHS, Aaron. Ecojusticia. La unión de los DDHH y el medio ambiente. Bakeaz, Bilbao, 1996; 73 pp.
- SACO, José Antonio. Historia de la esclavitud. Júcar, Madrid, 1974; 301 pp.
- SALAZAR, Ana; BASAURI, Pedro M^o; MARTÍNEZ, Elena. Los "inmigrantes económicos" extranjeros en Vizcaya. Justicia y Paz, Bilbao, 1988; 77 pp.
- SENILLOSA, Ignacio de. El derecho a ser niño: documento base. Intermón, Barcelona, 1993.
- SOS RACISMO. Manifiesto por la igualdad de derechos. SOS Racismo, Barcelona, 1994; 31 pp
- STOLCKE, Verena. "El "Problema" de la inmigración en Europa: el fundamentalismo cultural como nueva retórica de exclusión". Mientras tanto. Fundación Giulia Adinolfi.-Manuel Sacristán, Nº 55, 1993, 73-90 pp.
- TAMAMES, Ramón. Introducción a la Constitución Española. Texto y comentarios. Ediciones del Prado, Madrid, 1995; 359 pp.
- TARNERO, Jacques. El Racismo. Paradigma, Madrid, 1997; 63 pp.
- TOMÁS Y VALIENTE, Francisco. La Tortura en España. Editorial Ariel, Barcelona, 1994; 273 pp.
- VALENCIA VILLA, Hernando. Los Derechos Humanos. Acento Editorial (colección Flash), Madrid, 1997; 95 pp.

- VASAK, Karel (editor general). Las dimensiones internacionales de los derechos humanos. Serbal- UNESCO, Barcelona, 1984; 3 vol., 963 pp.
- VERGÉS RAMÍREZ, Salvador. Derechos Humanos: Fundamentación. Tecnos, Madrid, 1997.
- VVAA. *Escritores frente a la Tortura. Relatos*. Talasa Editores; Asociación Contra la Tortura, Madrid, 1997; 149 pp.
- VVAA. *Los fundamentos de los derechos humanos desde la filosofía y el derecho*. EDAI, Madrid, 1998. 46 pp.
- VVAA. Los problemas de la paz. El nuevo mapa de Europa. Temas de Hoy / Historia 16, Madrid, 1997; 137 pp.
- VVAA. Sobre la resistencia a las violaciones de los Derechos Humanos. Serval-UNESCO, Barcelona, 1984; 266 pp.
- ZIMMERMANN, Klaus F; GRUBEL, Herbert G. La inmigración en Europa: expectativas y recelos. Instituto de Estudios Económicos, Madrid, 1994; 236 pp.
- ZUBER, Helene. Los desheredados. Plaza & Janes, Barcelona, 1994; 109 pp.

Economía/Ekonomia

La relación entre economía y derechos humanos es evidente en un mundo en el que incluso la supervivencia de millones de personas queda supeditada a ciertos intereses económicos. La siguiente lista no pretende ser exhaustiva, sino sólo indicar al profesorado dónde puede obtener datos, tablas o estadísticas. Puede ser quizás de utilidad en las áreas de geografía, matemáticas...

- AEDENAT. *"Fondo Monetario Internacional, Banco Mundial y GATT: medio siglo ensanchando el abismo entre centro y periferia". Mientras Tanto*. Fundación Giulia Adinolfi - Manuel Sacristán nº 57, Barcelona, 1994. 99-123 pp.
- BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA, Roberto. *Manual para una economía ecológica*. Los libros de la catarata, Madrid, 1994; 331 pp.
- COMISIÓN INDEPENDIENTE SOBRE ASUNTOS HUMANITARIOS INTERNACIONALES. *El hambre: una tragedia evitable. Informe de la comisión independiente sobre asuntos humanitarios internacionales*. Alianza, Madrid, 1986; 172 pp.
- CORDELLIER, Serge, DIDIOT, Béatrice (Directores). *El estado del mundo. Anuario económico y geopolítico*. AKAL, Madrid.
- DELPEUCH, Beltrand. *Las interrelaciones agroalimentarias Norte-Sur*. Iepalaa, Madrid, 1989; 154 pp.
- FONDO DE LAS NACIONES UNIDAS PARA ACTIVIDADES DE POBLACIÓN (FNUAP). *Estado de la población mundial*. FNUAP, Nueva York.
- FOREMAN-PECK, James. *Historia económica mundial. Relaciones económicas internacionales desde 1850*. Prentice Hall, Londres, 1995; 532 pp.
- GRIFFIN, Keith. *Desigualdad internacional y pobreza nacional*. Fondo de Cultura Económica, México D. F., 1984; 229 pp.
- RODRÍGUEZ-FERRERA, Juan Claudio. *La Economía Mundial y el Desarrollo*. Acento Editorial (colección Flash), Madrid, 1997; 124 pp.
- SAMPEDRO, José Luis; BERZOSA, Carlos. *Conciencia del subdesarrollo veinticinco años después*. Taurus, Madrid, 1996; 285 pp.
- SEBASTIÁN, Luis de. *Mundo rico, mundo pobre: pobreza y solidaridad en el mundo de hoy*. Sal Terrae, Santander, 1992; 189 pp.
- SEN, Amartya. *Sobre ética y economía*. Alianza (Alianza Universidad; 607), Madrid, 1989; 152 pp.
- SINGER, Hans; ANSARI, Javed. *Países ricos y pobres*. Pirámide, Madrid, 1982; 276 pp.
- STREETEN, Paul. *Lo primero es lo primero. Satisfacer las necesidades humanas básicas en los países en desarrollo*. Tecnos; Banco Mundial, Madrid, 1986; 189 pp.
- TODARO, Michael P. *El desarrollo económico del tercer mundo*. Alianza, Madrid, 1988; 725 pp.
